

AMA JAINKOA

Felix Zubiaga

Ama

Jainkoa

Félix Zubiaga

“La langue basque est une patrie, j'ai
presque dit une religion”.
VICTOR HUGO, *Alpes et Pyrénées*, 1843

© Félix Zubiaga Legarreta

Diseño de cubierta: Félix Zubiaga Legarreta

Maquetación: Félix Zubiaga Legarreta

Ekoizpena: Erroteta

ISBN: 978-84-92413-40-9

Depósito Legal: SE-5707-2009

Versión electrónica de este libro para su descarga:

<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

Para contactar con el autor dirigirse a:

Padres Pasionistas, Barrio Orue s/n

48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

Tel.: 94 673 04 86

fzubiaga@orue.biz

Ama

Jainkoa

Félix Zubiaga

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. UR BIZIDUN AMA.....	11
1.1. Amum-aitun asabak.....	11
1.2. <i>Nut</i> Ama sortzaile eta inude.....	12
1.3. <i>Amatu</i> > <i>Antu/Nut</i> jainkoen Ama.....	15
1.4. <i>Ama.Ate</i> > <i>Ma.at</i> Jainko maitea.....	18
1.5. Ama Jainkoaren anzea.....	20
1.6. “Ama belar ona”.....	23
1.7. <i>Ama.Ate</i> mendea eta maisutza.....	25
ONDOREA.....	28
II. AMA ANDERE.....	29
2.1. <i>Andere</i> > <i>Anderexo</i>	29
2.2. <i>Andre Mara</i>	30
2.3. <i>Marigorri, Marimontaiñe</i>	34
2.4. Ama Jainkoa eta <i>Amalur</i>	36
2.5.1. Bizitik bizira.....	39
2.5.2. Arrautzatik harakoa.....	40
2.5.3. Majiaren arteziaz.....	42
ONDOREA.....	43
III. DAMA/DONA TITULOIA.....	44
3.1. Jainko gizakundea: <i>Sube</i> eta <i>Butzu</i>	44
3.2. <i>Damkina</i> eta hogenaren mitoa.....	45
3.3. <i>Andre, diantre</i>	47
3.4. <i>Marduk</i> mardotzen.....	49
3.5. <i>Marduk Tiamaten</i> aurka.....	50
3.6. Giza sorkuntza berria.....	52
3.7. Majiadun sorkuntza eta basa-gizona.....	54
3.8. Adam-en gerena.....	57
3.9. Ama mendetik Aita mendera.....	59

ONDORENA.....	62
IV. JAINKO BILA.....	63
4.1. Jainko gerlariak.....	64
4.2. <i>Zeruko Erregina</i>	66
4.3. Jainko terrorista?.....	67
4.4. Ama Jainko utsunea.....	69
4.5. Ama Jainko bila.....	71
4.6. <i>Andre Mari</i>	73
4.7. Sexu gabeko Andre Mari?.....	79
4.7. Sorkuntzaren ber-irakurketa.....	80
ONDORENA.....	82
V. KULTURA ERASOAK.....	83
5.1. Lamien kontrako borroka.....	84
5.2. Sorginen kontrako eraso.....	85
5.3. Emakumeen kontrako bereizketak.....	88
5.4. Emakumeen kontrako erasoak.....	89
5.5. Aukera berdinak denontzat.....	90
5.6. Bizi eskubidea denontzat.....	92
ONDORENA.....	94
VI. EKOLOGIA ETA ESPIRITUA.....	95
6.1. Emakumea irakasle.....	96
6.2. Emakumea teologari.....	97
6.3. Emakumea Jainko iragarle.....	100
6.4. Emakumea bakegile.....	102
6.5. Arra, eroi eta eraile.....	106
6.6. Emakumea ekologizale.....	109
ONDORENA.....	112
VII. JAINKO AINTZAREN LEKUKO.....	113
7. 1. Amaidiren medioak.....	114
7. 2. Erraren arartekoak.....	117

7. 3. Jainkoaren profetak.....	119
7. 4. Umetzaroko Jainkoa.....	120
7. 5. Azaleko itxura eta arketipoa.....	122
7. 6. Jainko arpegi berria.....	124
7. 7. Emakumea toki sakratuan.....	126
7. 8. Etxandera > <i>santera</i>	128
ONDORENA.....	132
ONDORENAK.....	133

1° laburgoa: Ohiuzkoak zazpi arketipoen arabera.....	27
2° laburgoa: Hitzaren gizakundea arketipoz arketipo.....	40
3° laburgoa : Izenlagunak arketipoen eratarata.....	81

LECTURA DE SIGLAS

(eu) euskera, (s) sumerio, (a) akadio, (ur) urartio, (hur) hurrita, (et) etiópico, (e) egipcio, (u) ugarítico, (ar) arameo, (arb) árabe, (ber) bereber, (h) hebreo, (sa) sardo, (gu) guenche, (g) griego, (l) latín, (f) francés, (it) italiano, (ca) catalán, (ga) gallego, (i) inglés, (al) alemán

SARRERA

“Lur barik, ez da zerurik” ohar egiten digute ekologistek eta “zeru barik, ez da lurrik” iragarten mitoek, izan ere, zeru eta lurraren arteko harreman estuetan oinarritzen bai-da ekologia. Hagatik, lurrari egin kalteak ikusiz, antzi egiten diogu damuz Sortzaileari eta egoitzarako eman digun baratzari jatorrizko arpegia itzultzen asma dezagula eskaten. Uretako eta aideko kutsadurak garbitzen ditugun einean, Ama Jainko arpegi berria argituko zaigu ohargabeko ilunbean. Gosea asetzeko ona da amaren bularren oparoa, edo egarria baretzeko haren eskutiko mama. Amaren manatua gizatasunean oinarritzen da eta aitarena baino etxatiagoa eta ziu-ragoa da haren aginte matoa, anai arteko eztabaidak baretzen, auziak garbitzen eta aita meneko basa hitzarmenak, herrietan maiz elkarren kontra sortzen dituzten borrokak amatigatzen eta suak amatatzen ere bakarra.

Amaren eskuak etxeko gobernua ziurtatzen du; etxeko nebarebak bakean eramaten dakienak herriko amameru izaten ere badakike: Ama Jainkoak bezala, gure asabek lurrean bizi esperientziatik antzeman bai-zuten zeruko ordena ere, hemen familia txikiko amak bezala, han zeru-lurretako familia orokorraren Ama Jainkoa izan zela sorkuntzaren erdian amasabel eta maisu.

Ura, amaren erraiak bezala, bizien sorlekua eta sortzailea da. Elizako erritoetan edo itxas ondartzako jolasetan ura ospatzen dugularik, Ama Jainkoaren uin bizigarriez akordatzea dagokigu. Ohargabeen bai omen dugu oroitzapenik nahiko, gizakia psikoanalizatzen dutenen ustez, eta asaben jakinduria bera gaurko zientziaren pareko nabaritzen dela emakumea “*ur utxa>urruxa*” deskribatzean, edo haur osasuntsuari “ur bizieta sortua” eriztean, edo “ontzi omengarri” goralpenaz Andre Maria agurtzean.

Jainko Amaz edo Ama Jainkoaz ari garela, *Ama Jainkoa* aukeratu dut titulotzat, *Ama* delako hizkuntza zaharren artean eta haiengandiko ondarean izenik zaharrena eta zabalduena eta zati bat geroagoko deiera, berriz, hiru arketipoz osaturikoa *Jainko*

hitza. Aldi haretan nahiko zan amagoa norbait jainkotzat hartzeko edo jainkotiar ezagutzeko, izan ere, sumeriar jakinduriak dinonez, “ezkontzea gizarteko zera da, baina umeak izatea jainkoarena”.

Batzuk Paleolitosko artean ikusten dute Ama Jainkoaren men-dea edo Neolitosko testo zaharretan ezagutzen haren sorkuntza: “itxasoak Amaren sabeletik urten zuenean” (Job 38,8); “zeuk eiho nauzu amaren sabelean” (Sal, 138,13) edo denetan zaharrena: *ama.utu.an.ki*^(s) “ama.itu In.ko/amak itu zeru-lur” edo amaitu zituenekoa ulertzean edo antropologiazko emaitzetan oinarritu, antzinako Jainko Amaz eta jainkesez hitz egin bai-zuten, hemen, ostera, euskararen hermeneutikan bederen oinarritu, aurkeztu nahi dugu *Ama Jainkoa*, mundura bilosik edatu gintuena eta *Ama.Ate>maite* denez gero, bilosik hartuko gaituena.

Jainko sorkuntzako *uin, su, aire, loi* lau elementuez inguratu-ta bizi gara barru eta kanpo, “beragan bizi, mugi eta bai-gara iza-tez” (Ap. Ek, XVII. 28) aitortzeraino eta elementuotan uina, sorkuntzaren Ama arketipoari lehentasuna ematen diogularik ere, kontuan dugu *Utu>su* iduzki Aita edua edo *Erra eroi/eroiesaren* haire bizigarria eta, azkenik, hiruen frutu bezala, geu garen *Ilu>loi* eta lurra bere frutaki eta barazkien ornigarriekin.

Zilegi bezaigu, beraz, halako *Ama Jainkoa* aitortzea, hari debozior “ene Ama” inzini egitea edo “Ama gurea zeruetan zarena” fedez, fede beraz, otoiztea, uinetan sortu gintuenak, bere uretan garbi gaitzala loietatik eskatzeko, eta aska uriolen erasoetatik, orobat gure lurra inutu dezala eta gure amen erraiak narotu eta umeak zaindu ditzan, neba-arreben arteko aserreak amatigatu, aita meneko borroka suak ibitu eta berriz ere, bere maite eskolan heziz, giza einera jaso eta gure herria, *bakera* baino harago, *ungora* bultza dezan.

I. UR BIZIDUN AMA

1. 1. *Amun-aitun asabak*

Herrien historia amona zenaren oroitzapenetan hasi eta berarekin batera amaitu zan ziklo bat, aldi berri bateri bide egiteko. Aldi batez amuma zenaren burua nahastu zeneko ilundura zan, ots, lehen sorkuntzaren mitoa esnatu aurretiko gaua, *kau huts*, euskarak argitzen digunez, eta grekoek, muinaren ezjakitun, hitz barbarotzat hauteman eta *kaos* finkatu zutena. *Kaos* hitza gau hutsaren izpilitik hartuniko abstrazioa da, ordea¹. Sumerreko mitoak hako *gau huts* nortasunez janztean, *Nammu*^(s) “uren butsua” deitu zion, Eriduko idazkizunen arabera, handik burutu ere egin bai-zan sorkuntzaren lehen azalpena, *ama.utu.an.ki*^(s) “amak itu In.ko/zeru-lur” esaten duena, “hasieran Jainkoak zeru-lurrak egin zituan” (Has 1,1-2) aipatu baino hiru bat mila urte lehenago. Nor zan, beraz, Ama aurretiko *Nammu* nortasuna, ezpaere gure *Amuma/Amona* bera? Egitiar idazkiek, bi mila urtez geroago, mito bera errepikatzean, “ilun hutsa” edo “zer bako zera” azaltzeko, *Nun* itxaso aipatzen dute². *Nun* itxasoaren barne egitiar teologoen *Atum* izakiaren has-tapena ere aipatzen zuten. *Atum* horri euskaldunok *Aitun/Aiton* deitzen diogu, *Amun/Aitun* lehen bikotea ezagutzen dugularik.

Antxinako arazoak ahazturiko gauzen ilunbean gelditzen dira eta, kontatzeko orduan, argitu ezineko nasteen kokatzen ditugu, geure hutsak geure ipuinen pareko egiten ditugula. Izadiaren sorkuntza, ostera, egunsentia bezalakoa izan zan. Ilunak joanez gero, sorkari bakoitza bere tokian agertu bai-zan: goian zeru urdina eta behean lur arrea, goiko eta beheko urak banandu, eta

1 *Khaos*^(g) “huts/hutsune” esan nahi du gerkeraz. Euskararik ez dakiten etimologoen izen hau **ghen*- “zeharo ideki” indoeuropearretik datorrela dinoe, baina euskarak hobeki dakus, “leize handiaren gaineko ilunbea” (Has 1, 2.) deskribatzeko *gau huts*>*khaos* dinonean.

2 *Nun* hastapen hau “gau hutsa zan, baina ezer bakoa, amai gabeko itxaso zan, baina hutsa”, oraingo kosmologoen materia-eza “antimateria” deituko luketena. Amona zaharrak eurak ziran ipuin kontaleak eta “amona zaharren garaia” *Marimontañe*, *Marikastaña* edukinetan kokatzen ditu herriko ipuinak.

elkarren mugak zehatz-mehatz zaintzen dituztela. Ilunbeko Amumaren ostean, orduan Ama Jainkoa aipatzen da Eridun *ama.utu.an.ki* "In.ko/zeru-lur" ondarea *ama.itu* zituena, eta, beraz, Ama Inkoz *amatu* zenekoa³. *Nammu*^(s) "urtegi" orokorra zan, eta euskarak edozein amaren alabari *ur utxa>urruxa* deitzen dio, emakume guztiak bizi urtegi handitik urteneko ur bizien ontzi berezi baliran⁴. Haraz gero, iturritik urak karriatzea emaztekien lana izan da eta ama, pegarra buruen duela, jainkosen seinutzat eman izan da, eta jainkosak ere bizi-uren *ur-utxa>orza* eskuetan daramatela agertzen dira. (Ikus 15 or.)

1. 2. Nut Ama sortzaile eta inude

Nut^(e)/*inude* hizkunez arira ezpaletor, *Nut* Ama ez litzaken euskaldunentzat aipagarri izango, baina Egiptoko mitografiatan bere ume lurrari bularra ematen ikusi (Ikus 17 or.), edo pendarra buruan daramala ohartu (Ikus 13 or.), edo Inotez haren omenezko ospakizunean *inude* eta unaien biribilketan Donostiako kalean ikusi ez bagendu (Ikus 19 or.), ez genuen aipatuko⁵. Zer eskatzen zioten, bada, Ama Jainkoari inudeek Inotean? *Inu* umea eta haren eineko *insoak inutzeko eñea* eta halaber *unaiiek, aiñek* hazi eta *nahiko ano* antzokatzeko *uina* eskatzen zioten/diote.

Nut^(e) forma bera *Antu*^(s) irakurten zan hanartean Sumerren eta *An*^(s) zeru-jainkoaren emaztea zan eta egituraz biak ere, *Ama.Utu* lehen mito aipatuaren heineko dira, Amak ezin zezakelako, *Utu* "iduzki" argi barik, sorkuntza argitara eman, eta hagatik *itu*

3 H. LIMET, "Cosmogonía (sumero-acadia), DR. or. 343. Cf: *Ama++Utu* forma *Ama+Atta>Maita* eta *Ma.at*^(e) arketipo berberak dira, amaren eta aitaren elkarren arteko harremona adierazten.

4 Latinak, mailebatuak-eta bihurritzeko zuen amarruaz, *urruxa* formatik *uxor*^(l) "emazte" hitza asmatu zuan eta gaztelaniak *urruxa>orza* egokitu "ur ontzi" adierazteko, eta geuk ere, *ur+utz* konposagaiak itzulikatuz, *xarru>jarro* egiten dugu, eta, gizatuz gero, berriz, *pitxar* dena eta hortik *patar/patxar*, ontziko edaria. (F. ZUBIAGA, *Origen del Vasceunce*, 70)

5 *Inude/inutu* formak dira gainerako *nutrire*^(l)>*nutrir*, *nourrire*^(l), *nourrihs*^(l) hitzen sorgu eta horretan ikusten da beste hizkuntzek ez bezalako oroitzeta eta azalpena duela euskarak, funtzezko etimologia egin nahi dutenentzat.



Adar jainkoa "hodei, ur *edarra*" hitzaren gizakundez, *pedar* dator. Ur igaroketa aldi baten gure arteko emakumeen ahalegin astuna izaten zan, Hirugarren Munduan gaurdaino irauten duena. *Nut* Ama Handi jainkosa bera ere, lurreko umeteriaren Ama eta *inude* denez gero, *pedarra* buruan daramala ere agertzen da piramideetako marrazkietan Egipton. Eta Lurdesko Ama bera, "ur miragarrien" banatzailea, ez da jainkosa zaharraren edo amonen ahaleginetaz lotsatzen, halako ganoran ere, buruan *pedarra* duela, agertzen bai-da bere irudietan. *Ur utxak* emakumea bera den ur bizien ontzia adierazten du eta, hagatik emetasun guztia izatez *ur utxa*>*urruxa*>*orza* definitzen bai-da.

"lortu" esatera dator, *itoitu* "atera" eta gerkeraz *tiko*⁶⁾ "argitara eman", eta *amatu* "ama izatera heldu" edo epe luze baten ondoren umea *umatu* eta sortze lana *amaitu* ondoren, jainkozko helburua lortu eta ontzat emanten duenean, *amatu*>*amadu* baidator. *Amatu*⁶⁾ adizkeratik, erromanikoez ere, *amado/amada* erabiltzen dute *ama+aita*>*maita* dena adierazteko, hori sakonean azaltzeko, ordea, euskarak bakarrik jo bai-dezake sustraira⁶.

Nut Ama zerutik *uina inosten*, *uda uxuritzen*, *ura uritzen* edo geure loiaren oinetan *uila uilatzen* ohartzean, izadiko lau elementuak *Nut* inudeareriko dantza bustian ikusten ditugu poliedrozko dizdiratan *uina*, *udda*, *ura*, *uila* euskal izendegia⁷. Gure lurra den mortuaz, ez genduke elikaigarik lortuko, *Nut* Ama inudearen ur ornitze barik. Hagatik esan ohi da "zeru barik ez da

6 *Ama.tu* formako *-tu* adizkeren ekintza osatua ezeze, haraz gero-ko jainkosen forma eta emetasun seinale agertzen da Egipton, hala *neter/neteret* "jainko/jainkosa" adierazten.

7 Gure baserri gehienak, ez denak, dagoneko ur korrontea dute etxean, baina itzelezko ahalegina eta ezina da oraindino, Afrikan edo Sortaldeko zenbait lurraldetan emakumeek euren umeentzako urak karriatzen egiten duten lana.

lurrik". Ur ornitzailleetan *Utu/odi* edo *iturri* da eta *Erra/erreka* nahiz *erreten* egiten, *Ilu/loi* "lurak" *alort* ugaria *lor* ahal dezan. *Nut* Ama eta inudearen amainura, beste arketipoak men egingo ez balute, asaben euskarak ez litzuke hitzetik ortzera ain gertutik mimatuz jarraitu eta deskribatu ahal izango.

Sumerren *Ilu/loi* "lur" elementua ez zan jainkotzat aitortzen eta bai heriotzaren kausa ziren malurekin berdintzen maiz⁸, eta euskararen susmoan ere Ama arketipoak ondo jokutzen du *Utu* "eguzki" eta *Erra* "aire", arketipoekin, batean *Ama.Ata>Ma.at* deitzen dela, eta bestean *Ama.Erra>Mara/Mari* ematen duela-rik, baina *Ilu/loi* elementuarekiko loturak *Ama.Ilu>malo* "gaiztorea" jotzen du, ots "kusoa, txorimaloa" edo *mala* "uriolak arrastatu lurra" bezala edo norbait jokeraz den *mamala* adierazteko⁹.

Gure asaben pentsamoldean izadiaren sorkuntza Ama Handiaren erraietatik harako ekintza izan zan, halako erraiek sor bai-zezaketan osorik eta berez, amak umea eraten duen bezala. Hagatik, handi mandi irudipean, Ama Jainkoak mendia du oinpeko, *An*, haren seme "zeru" jainkoak ere, menditik gidatu bai-zuan gizakien sorkuntza¹⁰. Ama Jainkoa ez da mendia bera, ez menditar, naiz bere umeen arduraz, ahien kezkek urbilagotik jarraitzearren, Ainamendiko Jonagorri bezala, maiz mendiraino jaitxi eta koban eguritu ikusten zuten gure asabek¹¹.

8 LIMET H., "DEMONIOLOGIA (rel. sumeria y acadia)", D.R., p. 416

9 Ama izenaren ohoretan, *Amalur* deiera, greko-erromatar mitoen gainbeheratetik dator eta oraingo modara, gauza arrunta bezala onartzea euskal etnografiari kuku ezeze, ekologia aintzat hartzen duen teologiari iruzur egitea litzateke.

10 *El Diluvio*, 44, ANET, 42-44.

11 Mendia jainkoen berezko tenploa zan Ama Jainkoaren hurbiltasunak bertatik *Ama.Ata>mende, mentu, manda, mando, mendi* edo *monte* erromanizatu, etab. edukinak analogizatu bai-ditu, *mendia* zeruarekin bat egiten duen zeru egia eta muga delako. Mendian agertzen ziren antxinako Andre Mariaren santutegiak eta askok *Santa Maria del Monte* edo *Santa Maria a Monte* izena gordetzen dute.



Ur bizien ontzia, *urruxa>orza* sinboloa errai gainean kokatzen dutela, Ama Jainkoaren edo haien abadesien bi irudi: bata Langi Mari sumeriar erregeak jainkosari eskeinia (XXV K.a. Mari uriko aztarrenetatik), bestea iberiar Anderea (VI K.a.) Cerro de los Angeles Almeriakoa) Milaka urteren aldea eta sinbolo bereko Ama Jainko mendea usko-mediterranear kulturari. Mari-ko irudia adardun dager. Arropa babesa adierazteko zazpi gona itxuratzen, harako “zazpi jostunek josia” bezalakoa.

1. 3. Amatu>Antu/Nut, jainkoen Ama.

Nut jainkosa soin izarratu dager Egipton eta *Nut/Nuit* irakurte- edo *nux/nox* “gau” greko-latinoen bidedik erromanikoen *nuit*¹⁰>*noche* “gau” egiteraino murriztu dute edukinez. Latinoek ere ez zekiten *Nut>nuda* “bilus” nondik zetorken eta hitzaren jatorriaz ezarduratu, begitantzinora lerratzen ziran. Izan ere, *Nut* jainkosaren soina izarratu baizen, bilus dager. (Ikus 17 or.) Izarrok jainko familia adierazten dute eta, hagatik, *Nut* jainkosa “jainkoen ama” aitortzen dute egiptologok.

Nut⁽⁶⁾ forma *Antu*^(s) irakurten zuten zati bat lehenago Sumerren eta hor dakusgu hizkunez *Ama.utu>antu/handitu* amatasunaren eragin agiria¹². Amatasunak *handituz*, *antxitu*=lortu egiten du familia, gaztelaniak ere, ez nondik eta ez handik, *enchida* ikusten bai-du andrearen amatasuna eta honek, epea osatzen dueneko,

12 Euskarak, sumerioak bezala, kontsonantea bokala aurretik duela ahozkatzeko ohitura du, egiptierak, ostera, bokala ostetik jartzekoa. Horrela *Ama at/Ma.at*, *Ama.utu/Mut*, *Antu/Nut*, *Erra/Ra*, *Utu/Teu>Zeu*, etab. Fonetismo honek berea laguntzen digu antxinako jainko familiakoen izenak ezagutzen.

umegaia umatuz, amaitu daroa umegintza.


Nut izarratua zerutar jainkoa goian makotu agertzen da eta *GeB* giza konplexua, berriz, haren oinetan etzana (Ikus 17 or). Bere zero makoaren gainetik doaz ur goienak eta bere oinen petik ur barrenak eta Erra iruski semearen orbia osatzen dute¹³.

Nut jainkosak magalpean *Erra* dauka *arra.utza* itxuran, baina bere orbia untzian, gidari biren artean egiten du, berak aztore burua daroela eta buru gainean iruski aroa eta haren biran *Ureus* sugeñoa duela zelatari. Honek lurpetik dabilen *Errensugea* salatzen omen zion (Ikus Peña Tu, 29 or.), haren amarruak itzuri zitzaizkion. Gidarietan aurkaldekoa *Ma.at* Ama jakinduria, bizi *ank* eskuetan duela, eta ostean, *Toth* zertzeladen eskribaria doaz. Erra iruskia urtetze eta ehorte orduan izaten omen ziran Errensugearen erasoak. Errensugeak Erraren ordena zuntzi asmoa omen zuan eta hagatik beharrezkoak zituan aldamenean *Ma.at* jakinduriaren argibidea eta *Toth* eskribariaren laguntza. Osterea amaitzean, *Nut* Amak altzoan hartzen omen zuan, urrengo goizean berriro erditzekotan.

Nut irudiaren oinetan etzanik dagoen *GeB* nortasuna *Ka* eta *Ba* arketipoez osatua aztertzen zuten antxinatik egitiarrek, gizakia korputzez *kai>gai* eta kontzientziaz *ba/baita>bada* dela adieraztearren. Horrela, *KaBa* kabian bezala kabitzen da *GeB* gizakia, giza baitak *kabia* gorputzean duela, alegia¹⁴. *GeB* gizakiaren belaun makotuak lurreko mendiak iruditzen omen dituzte. Lur elementua *Ilu/loi* da monosilabotan, elementu ezbaikorra benetan, gizakiagan *ahal* eta erabat *ahul* izan ohi dena.

13 "Ur goiena, ur barrena" errittoa Nafarroako Barrankan ospatzen da. (SATRUSTEGUI, J. M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 40-43) Cf. Altzatzun bertan "Uronako Andre Mari" ermitan bertan ospatzen bai-da, Iberiako beste toki askotan "la Virgen del Cántaro" ematen den bezala. Ohar, bestalde, eguzkiaren osterako *orbia/orbea* "lasterra, ibilketa" eta erromanikar *orbe*⁶⁰ eta *órbita* hitzak.

14 Egitiar jakinduriaren arabera, *Ka* akabau eta gero, zerraldo gelditzen da eta *Ba ave* "txori" antzo, hegaka marrazten da mitografietan, bere kabiara berriz noiz itzuliko, eta *Bennu/Fenix* bezala, berbizteko *aS* bizigariaren begira. *Kabia* honenganako txoriaren apeuak bestelako trasmigrazioerik ez du onartzen, *KA* eta *BA* elkarrenak bai-dira funtsean sekulako.



Egitiar mitograman *Nut*⁽⁶⁾ “zeru”, *inude* ezeze, sumerieraz *Antu* deritzaion ama handi, *antua* dakusgu. *Nut* amak egunero umatzen/umetzen du *Erra* seme iruzkia. *Erra* beheko uretatik goiko uretara ugaroan doa, *Ma.at* jakinduria eta *Toth* idazkaria lagun dituela, aztoze burua eta buruan eguzki aroa ta haren gainean ureus sugeñoa daramazki, *Aphosis* Errensugearen amarruen salatari. Arratzean *Osirisek*, eskuak zabalik, gidatzen du. Erdian laino gainean, *Shu*⁽⁶⁾ airea dago, *hutsa* betetzen eta bizidunei *ank* “bizia” eta *Aj* arnasa ematen. Azpian etzanik *Geb* “lurra” dager, *Ka+Ba* giza arketipo bikoitzdun, eskuma *Shugana* zuzentzen duela eta ezkerre, berriz, *Osirisegana*. *Osiris* hilen auzian *Ma.aten* aldameneko da eta berbizkundea ordezkatzen du.

Hagatik sumeriarrek *Ilu* maluren pareko aipatzen zuten¹⁵. Gizakia, berriz, ez da kontzientziarik ez duen lur utsa. Gizakiak, indarrean dagonean, ahalmena du, ahal du, baina ahulerian, ezin du eta adorea-aren gora-behera hoietan *hil* egiten da. *GeB* dena beharrean dagoe-nez, eskumaz *Shu* “aire” elementuagandik *ank* “bizia” eta *ats/aS* “arnasa” bizigarria eskatzen du eta ezkerrearekin heriotz osteko *Osiris* giza ereduko jainkoaren zoria itxaroten¹⁶. (Ikus 17 eta 33 or.)

15 Sumereraz *lu* da “gizakia” eta *ki* “lurra”. Euskaraz “gorputza” adierazteko *loi* ere erabilten da eta *kai>gai*, ostera, “materia, gaitasuna” esateko.

16 Egitiarrek hil kutzaren goiko estalkian *Nut* jainkosa marras->

Itxaropen honetan zerutar jainkoekin alkargoa egin ametsa ere izan zuten eta *aNu*, *uTu*, *eRra*, jainko izenen arketipoak *Ka* eta *Ba* giza arketipoko kontsonantez kutsatzeak hizkuntzaren aitorpenean, jainko seme-alaben gizakundea adierazten zuan. Hala *Ka>gai* arketipoari dagokionez, *An* jainkoagandik *Enki^(s)*, *Ino*-gandik *Inko^(eu)*, *Utu*-gandik *Got⁽ⁱ⁾*, *Ra*-gandik *Gar*, *Ilu*-gandik *Luku*, *Logu^(g)*, etab., eta *Ba* baitatasun arketipoaren izenean *ainubi*, *Nabu^(a)*, *Benu^(e)*, *butzu^(eu)*, *bata>Ptah^(e)*, *Parau^(e)*, *zubi^(eu)*, *Rab^(h)*, *abele>Ba.al^(u)*, *Luba*, etab.

1. 4. *Ama-ate>Ma.at Jainko maitea*

Ama izan da mundura ekarri, inutu eta bizitzarako hezi gaituena, bere ardura eta berari men egitea bidezko ematen da eta zilbor esteak amari lotzen gaituen bezala, hala Ama lehen arketipoari loturik dago euskararen oroitza, *ama>amatu* eta *ume>umatu*, edo *Inu>inutu* mimatzen dituen bezala. Beraz ama mendearen arian antxinatera, asabek edo gure genesek bizi izanekora bidaiatu nahi duenak, euskara bera du ontzi eta bidaiakide ziu-rena, Errak eguneroko osterean *Ma.at* jakinduria eta zuzenbidea gidari (Ikus 21 or.) eta haren urten-orsteetan *Ama-Ate* duen bezala. Ereduan ikusi eta, hagandiko sorkarion bizitzak eta heriotzak ere ate ber-bera dutela adierazten bai-digu¹⁷.

Ate>atx>aitz dator toponimian¹⁸ eta lurreko atea analogia batez hartzen dute *Ma.at* Amak bezala, eguzkiaren atari izateko ohorea, orzantzean edo ostean zerua sutu egiten duelako eta ainubia-gorriminez jansten. Hagatik *atari>terra* dator latinez, lurra eguzkiaren *atari* prestatzen duelako eta halatan *atari>aether^(g)>-eder* ere nabaritzen da haren argitan, eta santutegigintzan, berriz, “Atari Eder” izena ere ikuskizun beretik sortzeraino¹⁹.

>ten zuten, eta hilotza atautean *atatu* “sartu”. *Ama.Ata* erlijiodunentzat, argiago dago *atauta>ataud* edo *atado* gaztelaniarra nondik datozen, hilotza atautean *atado* “lotuta” *atatzén* bai-zan, gaur bertan islamiarrek egin ohi duten bezala.

17 A. ARNAIZ; J. A. GARCIA, *Egipcios, bereberes, guanches y vascos*, p. 445

18 Halako harkaitzak *Atxak* izena hartzen dute Bizkaiko toponimian eta *Ateas* Nafarrokoan.

19 Andre Mariri *Janua caeli* “zeruko atea” deitzen zaio, *Ate ederra,>*



Donostian Inotez *Inu* Ama Jainkoaren *niniari ino* eta *inzini* egiten diote *inudeek niniekin* eta *unaiekin* kalejirran. *Uina inotsi* eta *lurra uintu* eta *ondu* dezaken “*zeru Amari*” inoz eta *aienez umeak inutzeko eñea* eta *ainek* hasteko *añoia* urteburuan *onuratsua* izan dadin edo arestiko eskasiagatik *eno- iua* adierazten diote. *Unaiek* ere mainataren mantenua begiratu behar dute *aine, aume, antxume* eta *auntzetan* nahiko *ano* anzokatu ahal izateko (Ikus “*zeru Amaren*” ume *Inu* izenean egin oi- huen zerrenda¹ laburgoa n)

Gizakien bizi arazo negargarriena hil beharra zan, “jαιοak heriotza sor” duelako eta iluna zan, halaber, heriotz osteko zoria. *Ama.Ate* siniskaia arazo honetan oinarrizten zan usko-mediteranean erlijioan hilobiko idazkizunetan agertzen den bezala²⁰. Eta bizia Ama Jainkoagandik datorrenez gero, heriotz osteko zoria ere harengan ezarten zuten. Horixe bera adierazten du euskal *etxe* erakunde helduak *etxandereari* opa izan dion arduratan, bera bai-zan *etxe*ko bizen eta hilen arduradun eta *etxean* jαιοak *etxape* berean egorzten bai-ziran, *etxe*ko ilintia zutela ilunpetako bidaian argibide. Hagatik *etxandera*>*santera* dator eratorriz, eurak zirelako hiletan erazole *Ama. Ate* jainkozko legean. Arazoa geroztik apaizen eskuetan gelditu delarik ere, *etxandera* bakoi-tzak bere *jarlekua* gaurdaino gorde ahal izan du eleizako hilobi eta hileta ohikunetan²¹ (Ikus 25 or.).

Ama.Ate asaben erlijio funtsa *Ma.at* irakurri eta ospatua izan

>berriz, erromanikar artean arte bereziz egindako ate nagusiari.

20 ARNAIZ; ALONSO, *Egipcios, bereberes, guanches y vascos*, p.299-302.

21 J. M. BARANDIARAN, *Mitología Vasca*, or. 55-72

zan Egipton, beragan aurkitzen zutela zuzentasun eredu eta ja-kinduria orokorra. Euskarak *Ama.Ate>Amaite>Maite/Maidi/-Maxa/Maya*²² izenekin ezagutu izan dituzte euskaldunek gure mendi santutegi eta aldizko ospakizunetan. Horrela *Maxamendi* santutegietan eta *Maya.atze* ospakizunak. (Ikus 23 or.) Batez ere *Ama.Ate>Maite* bere izena mimatu dugu, berak gu eta guk bera elkar maite dugula adierazteko eta “Jainko maitea” asperena da gehien bat entzuten dena, “ama maitea” esaten den bezala.

Hare gehiago, *Ama.Utu* edo *Ama-Atta* arketipoek zero-ama eta iduzki-aita hartzen dituzte sinbolotzat eta bien artean adierazten dute elkar maita direna eta *amatu/amata*⁽¹⁾>*amado/amada* “maite” erromanikoa hitz arrunta izateraino²³.

1. 5. Ama Jainkoaren anzea

Jainkoak bere antz eta irudiko egin gintuela aitortzen du Bibliak (Has 1,27), izan ere, amak bakarrik antxitzen ditu umeak bere antz eta irudira eta hatarako duen *anze* “artezi” bereziaz antzestu egiten bai-gaitu eta umatuz, umetu²⁴. Hortantxe dago, izan ere, haren semealaben arteko aintza, amak bere un eta muinez jantzi eta bere ahotzezko izen niminoaz deitzeraino ezagutzen gaituelako: *Anu/Inu, ume/ime, Ema/Mia* izenak hartzen dituzte eta gaurdaino ezagunak diren *An, Ana, Ania, Aina, Enio, Naia, Noa, Noe*, etab. bezalako nortasunak, *m/n* mimatzen duten izen monosilabok eta guganako duen maitasun lotura adierazteko *nahi, maite, amadu* adizkerak laguntzen digutela. Erraien baitatik nahi izan gintuelako, bere irudiko *nini, aina* eta *anai*, egin gintuen, bere *antza/aintza* dugula *onore>ohore* eta *antzi*.


Zerutik ixuritzen diren edo zeruak urtikatzen dituen aidetako fenomenoei begira, J. M. Barandiaran maisuak zeruaren izena *IN* behar zuela ebatzi zuan. Handik, *INUk inak* bezala, bai-datoz *intza*,

22 *Amaite, Amata, Amaidi, Amaya* forma zaharragoak ere gelditzen dira, santutegi, jabego edo emazte izen berezi bezala.

23 Esaera batek dinonez, “atetik sartzen dena bere etxean dago”. Apokalipsisko emakumea “eguzkiz jantzi” dager, haurdun dagoela adierazteko. (Apok 1.1)

24 Hortik *maturu* latinoea ere, *matutu> madurar* bailetarren.

Ma.at⁽⁶⁾, zuzenbide eta jakinduriren jainkosa, *matoa* esku batean eta *ank*⁽⁶⁾ “bizi asa/arnasa” bestean duela, “Ma.at-en aginduak betetzeak piramideak baino hobeto gordetzen bai-du bizia” egitiar jakinduriak dinonez. Eskuman duen *mato*>*mazo* bere *masu*⁽⁶⁾/*maisu*/*maese* ofizioaren sinbolo eta hitzaren sorleku da, ama, *amatu* denez gero, berea bai du bermegoa eta halatan amatigatzen du izadia eta gizartea. Beragandik hartu zuten *Mosek* eta Faraoi askok ere izena eta *masu* ospea. Berak juzkatzen zituan zenduen bihotzak pisuan, bihotza plater baten eta *Ma.at*-en lumazko gandorra bestean: *Ma.at*-en balantza *matematiko*a da. (Ikus 33 or.) Ama agintearen herriak berari zion jaiera ondo adierazten du *Ma.at*/*maite* hizkuneak, *amatu*>*amadu* den beztean. Usko-mediterranean erlijioakoak *M T* idazten zuten bere izena hilibiko orotarrietan, eta *AMA.ATE* irakurten dute aldatzaileek, mundu honetara edatu gintuen ama bera baillitza beste mundurako bidea ere. Hagatik Andre Mariari ere “Zeruko Atea” otoizten zaio Errosarioko arrenetan.



inontzia, *inatasia*, *inusturia*, *inisia*, *inara*, *inhazua*, *Inka*, *indar*, etab. Beraz, egileari deritzaiena bera emarien izenetan ²⁵.

Eta ondo asmatzen zuan halako maisuak, gure artean ere guraso amaren edo aitaren izena ematen bai-zaio alabari edo semeari eta zeruak *IN/in* “zeruak egin” adierateko hizkune egiten baidu, geroago *INU/ino* “zeruak esan” aditzetan, “esan eta egin” magiazko artezia aipatzeko erabili izan den bezala.

²⁵ “De varios nombres del rayo, del trueno y del pedrisco se puede inferir que el cielo fue también designado con el vocablo IN”, (BARANDIARAN, J. M. *Mitología vasca*, o.c. p. 136

Ama formak bokalez zabal izatetik nortasunaren handia adierazten du, *ime/ume* bokalen estutik, ostera, txikitasuna. Alde berdintzua dago *m/n* kontsonanteen artean *ama/aina* izenen eta edukinen artean bezala. Beraz, egokia zan “zeru” Ama Jainkoaren semea, *An/Inu* deitzea, *Ino.te* ospakizunak adierazten duenez. Hagatik gero ere, hizkuntzek txikitasun eta kutuntasuna adierazteko *-ino/-iño/-iña* atzizkia erabilten bai-dute: *andereño*, *moziña*^(ga), *pequeninho*^(por), etab. Horrela, *Inotez* Ama Jainkoaren ume *Inu* “zeru” ospatzen bai-da euskararen sorreratik²⁶.


Maiz *m/n* kontsonantea bikondu egiten dira. Horrela *Mami*^(s), *Nana*^(s) edo *Amama* jainkosen izenetan, edo *amañi*, *amaño*, etab. haren kutsuko izenetan. *Ma* forma *Ama* Jainko direnentzat eta *n*, berriz, *Inana*^(s) bezalako alabentzat edo *nana*, *nini*, *ñeñu*, *nene*, *niño*, etab., formetan bezala. Eurotan sortu da norentasuna adierazteko atzizkia ere, “*noena>noina* zara zu, laztana?” umeari galdetzean eta honen “Amana” erantzutean bezala.

1. 6. “Ama belar ona”

Ama Jainkoa amatu zenetik, *ama!* inzinia da umeteriaren ahotan gehien entzuten dena, *Inu* umearen ahoko analogierak inzini asmatu zenetik. *Ama* izena laster ikasten du umeak. Eta *ama* izena, den bestean, eskari otoitza da umearen ahotan. Hatarako euskarak Ama Jainkoari deitzeko inzini bereziak ditu, *Inu* edo *Eni* dela zeruaren uneko izena eta eregu edo erreku eskalearen mintsoa. (Ikus ohiuzkoak 1° laburgoan) Miragarrian *ene*, *aan!* ahozkatzen da, *ni* osoa Amagana doala, esturean *enei*, zin egitean *ená*, antzian *ainü*, edo enoiuan *inó* bezalako eupada joteko²⁷. Umea dena beharrean dago eta ama dena emateko gertu, *ama/-*

26 Sumerieraz *An* da “zeru” izena eta bere kultura esparruko urartieraz “jainkoa” *Inu* da eta euren lehengusu ziren hurriteraz, berriz, *Eni* esaten bai-da. (R. LEBRUN, “*Urartu (religión de)*” DR, 1794 or.)

27 Nafarroako Erriberan umea ixilti edo murrizta denean, “no dice ni aiñó” esaten dute. Ohiuzkoen ots eta adierazbidetan dago hizkuntzaren hasikiña eta euskal gramatikaren sorgua. Ohiusko otsak baserrian entzun izan dira eta handik kalera galtzen doaz. *Iñó* esaten gendunoi, “hori ez dok>



*Inoterian Iturengo neskattoak Maidi Ama berekatzen "norbertzat hartzen". Hortik *precare*⁰ "eskatu" eta *ferekatu* "laztandu" Mutil gazteak Maidi>Mayiren *Maia.atze* tantaia basotik hara herriko plazan jasoten dute eta haren erpinean exegitako sariak eskuratzen lehiatzen dira. Ezbaigabe, nerabetza garbi hasteko erri-toa da eta Ama Mendearen aldiko ugaltasun ohikuna ere, Kristo aurretik eta artean eman dena. Non-bait apaizek edo herri agintariek ez zuten horretan ezer okerrik ikusi, baina elizak Ama Birginaren Lorak sartu zituan Maiatzean, hain zuzen, beti ere aldi bateko Ama Jainkoari zegozkionak Andre Mari-ari egozteko izan duen jokeraz.*

ema>eman bai dator hizkunez, hau da, hasieratik hitzak, bata besteekin loturak egiteko duten senaz eta analogiaz. Umea gose dela? Amak *eñea*. Umea egarri dela? Amak *mama*. Amak bere *une* edo *muinetik* ezpada, bere eskuz mamurturiko *anoa* prestatuko dio. Ama *mana* da, "ama, belar ona" esakeran bezala, mokau *on* guztien maminez *mahaina*, prestaten digulako.

Hagatik aitak ere "eskatu amari" esanez, amagana bidaltzen ditu sarritan bere umeak, abereekin edo basoko edo soroko zereginetan arazotu dabilenean eta jarduerak erakutsi dio herri jakintzari "ama, belar ona" dena, umeen pupu guztien mendabelar emendagarria eta, *Maidi*, berriz, *mediku* Doniturrietan, Iturrisantu edo Santutuxu uineetan, edo Uronako ermitan. Egurdi berezia dute, hagatik,

>esaten" itxurgatzen zigun agure batek, halakoak, sorginei egin arrena-edo bailiran. Ohiuzko guztiak otoizkerak izan dira eta *ino*, *otoi*, *arre*, *ela* esateko aditzak biurtu eta gordetzen dira eta hagatik "esaldiak" *otoitzak* bezala ezagunak ziran antxinako Gramatikan.

Santaren *gorta*>*grotako* ur jarioak Bidarrain, harako jokera baituzten inguruko *aegroti*⁽⁷⁾ “gaisoek”, han ekurutzen zirelako²⁸.

Sumerreko Ama Jainkoaren seme *An*^(s) “zeru” jainkoaren alabak mediku sona zuten, *Inana*, *Nin*. *Insinna* eta *Ba-u* jainkosek eurretan herriko mediku, eta ongile bezala goralduek izan ziran. Euren babespeko urietan *Zikuratu* deitu santutegiak zeuzkaten Ur, Isin edo Lagash urietan²⁹. *An* forma ere *San* etorri zan *aS* arketipora gizatuz gero, santutasuna bai-dagokio Jainkoari eta harek osabiderako zituzten ur, iturri, eta santutegiak, *santu/santzu* edo *senda/sendo* eta *sentier*⁽⁷⁾/*senteria* hizkuneak oreto zirenean, bada santzuetatik ezagutzen da norbait santu den edo osatua denetz (Mk 1,40-45) eta santutegirako erromeriak sendakuntza zekarren.

Hemen argitzen da gizakiaren muina eta nortasuna: amagandik denez gero, maitasunean *amatu* “maite izan” eta nahikaria lortu. Ama.Aita>*Maite*, aina, anai>*nahi* Jainko familia egiturako aditzak direnez gero, maitasuna adierazteko gogoratzen ditugun hitz zaharrenak eta erabat gazteenak dira gaurdaino.

Sumerreko jainko amek ere euskera egiten zuten, hizkune egiten zuteino: *Antu/antxi*³⁰, *Nintu/ninitu*³¹, *Mami/mamitu*³² Ama zeruk eta *Utu* iduzkik arketipo biok sorkuntzan parte hartzen dutela aitortuz. Beste hainbeste esan dezakegu Egiptoko jainkosez: *Nut/-*

28 Badago euskararen nekatuak nasaitoko hitz egokirik *ekhüra*, *ekhüra* “nasaitu zaitez”, alegia, *ekurako* Jonagorri medikuak agindua bailitzan.

29 E. LIMET, “*Ba-u (religión sumeria)*”, DR. or 177) Cf: Korta formatik *eskorta* formara dagoena bera dago *Ekuratu/Zikuratu* formatara, aldi bateko *Ekura* “mendi santutegia”, giza erainkintzaz eta jainkoengandik lortu *aS* santutasun zehatz seinuaz hizkuntzaraino jaso zenean.

30 “Uretatik Antuk antxi gaitu” esakerak, amak uretatik lortu gai tuela dino. *Antu*^(s), *An* jainkoaren emazte, euskaraz, emazte izenak bezala, *Andi*, *Ande* eta *Andos* dagers agiritan. Ohar *Antu/andi* hizkunea, ots, emakume *antua* handi agertzen bai-da.

31 *Nin*^(s)/*Amin*^(eius) “señora/abuela” nortasuna eta tituloa elkarrenak dirrela ematen du, *amin* ahozko euskararena, *nin* sumertar idazkietakoa: *Nintu*^(s) “ninitu/ninia edatzen duen andre”, bata ekintza, bestea tituloa.

32 Asaben ustez, amaren errainak odola mamituz umotzen zuten umea, Joben gardiz. (Job 10,10)



Etxe bakoitzak hila ehorzteko bere *jarlekua* zuan elizan, jarlekua etxeagandik banandu ezineko partea zan: han ehorzten ziran etxeako hilak eta ohikuna bereziak egiten: argizari eta jakien eskeintza, diru orniketa, eta arimen aldeko otoitz-arrenak eta abestiak. Etxandereak han orduak igaroten zituzten arimei etxeokoentzako laguntazuna eskatzen. Etxe barruko eskaratzean etxeako hilak egortzeko ohitura elizara aldatu zenean, eleizako zola familia bakoitzeko hilobitan banantzen zan, oltzarrez edo arlosaz ertzitzen zirela obiak. Etxekoandrea etxeako ordezkaria zan hiletako oikunetan.

inutu, Ma.at/maite hizkunetan. Hizkunea hitzaren analogia zabal-tzen eta kordatzen duen hastapeneko hitz jokua eta eskola bai-da.

1. 7. Ama.Ate mendea eta maisutza

Ama Jainkoa ez da sartzen bere seme-alaben arteko tikimikietan eta auzia sortzen den tokian bertan une-une-ko konponketa nahi du bere umeen artean, bakerako “ordetan egiten den zuzena baino bide hoberik ez bai-dago” euskal jakinduriaren arabera. Auzia gordindu egin daiteke gerora, hagatik “bakoitzak juzkatzen duen neurrian neurtua izango da” (Mk 4, 24-28) aipatzen da. Eta Egiptoko jakindurian “Ma.at-en aginduen arabera bizitzeak hilibiak baino hobeto gordetzen du betiko bizia”³³. Jakinduriak ere Amaren antza dager seme-alaben aurrean. (Sir 24, 23-31)

Hilak *Hades* ateetan itxaroten zuten *Ma.at*-en apaia argitu arte³⁴. Ogenduruak honela aitortzen zuan: “Ez dut gizakiengana-

33 J. P. CORTEGGIANI “Maat”, D.R., or. 1047

34 Gerkarrek zenduen *Ate* horri *Hades* esaten zioten eurak ere ez zekiten nondiko hitzaz eta berdin heriotzari *zanatos* “zenduen atea”.

ko bidegabekeriarik egin; ez dut neure aidetarikorik hil; egiaren orde ez dut esan gezurrik; ez dut ezelako saldukieriaren oroitza-menik; ez diot inori gaitzik egin; ez natzaio inori nekebide izan; ez ditut ostu jainkoei egin opariak...” Edo beste honetara: “Ez dut erail, ez dut alarguna mindu...” Aitortza denak ukapenez esanak dira eta nonbait ukapenaren majiaz, ots, ukatuaren puruz, hogena aihenatzeko asmoz. (Ikus Ma.at-en auzia 33 or.)

Ma.at/mato dator hizkunez eta, halatan, eskuman matoa duela agertzen da. (Ikus 21 or.) *Mato*>*mazo* darrai eta *mazu/maxu* halako analogiaz, behinolako *maisuek* eskolabide erabilten zutena. *Maisu* heina, *Moisek* bezala, Faraoiek erabilten zuten eta gaurdaino irakasleen titulutzat gelditu da eta *mazos*⁽⁹⁾ “eskolatu” adierazteko. Amarena zan, beraz, *mais*u titulua eta berari zegokion umeei erakusteko manua. Analogiari jarraiki, umeen eztabaidak amatigatzeko Amaren amainoa eta maina nahiko ez direnean, Ma.at-ek amameru edo meriuari emango zion ustez matoa, haren maisutzak amainatu eta maneiatu zitzaizkion³⁵. Maidiren eskola eta bakoitzaren erantzukizuna: bestela, “ezari emanak”³⁶ galdu egiten dira edo Sumerreko jainkosen artean Inanna, Anuren alabak eurretan, aitaren *me*³⁷ zeritzaien baliabide zehatzez jabetu zan, Ur herriari serbitzu zehatza egitearren eta Egipton Maat, Erra eguzkiaren alabak, izadiko ordena eta zuzenbidea gordeteko jakinduria zuan berekin eta Erra Aitari bide guztietan laguntzen zion, Errensugearen amarruetan eror ez zedin.

Ama mendean, izan ere, amak du etxeko ardura eta manua. Ez-

33 J. P CORTEGGIANI “Maat”, D.R., or. 1047

34 Gerkarrek zenduen *Ate* horri *hades* esaten zioten eurak ere ez zekiten nondiko hitzaz eta berdin heriotzari *zanatos* “zenduen *atea*”.

35 Hortik latinez *minare* “zematu” eta gaztelaniaz *menear* aditzak.

36 Ambotoko Mariren arabera, “ezari emonak, ezak eroan” dino edo “daukanari eman egingo zaio eta ez daukanari, ustez daukana ere kendu” (Lc 8,16-18)

37 Hitza *me/mu* ahozkeraz irakurten da eta bere erritoaren barneko eragina omen zuan, hala nola *mu* “otoitzak” edo *mee* “fin, zehatz” *ebaitzen*>*epaitzen* zuan armak bezala.

1° laburgoa: OIHUZKOAK ZAZPI ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
êne/en	otoi	ara/ario	el/ely	ka/kia	ba/bua	jau/zaust
enei/ená	ut/ux/tira	ra/rau	olé/iole	ako/eko	but/pues	asa/ajai
iño	txut/ixo	arrano	hil	gel/gora	bea/vae	jas/txen
oino	et/eit/atx	arraio	ol/alló	gero/coño	ave/afa	chao/txek
año	uju/ujui	rayos	ala	agur	eup/vah	xapi/zape
ainü	otian/utinam	aro/urra	elas/alto	kaixo	hip	txist
ân	zut'aida'tus	arre/aira	ale/ela	kontuz	vaya	esti/este
amen	íxala'ostera	arren	alajina	agian	balinba	ezbe

Ohar: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagerz. Ohar jainkozko deiak otoiak direla eta giza arketipodunak, ostera, elkarrri egin ohar/agurrak.

baian nahiko zan “amak esan dau” errepikatu eta aurrera egiten da eta gizonarekiko eztabaidetan, barriz, “otzan otzan andriaren borrodatia bete zan” herri jakinduriak aipatzen duen bezala. Bihurriari zera egozten zaio gainera: “amak egin eta milikatu gabea haiz”.

Inannak agirika egiten dio *An* jainko aitari, *Urnammu* erregeren aldeko hitza *Enlil*-en eskutik jateagaitik³⁸ eta *Anatu* jainkesak beste hainbeste egiten dio *Ilu* jainko aitari, bere maitale *Ba'lu* ez aldezteagatik³⁹.

Amatasunak ematen dio amari umeen gaineko manua, eskubide horren oinarria bera da, “neu naiz zure ama” esaten duenean. Halako arrakak beti ere jainkoen sorkuntzarekin bat egiten du, ama gizartean jainkoen lankide dela aitortuz, sumertar jakinduriaren arabera: “ezkontzea gizakien zera da, baina ama izatea, jainkoarena”⁴⁰. Euskarak ama mendea aldarrikatzen du indar guztiaz, ama arketipotik bai-datoz *man*, *manu*, *mana*, *eman*, *men*, *imini*, *maña*, *mahaina*, *maier*, *amainu*, *amarru*, *marra*, *manatu*, *amabi*, *amameru*, *amatigo*, etab. Ama Jainkoak zero mako urdina amaren mantua dela mendi mandotik gidatzen bai-du bere mendeko auzitegia, aurreganako magala hurreratu ahaleginez.

38 *La Lamentación de Urnammu*, 205, DB, n^o 2

39 *El Palacio de Ba'lu*, 1,3 V, 19-34

40 *Provervios de la colección sumeria I*, 160, DB, n^o 26.

ONDOREA


Ama.utu.an.ki^(s) dino Sumerren sorkuntzako lehen agiri idatziak, ots, Ama Jainkoa *amatu* zenekoa, edo Ama Jainkoak zeru-lurren sorkuntza *In.ko* amaitu zuenekoa. Idazkeratik esakerara tokian eta aldian alderik egonarren, euskal belarriaren heineko esanak dira eta antxinako asaben *Ama.Ata* erlijioarekin parekide izanik, sorkuntzan Ama eta Aita arketipoen bateratzea aitortzen du.

Gizakiak begien aurreko gertakarien arabera ikusten du Jainko Sorkuntza ere eta edozein amaren pareko ohartzen du Ama Jainko Handiaren Sorkuntza eta halatan idatz zezaken Eridun *ama.utu.-an.ki* "amak itu In.ko/zeru lur" eta iragar Liburu Santuko: "Jainkoak bere antz eta irudira sortu zuan gizakia" (Has 1,27)

Ama.utu>*amatu* forman hastapen bikoitza dager, Ama aurretik dela eta Aita hurren, eta ez *Adama* forman bezala, arketipoen ordena aldatuz, Ama bera dagoelako sorkuntzaren erdian, umea umatu eta ninia ninitu ekintzan behar den anze eta artezidun, Amaren erraiak direla laborategi eta sorkuntzari un/muina pres-taten diotenak. Amak bere irudiko dakar umea, eta hagatik aitortzen da Jainkoak ere gizakia bere antzeko egin zuena.

Ama.Ata uskomediterraneanar kulturako erlijioaren aitorenak sumeriar idazkiko arketipoekin bat datoz *Ama.utu* adizkerara konpontzen duenean eta Amaren alaba maiteak, gurean *Maidi* bezala, Sumerren *Antu* legez deskribatzen direnean edo *Nut*, *Ma.at* Egipton deitzen diren lez. Sumeriako idazkiak beste kulturaren artean milaka urte aurreratu ziran eta geroagoko egitiar lehen jainkosak ere arketipoz kultura eta sendi bereko agertzen ziran, nahiz ahozkerara edo idazkerara aldatuz aditzen emanak.

Ama.Ata Sorkuntza aitortua eta haganako lotura *Ma.at* egitiar erlijioaren parekide dator eta ahoz-ahozko izen eta idazkietan ez da Ama Jainko nortasuna baino harago inor ezagutzen. Hagatik bihotz ondoan Jainkoaz ez dugu aipatzen "indartsu, ahalguztidun, itzalgarri", etab. den, ezpaere "Jainko maite" edo txundiduraz, "Jainko Handi," *Ama.Ata Jainkoa* ohargaberaino sartuta bai-daukagu.



Utu iduzkiaren mito azalpena Asturiasko Peña Tu arrokan zizelatua: Erdian lurra, *Utu* eguzkiaren bi begiak, bere sartu-urtenen eliptika adierazten, zero mako pean. Goian zerua, behean lur-azal mailkatuak. Aldametan itxaso kirrutua, *Sube/Errensube* handiaren zirkun-zarkuekin. Bere aldamenen *Utuk* aitzia zulatze-ko erabilten duen itaia. (Ikus irudien antza, 45 or. kosmogoniak). *Utu*, zero Amaren esaneko, lurpeko iburnian bidegabe zigortu izan direnak askatzerantz lehiatzen zan egunero. *Erra*, Ma.at-en ontzian seguru doanaren apaizek *Utu/su>Sube/Errensube* satanizatzen dute kulturen eta politika ahiergoaz, Erraren arerio porrokatua bezala eta gaiztoaren nortasun antzo dager Baradisuko mitoan ere.

II. AMA ANDERE

2. 1. *Andere>Anderexo*

Ama.Ate izeneko erlijioa eta *Amatia>Amatza* edo *Maite/Maidi* egiturak nolabait ama eta aita arketipo biak konpontzen dituzte. *Ate* forma soilak ere haren eratorri diren *atadi/atari* arketipo bikoiztu edo bikoizdunak ezagutzen dituenek, jainkoetan ere orobat "Hodei" adierazteko *Adad* eta *Adar* ezagunak izan dira Sortaldetik Sartaldera¹. *Atta* arketipo bakunetik *Adar* arketipo nastura milaka urteren aldea dago, eta egitiar kutsua dager artean, egitiarrek jainko guztiak *Erra/Ra* jainkoarekin berdintzeko zuten jokeraz, *Ma.at* forma bikoitzak ere *Ma.at+Ra>Ma.tra*^(a) "ama" biurtzen dira edo *Antu/Andi+Ra>Andera>Andra*, euskarak ulertzen duenez².

1 Abereetan *adari* da arra eta *ardi* emea, eta koptoan *netere*^(a) "jainko" eta *neteret*^(a) "jainkosa" diren bezala.

2 Forma hoiien aurretikoak *materia>matre* "ama" eta *andere an->*

Argi dago *Utu+Erra* “iduzki+aire” jainkozko elementu biok bat egiten dutela Ama Jainkoaren ohoretan, hari Andere tituloa emateko edo *matre*⁽¹⁾ “ama” izena sortzean. Haraz gero, *Amandre* tituloa “Iargi Amandre”, “Eguzki Amandre”, etab. formetan erabili izan da.

Andere izenaz koptoak *netere* “jainko” irakurri eta adierazten du. *Andare/andere>anderetu* dator eta bertatik *anderetxo/anderexo* txerazko izena dager Ainamendi aldeko jainkosa baten oroitarrian³. Amatasunak eskuratzen du *andere* tituloa eta andere-tu nahi duten neskatilak *Anderexo* jainkosari sagaritzen ziran nonbait, jagoitiko z janzeraz eta jasaz *andar* berezia hartzen zutela ibilkeran. Neskatila andere mailara heltzen denean andere-tu dela esan ohi da, andre zeregina eta heina hartu duelako. (Ikus 23 or.) Amatasunak ematen dio emakumeari andre tituloa, hagatik da *Ama.andre>amandre*.

Tituloaren ohorea bereizten da *Andrena*, *Andredena*, *Andrekina* egituretan, bata bestea baino gehiago dela adierazten. *Andre* titulu mailak ezagunak izan dira gure gizartean ere, *Andrekina/Anderkina* izenak adierazten duten bezala. *Andre goiena>guena>kina* dator, tokizenetan bezala, hala *Markoena>Markina*⁴. Antzeko gehiengoa dakusgu *Anunna>Anunnakene* Sumerren “angeru/goiangeru=enangeru” adierazteko⁵.

Ande.re, Egipton *Netere* “jainko” eta *Ma.at+Ra* konpontzen dira eta hortik dator *matra*⁽²⁾, *matre*⁽¹⁾*>madre* hitz grekar-erromanikoa eta *Anderetto* forma, berriz, *Neteret* “jainkosa”.

>dre dira. *Ama-Atari>Andere* nortasunera bi mila urteren alde dagoke.

3 MICHELENA L. *Textos arcáicos vascos*, o.c., p.16. Cf: *Anderetto>Anderexo <anderetu* formatik harako, andre izatera heldu-berri direnen zaindari bezala. Ba dago *Andramendi* deritzeaion santutegi bat.

4 *Ainamendi* inguruko agiritan ikusten diren izenak: *Andera*, *Anderazu*, *Andere*, *Anderexo*, *Anderkina*, *Andre*, *Andrea*, *Andregoto*, *Andrekina*. *Andregoto* eta *Andrekina* Andre goraiatuak dira, *Andre+goiti*, *Andre goena>guena>gina* adierazten, hala tokizenetan ere *Eskoiti>Eskota* eta *Ibarguena>Bargina* bai-datoz eta *Etxakuen>Eskina*.

5 *Andrena* eta *Andredena* Ama birginari egotziak eta *Andrekina/Anderkina* jainkosaren baten tituloak. Antzeko forma dager *Dama>Damkina* eginik Babilonian, Marduken amari egotzen zaion tituluan.



Zalduondoko Inotean *Markitos* izeneko mozarroak bere bizitza laban eta gaiztakeriekatik *markiztuak*, ots, *Mariren marra marka* egin duelako, erritozko epai zorrotza eta suzko heriotz zigorra jasaten du urtero. Bera da herriak markatzen duena. Markitosek arrautz azalekin egin idunekoa darama eta idazkaria epaia irakurten ari da, eskumaldean bere lehen guraso *Mari* eta *Maju* -nortasun bikoitza batean- (*Marik* kikilik bai-darama *Maju*) salatari eta begirale dituela. Hona *Marik* bere umeen jarduerari ezarritako marrak: "ez ostu, ez gezurrik esan, ez erail, ez harrotu, eman hitza bete, zaharrak dedutan izan eta elkar lagundu". *Mari/marra* dator, *marra/marka*, elkarren kontrako formak dira. Ama errainak, eriniak bezala, "gaitz egina, erina" eskatzen dute.

2. 2. *Andre Mara*

Ama+Atta>maita datorren bezala, *Ama+Erra* arketipo bikoteak ere *Mare/Mère* dakar eta hala deitzen da "ama" Iberia bietan: *mare* Andaluzian eta *mère* Frantzian. Beraz, *Andre Maldi* den bestean, *Andre Mari* izenez ezagutzen dugu. Izen eta titulo berdintsua aurkitzen dugu *Nin.Mara* Eufrate erdiguneko *Mari* uriko zaindaria K. a. 2300 aldian⁶. Haraz gero, Egipton ere eta maiz faraoien izen konposatuetan agertzen da *Meri* izena. *Maldi* edukinez *maite* datorren bezala, *Mari>amore/amari*¹⁰ dator eta forma indartuan, berriz, *amiorra/amorru*. Itxasoak legorrari *marra* "muga" ezarten dio, eta *Marik* bere aginduen *amarrak* "loturak" edo *marrak* bere umeen jardunari "ez kalterik egin, ez gezurrik esan, ez ostu, etab." haren manatuen *marrak* ezarri zizkien. *Marra* hoiek zapaltzea *marka*

egitea zan eta *markaduna markiztu*⁷ gelditzen zan Mariren auzian. Haraz gero, *Mara/Mari* Ama Jainkoa itxas uren ordezkarienez, hizkuntza erromanikoek *mare*⁽⁹⁾ > *mar* "itxaso" esateko ere erabilten dute.

Amore/amorra da hizkunea eta *amoratu/amorrratu* eta halatan Mari jainkosarekin ezkondua *maritu* "ezkondua" deritsaio latinez eta *maritu* > *maritxu* "andre zaletuari" euskaraz. Mortuko jendea Sumeriako ugaritasunera urbildu zenean, *Mar.tu*, haien jainkoa ere Ur urira eskondu zela dino sumeriar mitoak⁸. Hiztegian *amorio*, *amoratu*, *amore eman* aditzak ba dute zeresanik ezkonduen arteko harremanetan, baina bai eta *amorrratu/amarratu* hitz jokuak ere, *marra/amarre* Mariren manamenduak bezala.

Horrezaz gainera, *Mar.tu* baratz lanetan *maratz* bezain trebe agertzen zan eta *Marti*⁽⁹⁾/*Martxo* baratza prestatzen duen ile ize-naren gei egiten da gaurdaino. Jainko seme amoratu hau erro-matarrek, euren grin en arabera, gudari amorrratu izendatu zuten geroago, harrokeriak nortasun onenaz gaitzena egiten bai-du⁹. *Martu/mardo* hizkuneak halako nortasuna irudikatzen du eta gauza bera adierazten dute *marti-gari*, *marti-oilar*, etab. bezalako ekoizpen goiztiarrak baserrian¹⁰.


"Itxasoa" *mar* berezko *marra/amarra* denez, *mortua* ere halako analogiaz beste *marra* bat gertatzen da hango biztanleentzat eta koptoek *mar* deitzen zien *amortar* jendei eta *Mari* zan, hatan ere,

7 *Mariren* auzia Ma.at-enaren antzekoa da. Biek ere agindu bere-tsuez amatigatzen zuten herria eta gaiztaginen auzian parte hartzen zuten. (Ikus Ma.at-en auzia 33 or.) Zentzabidea bilatzen zuten, Jesusen parabolak bezala, baina, sinbolotik ate, gaiztoaren ohargabeen hagin karraska edo betiko su leza geldi zitezken irudimenean asaben siniskeraren arabera.

8 BERGMANN, E., NOBER, P. "Sumeri", Enc. Cat, Ed. Vaticana, p. 1514

9 *Amore*, *ra-mu* aldatzen da Egipton. Erra eta haren zintzoen arteko maitasuna *ra-mu*, da (*El verbo "amar" (ra-mu) en los textos del Oriente Próximo Antiguo*, BRIEN, J., *Tratados y Juramentos en el Antiguo Oriente Próximo*, DB. nº 23., 101-103. Cf: Beraz, *ra.mu* "Errari eman hitza", *mu*⁽⁹⁾ "hitz, otoitz" bai-da euskaraz ere. *Ra.mu* baino *amore* hitza zaharragoa dela, Ama arketipoaren lehenetasunak frogatzen bai-du.

10 Bide beretik puztu zan *Martintxu* baserriar geinuaren mitoa, azi hobeak bilatzen eta lanabes berriak sortzen trebatua.



Ma.at-en auzian (eskumatik ezkerera): *Ma.at*-ek zendua besotik oratu eta auzira dakar bere balantzan pisatzera: Anubis eta Neftis lagun, plater banatan, zenduaren bihotza eta *Ma.at*-en buruko luma jartzen dituzte pisagarri, luma bera dela pisuaren dendua markatzen duen orratz *matematiko*a. Jarraian Toth idazkariak egiztatzen du juzoa. Aitorikuntzaren arabera, arima ez-gehi azaltzen bada, mahaira igona dagoen otsoalako abereak jateko, eta bestela, Osirisen zorirako.

euren urietariko bat, *Nin. Mara* "Andre Mara" jainkosa zela euren zaindariatakoa". "Ama" hitzik soilena eta beteena da, baina +*ara* arketipoa gehituz gero, haren edukin "kasta, arau, ohitura, sena, asmo, etab." ezarten ditugu Amagan, *Mara* izateko eta +*ari* "asmo, kausa, abagune, etab." *Mari* aipatzeko, edo +*aria* "antza, beharra, arraza, ordena" *eRra* arketipoagandiko analogiak, *Mari* nortasuna bermatzeko direla jakinik. *Mara* "leun" ere ba da eta *marra* hitzak "muga" adierazten eta mugatan bereziena deitzeko *mare*⁽¹⁾>*mar/mer* gelditu delako erromantzeetan. Halako analogiaz *amaru/a* "garratz" esateko darabil latinak eta *amaricu*>*amargo* gastelaniak. Mitoen eragina lotzen eta argitzen du hitzaren analogiak eta gainerako edapenak. *Ama*+*Ra/Erra* denez, elementu bezala, *airea* aipatzen dugu, mitoaren arabera, jainko honek giza sudurrentzat bizia den *airea* sortu omen zuelako¹². Egiptoko idazkariaren zaindari *Reñenet* jainkosaren izena arketipoz *Andrena* edo *Maat+Ra* "Ra sortzen duen Ama"=*Matre*>*Madre* berdina da, Ama *Andre*>*Amandre* tituluak eta zereginak ain berezko izan direlako seinale.

11 BERGMANN, E. "Sumeri", Enc. Cattolica, p. 1508 (Ikus Langi Mari erregeak jainkosari egin opari irudia, 15 or.).

12 *La Instrucción para el rey Merikaré*, 130, DB, n^o 10

2. 3. Marigorri, Marimontaiñe


Marik, nahiz koban atanda hartzen zuen, lurpetik barik, aidez ibiltzen omen zan eta maiz trumoi eta tximisten gidari zela. *Marigorri* edo *mantagorri* ere deitu xomorroa, bere bitartekaritzat eskuetan hartu, eta Jainkoari denbora onaren eskabidea egitera zerura bidaltzen gendun, ohiturazko errekadua emanaz: “Marigorringo, zoaz zerura ta esaiozu Jainkoari denbor’ona egiteko”. Mesedeak egiteko beste bitartekari ezezagun bateri *Gonagorri* deitzen genion: “Maritxu Teilatuko gonagorrije, eutsi agin zaharra ta ekazu barrije”¹³.

Andre urena “zeruko Andre” forma “zerutarra” *uranu*^(g), *Andre gurena* gizatu dager, erregineari egozten zaionean. Oru ere forma gizatuan *ekuru/ekura>egura>gora* erabilten da “mendi santutegia” adierazteko, *ekura/ekuri>gori/gorri* aldagaiak hartzen dituela, hala *Ekurmendi>Kormendi/Körmendi*, *Gorramendi*, *Gorbea*, *Koruko>Gorgo*, *Koro*, *Gorriti*, *Gorostiza*, *Cortona*, *Krizevak*, *Kurtzio*, aurizki edo atzizki *Aizkorri*, *Jasnagora*, *Medjugorje* tokizenak etab. dira lekuko, edo *Jaonagorri>Jonagorri* edo *Nin.Kursag*^(s) jainkosen nortasun izenak eurak, *Jonagorri* “mendiko Andre/Santa María del Monte”, etab. adierazteko¹⁴.

Ustaritzen Inoteko kotilungorriei *Marika* ere deitzen zaie. Herri jakindurian “ama, belar ona” den bestean, *Mari* ere *meriku* aitortzen da eta *Marika* kotilungorriak ixipuz astintzen dituzte gaitzak eta *Marik* merikutza egiten zien eske zetozkienei. Beraz Inoterian, *Mari>Marika* “Mari alabak” bezala, Sumerren *Nin.Insinna* jainkosa “Isin herriko mediku handia” izendatu hala *Maititurri* eta *Mariturri* tokizenak, bata *Maiti* eta bestea

13 *Teilatu* “gorena, buru” (hortik *teleuteo*^(g) “burutu”). “*Telitu* jainkosaren laguna” aitortzen da Hammurabi legelaria, (M. J. SEUX, *Las Leyes de Hammurabi*, *Prólogo*, p 30, DB nº 10). Cf: Aipatu otoitza gero *Andre Mariari* zuzendu zaio : “Andre Marie, otson ortz zaharra t’ekatzan berrie”, hika esana, Anboto Mariri ere egiten zitzaion eratarra. Ama Jainkoarena zen edozein titulu Ama Birginari bai-dagokio.

14 *Ekur>egur* formak *gori/gorri* datoz tokizenetan, hala *Ekurmendi/Mendikur*, *Egurmendi/Mendigorri*, *Gorbea/Begoria*.



Abydos Ramses II tenploko marraskian nesken dantza, besoekin arku eta atzekin kriskitin eginez eta Mojakar, Almeriako *indalo* deitu grafitoa (*inda* "goiko bide, eguzki bide"+*lu*⁽⁶⁾ "gizaki") zeru-mako pean, Ama Jainkoaren babesak gertutzen duen ziurtasuna ospatzen, arku dantza loretsuetan bezala.

Mari Amandre Jainko mediku/merikuei egotziak. *Ekurako* urak Mariren ukitua dakar goietatik eta maiz kobako arrokari dariona bera onena. *Bidarrai, Leskune, edo Lurdesko* kobetan bezala, hareago harriak edo arroka berak andre irudikizun bat izanez gero. Orduan *Mari-arri* izan daiteke eta urak eta harriak ungentu berezia izan dezake. Horrela *Uronako Ama, Idoiako Ama, Idurreko Ama, etab. edo eta Roca, Rocamador, Covadonga, Kobako Mari* edo *Fuencsila, etab.* tokietan agertzen den bezala.

Egura hoietako uren *egurtziak* Ama Jainkoaren *kura* eta *gura* berezia sortu zuan herrian, "herriak gura deutso/le quiere" eta Amak *kuratu* egiten ditu eskean datozkiozanak, hagatik bereak *guri/guritu* eta *gorde=gordos=grossi*⁽⁷⁾=*gruesos* dagoz, *grutako* urak, *ekuratu* eta uraz *egortzi>aegroti*⁽⁷⁾ "gaiso" izan direlako. Ama Jainkoaren *egurako* santutegiak sortu du osasun hiztegia ere¹⁶. *Ekura>egurako* Andre=Nin dagerke Nin.*Kursag* sumertar Bara-

15 LIMET, H., "Nin-Isinna" DR, o.c.1276"

16 *Egura>gorta>gorde* hitzen zerrenda Ama Jainkoaren *ekura* santutegitik eta *egortzi/aegroti*⁽⁷⁾ hizkune egiteraino *gorta>gruta*-ra eraman gaisoak *egortzi* hitzetik ortzera, gaur bertan Lurdesen gertatzen den lez.

disuko Amandrea ere, lurrean Jainko gizatu agertzen denetik. “Mendi santutegia” *ekur*^(s) zan Sumerren ere eta mendien pare urian jasotako temploak orobat *zi.kuratu*^(s) deituak, *zi-/eze* “etze goratu” erainkintzak bai-ziren. *Nin.Kursag* “Kursag Amandrea” ere *Marimontaine/Mairumendi*, menditarra zan, bere auzia toki *eguratu>goratuan* zuelako. Marik Sugoi senarrarekin bezala, *Nin.Kursag* Amandreak ba zuen *Ishkur*^(s)/*Xekor*^(eu) “Hodei-/Hadu^(a)” jainkoarekin zerikusirik¹⁷. (Ikus 61 or.)

2. 4. Ama Jainko eta Amalur

Behin *Nut* eta *Geb* ikusi ondoren, ama-seme/alabak ikusten ditugu, zeru makoan *Ama* eta behean, lurrean *Geb*, (Ikus 17 or.) edo ohar *Indaloa* (35 or.) arku dantzariaren antzeko babes buru gainean, Ama-zero mako adierazi nahi bailuen. Antxinakoen kulturak jainkoen mundua edo gizartea heterenomikoki ikusten zuan, gizakia gora begira eta ez goia behekoaz naste. Hori da *Amalur* kontzetu nastua, ots, lurrari ama deitzea, gizaldietako *Ama.Ata* kulturaren lurtarrek deitu dielarik zeru Ama Jainkoari.

Izan ere, bizidunak lur azalean ahortu eta hil egiten dira zerutik urik ez badator edo ito, aire/arnasa ukaten bazaie, lurra zeruaren pentzudan bizi-baida. *Amalur* gaurko modaren mailako soziologia da, *Ama.Ate*, ostera, asaben teologia¹⁸. Lurrean dena bide-da bere elikaduren sorkari, baina Lurra bera zeru zabalaren alaba da, izarretatik jalkitako hautspikor nimiñoa eta, berez, sinbolorako ere ez

17 Beste askotan bezala *ekura/ekur* izen eta azalpenetan euskara eta sumerera bat etortea harrigarria da. *Ishkur*^(s) ere *xekor* gainean trostatuala, aizkora eskuan (Ikus 65 or.) ibiltzen omen zan oinestuginen eta hagatik *aizkora* txabola aurrean ahoz gora jarrita, oinestuen aurkako emendiotzat ematen zan. Orobat, *Marimontaine* nortasun aipatua entzuna dut txikitan eskabideko koplari: “Apalazio Marimontaine/ hiru intxaur ta lau gaztaine”.

18 *Ama.Lur* Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquert autoreek (1968) aurkeztu zituen etnografiako dokumentala da. Autoreon asmoa euskaldunei euren nortasun eta kultura baloreak erakustea izan zan, politika erregimen itxu batek beste adierazbideak ertzita zeuzkalako. Haraz gero *Amalur* izena edozetarako erabilgarri da, negozio, jatetxe, ekologia eta erdi-purdiko teologia egiteko ere, baina *Pachamama=Amalur* kultura saltoa dago.




“Diti gabe ez omen zerurik” eta horixe adierazten dute Ama Jainkoen amatasunak gizaldietan zehar, jainkoek ere Ama Jainkoaren umeak baidira. Hala *Isis*^(a)/*Ast*^(a)“aulki” Egipton, ala *Haste/hezte* euskaraz? Ama Jainko honen jaiera Alejandriatik zehar grekar eta erromatar enperioan zehar zabaldu zan. Andre Maria Jesusen Amari ere *Theotokos* “Jainko ama” tituloa ezarri zitzaion Efesoko Kontsilioan. Bigarren irudia: (K.a. ^b) amatasuna Alikanten, hirugarrena: XVI-ko kristau artea.

da *Ama Lur* deitu ahal izateko. Besterik da, aldi bateko Mari Jainkoak mendiko koban bere atanda izatea, bada, Ama Jainkoaren ardura bai-da lureko umeen hurbilean ibiltea, haien saminak osatu eta erreguak entzuteko, **1.6.** sailean ikusi dugunez.

Kristaudian edo Euskal Herrian, bestalde, Ama Jainkoak ez du Ego Amerikako inkatarren arteko Pacha Mama “Ama Lur” izen edo edukinarekin zerikusirik. Historiaren aurrean ziurtasunera-ko egoki da kultura bakoitzak, geografian bezala, mitologian eta sikologian ere ikuspegi berezia zaintzea, bakoitzak berea.

2. 6. *Amatar>materia*

“Bedeinkatua zaitez *Materia* -ots eta otoitz egiten du Teilhar Chardin-ek-¹⁹ gure neurri estuak gaindituz Jainko dimentsio neurribar-



*kau uts>*kaos unetik hara doa sorkuntza edapenera amak *umotu/umetu/amaitu* hasiera eta jarraipena eta *amatu/amadu* “maitatu” datorren aurrelogika.

koak islatzen dizkiguzuna”. Gure asabek Jainko muineko aitortzen zuten euren nortasuna eta *Anu/un* “zeru/muin” hizkunean agertzen den bezala, geroago baten, hitzaren gizakundean *une>gune* datorrena ²⁰ eta *Amuna/muin* gogoratzen diguna. *Uina* “mama” ere ba da eta *mama/Mami*^(s) dator, Sumerreko idazkizunetan ere Ama Jainkoari deitzen zaion arabera, *mami/-mamin*. *Mami*^(s) amak jainkosaren ekintzatik *mamitu* aditza dator eta horrela ikusten da (Job 10,10) amatasunaren ekintza, odol materiaren mamitzetik bailetarren. Beraz, uretatik hara, materia umegintzako amatar elementu kosmikoa da. (Ikus 38-39 or.)


Aruru jainkosa ere materiaren amainutzailer dager. Anuk Aruru Ama Jainkoari ume bat eskatzen dio. Ez da *Nin. Aruru* deitzen, *Nin.Tu*, *Nin.Mah*, beste “ama andre” emaztetarikoak bezala, eta, hala ere, manaz agintzen dio, berarekin beste harremanik izan ez bailiuen eta beste jainkoren baten arikoa bailitzan: “Zu al zera Aruru, Gilgames sortu zenuena? Orain haren bihotz adoreko kidea sortu behar duzu”. Eta Aruruk haren kidea ernaritu zuan Anurentzat” ²¹. Enkidu zan Gilgamesen kide hori eta “Anuren uneko” hautematen da “haren itzalgarria bai-da bere adorea”. Eta beste barik, Anuren sorkaria ematen du eta ez soilik Aruru jainkosaren haur. Andretasuna nonbait erresuma zaharreko jainko arketipontzat bai-litzan eta ez mortutiko etorkinen jainko alabentzat.

20

Grekoz *gune* “emakume”, euskeraz “*muin*” esan nahi dute.

21

Gilgamés, I, II, 30.



Hator, *Erra* jainkoaren alaba arrautza eratako eguzkia adarretan daukala. *Erra/ar/arr.autz* dator. Arketipo bera da *ar/ur*, ez edukin bera, hala *arrautza/urruza* formak ere. Piero de la Francesca-ren *Madonna Umea eta Santuekin* (xv). Ohar bere buru gainean arrautza dindilik “zerutik eduki semea” adierazten. Egiptotik hara, teologia, nonbait aztoratuxe dager, nondik edo nolatan amatasun ohorea asmatu.

2. 5. 1. Bizitik bizira

Amaren erraieratik harakoa da bizitik bizira datorrena. Ama da umeei bere antza emateko anzea duen bakarra²². Beraz, Jainkoa, Ama ez bada, nola izan daiteke “Jainko bizia” (1Tm 4,10), gizakia bere antz eta irudira sortzen dituen Jainkoa? Ama Jainkoak *Anu/Inu* seme “zeru” izan ondoren, *Antu/Nintu* haren emaztearen bidez jarraitzen zuan sorkuntza irauna, *Ama.utu/Amatu* eta *Antu/Nintu* adizkerak arketipo bereen erregimena dutela.

Egipton Erraren alaba Hator eta gainerako jainkoen emazteak aipatzen direnarren, ohorea *Erra* jainkoaren erraiena da, herriko haurrak “bere irudiak bai-dira, bere haragitik sortuak”²³. Hagatik *Erra/errai* dator hizkunez, eta *ara* “kasta” esan nahi du, *ara+ki>aragi* dator, Erraren zatikia, alegia, eta haren errainetatik harakoa. *Errain*^(au)=*rahamin*^(h) dator ebraieraz ere, Jainkoaren erraiak aipatzean. *Erra/aire* hizkuneak ere bizi arnasa “*ruah*^(h)” adierazten digu, *Ata/ats/as* beste ereditiko hitza bezala, bataio ohikunean, halako analogiaz, aitapontekoak besoetakoari ufatzen ohi ziona.

Bizitik bizirako haurgintzan *ama.tu*, bezala, *ama.re/ra-mu*

22 Ohar: *tortu>sortu* aritik *tornu/sornu* suertatzen da eta *sornu* <*sor+un* “sor muin” konposagaitik dator.

23 *La Instrucción para el rey Merikaré*, 130, DB, nº 10.

2° eskema: HITZAREN GIZAKUNDEA ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
un/on	aiton	errun	ilun	gun/gune	bon	xegun
ume	xume	errumi ^(arab)	lume ^(ar)	kume	fume ^(ar)	seme
mun/muin	dominu ⁰	rahimin ^(b)	lamin	camuña	femina ⁰	semine ⁰
ein	duin	aren	lain	kain>gain	bein	zein

Lehenengo lau arketipoak jainkozkoak dira, beste hirurak, gizatasunarenak. (Ukus hitzaren gizatasuna: F. ZUBIAGA, *Origen del Vascuence*, 63 ss.)

dator eta *Aruru* deritzaio Gilgamesen amari. Aruru Erraren ariko ama jainkosa da Akaden. Eta Akadeko Anu jainkoak Aruru jainkosari, mirabeari bezala, Gilgames eroearen lehiakidea sor diezaiola eskatzen dio. Erraiak bizitik bizira sortzeak ematen bai-dio Ama Jainkoari, sorkuntzan halako lehentasuna, Aita Jainkoak inondik ez duena. Izan ere, eten gabe lanean ari den, Ama Jainko errai orokorrari lotuta dago edozein ama eta giza laguntza azalekoa dirudi, sumeriar jakinduriaren arabera “emaztea hartzea gizonezkoen arazoa da, baina seme-alabak izatea jainkoarena”²⁴. Zehaztasun hoiek ama mendea adierazten dute.

2. 5. 2. Arrautzatik harakoa

Erra eguzkia *arrautzaren* antzekoa da. Arrautzak egazia edo narrastia dute sorleku, (Ikus Nut 17 or, edo Hator 39 or.) hagatik *arranoa* da *Erra* jainkoaren kutun. Emakumea, haurdun dagoe-larik, eguzkiak bera edo berak eguzkia harrapatu duelakotan dago, “emakumea eguzkiz jantzia” dino Apokalipsis (12,1).

Tebasko teologoen, Egiptoko XII Dinastiaren garaian, Amon jainkoaren sorkuntza adari eta ahate ugalkorren antzeko ikusten zuten, haren inoak aipatzen duenez: “Zu, Amon, hasieratik bizitzara etorri zinena, inork ez daki nondik zatozen; ez zan beste jainkorik zu baino lehenago, eta ez zendun jainkokiderik zure izakera azal zezakenik; ez duzu izena emateko amarik, ez eta

ZEREZ EGINA DA GIZAKIA? Marduku jainkoaz zera dino: “*Gishnumunab* (...) gizakia bere *muine* *muindu* zuena...” (*Enuma elish*, VII, 89) Gilgames eroiaz beste hau esaten da: “*Anu-ren une=muineko* da, *aen>ain* handia bai-da haren indarra” (*Gilgamesh*, I, III, 4ss, ANET, 72-79, 83, 90-92-97, 514-515). *Anu/un* da hizkunez “zeru/muin” adierazten; *un=mun/muin* da izakeraz, *mundu/muindu>“muñir”* egikeraz. Latinak *mundus* “*mundu*” egiten du “eder, garbi” bere analogiak adierazteko. *Anuren unetiko* ziran *anunna*⁽⁶⁾ “*angeruak*” ere eta, *Ka* gizatasunez jantzi, *ka+une>kune>gune*⁽⁶⁾ “*emakume*” grekoan, *ka+ume>kume*⁽⁶⁾ bezala, eta *ka+iza>giza* edo *izaki>gizaki* arketipoak itzulita. Era berean, *giza+une>gizun/gizon* eta *mun+ba* baitatu *>munab*⁽⁶⁾ edo, itzulikatuz, *women*⁽⁶⁾ eta *femina*⁽⁶⁾ erromanikoek. Beraz Marduken *Gishnumunab* tituluak “gizonen eta emakumeen” *muintzailea* dino.

umea izan zezaken aitarik eta hala aitortu: “Hona hemen nire ondarea”. Zeuk eratu/*erron* zendun, o jainko, sortzea eman zizun *arrautza*, jaiotza ezezaguneko ahala, jainko ahaltzu, berez sortua...”²⁵ Gizonezko atributo hoiek aita mendekoak dira.

Arrautza erroten duten egaztietan Niloko antzarra zan Amon jainkoaren abere kutuna. Jainko sortzailetzat izan zuten Amon eta Amon-Ra eratara Erraren eineko aitortu zuten. Errak hitzaren arteziaz *Erra>erran* sortzen bazuan, Amon jainkoarena Menfisko teologoek gardiz, bizi aurrutza sortu zuelako *erron* izan zan. Eretzi biok hiruzkinduta zeuzkan euskarak *erran/erron* hizkunea erabat parekutzen eta aurkatzen dituela.

Ama mendean *Inu/ino inotu*²⁶ zan, aita mendean *Aita/aitatu* eta geroago, *Abata/Ptah*⁽⁶⁾ gizatu zenean, *aipatu/eipou*⁽⁶⁾ aitortu zan adizkerak *esan=izan* magiaz adierazten duten bezala.

25 SANEURON, *Nous partons pour l’Egypte*, ikus “Amon”, DR, o.c. p. 62 Cf: (Ikus AITA “zeru arrautza” Ama Handi eta *Shu* jainkoen artean, 17 or.) *Ar+utxa* konposagaietatik *arrutza/arrautza* dator eta *arrontza*, berriz, *Arra+ontzi* konposagaietatik. *Arraultz>arroltze* formak Hermopolisko teologoek arabera, “aratz, altsu” gogoratzen digute, *altu>altsu* bai-dator, hala nola “Jainko altsua”. Ez zekiten, hala ere, ze hegaztiren (ar edo eme) edo *Shu* “aire” beraren emaitza zen, bada, *Shu/Utz* “zeru eta lurraren arteko utz-une” horrek egin omen zuan bizi orokorraren azal edo ozkoltzat. Beraz *utz/utxa, ontzi, altsu/olze* izenak datoz, hasierako biziari leku egin zion unetik.

26 *Ino/ino* “Jainko/goraldtu”. *Ino/inotu, Aita/aitatu* eta *Abata/aipatu* adizkerak hizkunez aitortzen dute, *Erra/erran* eta *El/elekatu* formak bezala.

2. 5. 3. Magiaren arteziaz

Khnum jainkoa (Ikus 47 or.) abere burudun dager eta ugoldeen ostean Nilo egaleko buztinaz *umeki/kumeak* moldeatzen zituan, gizakiei *ankh* bizi seinua bekokian ezarriaz edo bizi arnasea ufatu-tuz. Jainkoak idolo direnean, idologilea da, kontuizu, Jainko egi-lea eta Jainkoa, berriz, giza irudigile. Horrela, majia biologiaren kontra dager, Bibliako bigarren sorkuntza eredu-a ere: "Orduan Yawe Jainkoak gizakia eratu zuan beheko autsaz eta bere sudu-rretan bizi arnasa ufatu zuan eta gizaki bizia lortu" (Has 2,7)

Egipton loto lorearen bitartekotasuna ere aipatzen zan, ots, *Atum* jainko Orokorrak hazia loto lorean ezartetik "jainko umea" sortu omen zan. Loto lorea, Nilo egaleko ur likinen gainean, jainko lorea deitzeraino den polita, izan ere. Horrela antzestu ere egi-ten dute Horus Haur jaioberria, loto lore gainean etzana.

Halako añañakeriaz ama erraien berezko anzea eta jakinduria zaharra gutxietzi zuen gizarteak, Jainko irudira muinduriko umea ezetsi eta euren eskuz eraturiko muineka hartu zuten sorkuntza berriko eredutzat, *amatu/umatu* jakintza gutxietziz, bere esku arteko *kumea amakatu* bai-zuan.

Zergatik joten da errudun emakumea *Babiloniako Sorkuntzan* eta *Bibliako Baradisuan*?²⁶ Emakumeagandik jaio oro hilkor delako, agian, edo "jaiotzak heriotza zor" ohartzen duelako zuhurtziak. Hagatik giza jakinduriak, edo *Sofia*⁽⁶⁾ androginoak, gnostikoen gardiz, bere kasa sortu nahi izan zuan sorkide emearen laguntza gabe, lehen Aita bezain gizaki garbia izan nahi zuelarik halatan. Halako irrikaz burutu zuen ondarea, ordea, ekorketa zarpaila izan omen zuan²⁷. Majiaz-edo lortu nahi, alegia, giza hilezkorra, eta gaztaro lorean ekorketa antzuan gelditu. Zerbait holako esan nahi du mar-kistuaren arrautza oskolen idunekoak ere. (Ikus 31 or.)

26 Biblian aipatzen denez, *Eba* gizonezkoagandik dator, *Adamaren* sai-heskiaz eratu zuela esaten bai-da. *Maat/Adama*, arketipoz aurkatu jarten dira, hanarteko *no/to* kulturaren kontra, *to/no* egiten dela. Hemen *Ama.utu* "amak itu" biologikaren eta *Ma.at*, Ama jainkesaren, kontrako kultura iraultza dago.

27 SEVRIN, J.M., "Gnosticismo", 3-,2, D.R., o. c. p. 681. Cf: Sofia "jakinduria" hau badaezpadako kuntzadun nortasuna, *androginoa* jotzen zan.

ONDOREA

Ama mendearen barne une bi bereizten dira, bata *Ama+Ata* aldia, Sumerreko kulturarekin batuago datorrena eta bestea *Ama+Erra* aldia, Egiptoko jainkozko arketipoekin egokitzen dena. Funtsean ama mendea egiztatzen da bietan, nahiz *Utu* aita *edua*, nahiz *Erra eredia* izan Ama arketipoaren bikotekide, *maite* edo *amore/amari*⁽¹⁾ ondarea ozenkatzen bai-dute biek.

Jainko nortasunaren funtsa maitasuna da eta *ama* arketipoak adierazten du hitzetik ortzera argien Jainkoa nor den, Jainko adierazpen berezkoena *Ama Jainkoa* dela esateko. Izan ere, maitasunak dakar sorkuntza eta maitasunak ugaritzen eta bizi mantentzen du, amak umea bezala. Maitasunak ezaguera dino eta umearen gain makurtzen den arpegia eta xurxulatzen den amaren deia fidagarria da eta amaren ahots eta irriparreari irriparez erantzuten dion umeak eta amagandik bizi eta sentitzen duen dohaia bera susmo ahal izango du gero ere fedean Ama Jainkoarekikoaz.

Nola jakin Jainkoa Maitasuna denetz, Ama dena jakin gabe? Arrazoimenak merke eztabaida dezake Jainko Maitasun dohaia, baina bizitzak aurretiaz eta doan ematen dio edonori amagandiko gozamina. Ama ezagutu duenak ba daki zerbait Jainkoaz, amagandik hasten den bizikizunak haren heineko betea izan behar baidu. Eta izan ahal dezan, amagandiko esperientzia baliagarria dugu norbere barne osasun oinarritzat ezeze, gure kauta osa dezaken Ama Jainkoaren aitorpenerako.

Amagandiko maitasunak azaltzen du ondoen hazi txikitik hasi eta heldu adineko burrukan diharduen kosmo osakuntza, bera den bizi ardatzak, nor bakoitza garen egitasmoa burutzeko indarra duelako eta geugandik urten eta besteengana urbiltzera bultzatzen bai-gaitu.

Ama erraiak berrikuntza ziklora arituak dira eta mundua ertutze arriskutik jaregiteko hori eskatzen digu ekologiaren legeak ere, gizakiak berebiziko har dezaken etika asmorik bikainena maitasuna izanik, amagandiko bizi esperientzi baikorra bera dela giza barrizkuntza eta aurrerapide eredu eta bultzagilerik onena.

III. DAMA/DONA TITULOA

3. 1. Jainko gizakundea: Sube eta Butzu.

Umetzaroan gizakiak zeruko sinboloen arduraz egiten zuan amets, haietan ikusten bai zuan Jainkoaren arpegia, dela zero mako anilean Ama Jainkoaren mantu babesgarria, dela eguzkiaren kurpilean Aita Jainkoaren arpegi izarditua. Hasiera baten ostaz bereizten zituan azaleko sinboloa eta haren ostean izkututzen zen jainko nortasuna. Gizakia zuhurtzira heldu zenean, ostea, norbere zoriaz eta bizitza igarokorraz arduratu zan eta etorkizuna antolatu beharrez, bere nortasun hilkorra irauli irrikaz ahaleginetan ekin zion.


Lurreko lehen gurasoak *Sube* eta *Butzu* izan omen ziran eta hala *Su.ap*^(s) eta *Ab.su*^(a) irakurten dituzte sumeriar ulertuek¹. Euskararen ahokera, ezin bestekoa da “Sugea eta Butsuaren” mitoa piska bat argitu ahal izateko, edo *sube/zupi* hizkune arabera, giza guraso lehen bikotearen mitoa azaltzeko: biak *Utu* “iduzki/eguzki” jainko seme-alabak eta biak *ud/su* elementu sortzailea baitan oratu zituztenak². Arketipo berberak, *Ba* “giza baita” ordezkutzen duen seinua batak atzizki eta besteak aurrizki, *sube/butzu* eratan, hartzeak bereizten ditu. Biek batean elkartu bizi omen ziran hasiera baten, goiko eta beheko uren banaketa gertatu aurretik. (Ikus 31 or. irudian) Gero, “ur goienak” eta “ur barrenak”³ bereiztean, banandu zirenean, *Sube* gertatu omen zan goiko ur gozoen eta haien iturri-ibaien ordezkari eta *Butzu*, berriz, itxasoko ur gazien ordele⁴.

1 LARA PEINANDO &, *Poema babilónico de la creación*, I,3 (Nota) Cf: Ba liteke, euskal bokalismoa lagun, irakurketa zuzenagorik egitea.


2 Gaztelaniak *La Serpiente y el Pozo* deitu beharrez, *El pozo de la serpiente* izenaz aipatzen du mitoa. Mito honek sinboloetan izkututzen du edukina, sexu arazoa ikasientzako zera bailitzan. Ohartzekoa da gaurdaino, Lekeition bezala, eñakumeari ohar egiteko *potxua!* deiera erabiltea ere.

3 SATRUSTEGUI, J.M^a, *Mitos y creencias*, o.c., p 66.

4 Mito honeri lotua dago Ainamendiko *Erensubearen* mitoa ere; zazpi buruduna omen zan eta zazpigarren burua osatzen zitzaioneko hegan aidekatzen omen zan itxas gorrian dzanga hondatzeko. Mariren senarra ere *Sugaar* “sube ar” deieraz dager eta *Zubi* mako argitsu omen zan ibaiko>



Kosmogonia Sumerreko mitografian: Goian *Inu/An* "zeru makoa" eta haren pean lur-azaleko mailak: *Ekura/Ekur* "mendia", beheara jarraian *Sube/Su.ap* *Ekura Subeak* inguratzen duela eta behean, *Butzu/Ab.su* "itxaso sakona".



Yggdrassil, Ifarreko mitografian (XV) Be-
hetik gora Bizi Zuhaitz-Lizarra ur
banandu bien erditik gora igoten.
Goiko uretan *Ekur* "mendia" *Subeak*
inguratzen duela, eta *Zubiak* "arkuak"
lotzen ditu urgoienak eta urbarrenak.

Izadiko jakinduria zaharra ilundu egin zan gizakien burmuinean eta gizakiak beretik jakintza berriak sortzen eta berak jastatuak gonbaratzen ziharduan. Orduan giza jainko zaharren eta giza jainko gazteen arteko eroien puzmina gertatu omen zan, ots, aita guraso zaharraren ordezkarietzaz jabetu irrika eta horren zantzuzak Antxinako Sortalde Hurbileko mitoetan agertzen dira, eroiak, hau da, erdi jainko eta erdi gizaki buru ustea zutenak, hasierako Ama agintea irauli zutenekoan.

3. 2. *Damkina eta hogenaren mitoa*

Enuma elish babiloniar poeman *Apsu* eta *Tiamat* deitzen dira lehen gurasook eta euren umeak bulla ateraten omen zuten eta gurasoen lo baketsua eragotzi, hagatik, *Mummu* aholkulariaren onua jarraiki, lehen gurasoek bere ondarea hondatzea erabagi

>urak ornitzen eta herriko esakeran, haren petik igarotzen zen emea ar bihurtzen omen zan eta, aldiz, arra eme (Ikus Yggdrassil 45 or.)


omen zuten⁵. *Apsu* agurea lotan zegoela, *Ea/Enki* gazte zuhurak haren koroia hartu, bere buruan ezarri eta *Apsu* erail eta haren santutegiaren jabe egin omen zan, *Damkina* emaztearekin han bizi ahal izateko⁶. *Ea/Enki* eta *Damkina* emazteak *Marduk* izeneko seme *mardoa* izan omen zuten, indarrez eta “soinkeraz itzalgarria eta hazkai berezikoa” bai-zan, aipatu *Poeman* (I, 100) ikusten denez. Sortzez, gainera “Eak sortu zuan, eta Damkinak ernatu” zehatz ohartzen denez, (I, 80-85) *Marduk* eroiaren sorreran, jaiotza hain harrigarrian aitak, ama *Damkinak* baino arte eta ardurra gehiago, izan bailuen eta jadanik Ama Jainkoa ez bailitzan *Amandre*, jainko sortzailea, *Dama* titulodun etxalagun baizik, hala *Damkina* Earen emaztea, edo *Sarpanitu*, *Marduken* emaztea.

Tiamat sorgortu gelditu omen zan, jainko gazteen maltzurkeriaz eta, ekaitza eratzen ziotela ikusirik, jainkoen kontrako munstroak sortzea erabaki omen zuan, sugeak eta erensugeak, txakur amorratuak, deabruzko leoiak eta giza pozoidunak, etab., “amaika endako” guztitara (140-145) eta *Kingu* ordezkaria izendatu omen zuan guztien buruzagi (147-150) *Apsu* senarraren heriotza gogotik apentzarren (II, 1). *Ea*, eroi gazteak, *An.Zahar* jainkoari salatu zion: “ene, aita, sortu gintuenak gorroto gaitu (...) eta borroka antolatze-ko aholkua hartu du guzti eratzaile den ama *Iburnik*” (II, 10-20). Beheko uren Amari *Hubur*^(s)/*Iburni*^(eu) “ifernu” deitzen zaio eta *An*, zeru Amaren semea, amaren aurka jarki nahi du *Enkik*⁷. *Adonai*

5 *Enuma elish*, I, 20-45. Cf: *Momo* euskaraz “lolo” edo analogiaz “amaren altso” esan nahi du. Akadiarrek eurentzat aldatu zuten Sumeriako poematik VII kapituloan sumerierazko tituloak egosten zaizkio *Marduk* eroiari, tituluok eta pertsonaien izenak euskara soinua dute.

6 *Enuma elish*, I, 65-79. Cf: *Damkina*<*Dama guena* formatik dator, ots, *Andrekina*<*Andre guena* formatik datorren bezala, eta *Da.ma* titulu berriak *Ama.Ata* lehengo titulu zaharraren ordezkio eta arketipoak trukatu dager. *Donakin* abizena ere aurkitzen da Eiren. Euskaldungoak ez dio *Dama/Dame* titulorik opa izari *Andre* Mariari, franzerak bezala, titulu horrez bereizten bai-zuan *Ambotoko* *Mariri* opa ziona.

7 Uren banatzetik hara, goian zerua eta behean ifernua kokatzen dira. *Enki*, akadieraz *Ea* deitzen dena, iraultzaileen buru zan eta, haraz gero, *ea!* iraultzaileen deidarra da eta *goazen ea!* aginteko oihuetan erabilten da.



Bustinlariren artea magia egina Egipton: *Khnum* jainko bustinlariak *basaz* "lokatzez" umekoak egin eta biziaren *hank* ezarten zien bekokian. Horra *basa* gizona.

"jaun" esan nahi du heberkeraz, *Adam/Adom* izenak zer esan nahi duen ere ez dute asmatzen exegetek. *Aita un/gun* esan nahi ote du gero, *amona* beharrez, gizadi guztiaren *una aitona* bailitzan?

3. 3. *Andre, diantre*

Ama mendeko emakumea bere aulkitik erazteko, zarraparra sortu zuten jainko gazteek. Iraultza guztietan, aurkako indarra, nortasuna edo taldea satanizatu egiten da, gaurko politikan beza-latsu. Hala gertatu zan, mitoen ustez, uinen multsoan halako aldaketa egin zenetik, goiko urei *Elish^(a)/Zeli^(eu)*⁸ deitzean eta behekoiei *Hubur^(s)/Iburni^(eu)*. Haraz gero, gure lehen gurasoen seme-alabek, ba zuten nor satanizatu, euren utsak zuritu ahal izateko. Gurasoen itzala bezten denean, gutxi balio izaten die seme-alabei "ez aztu ama nozuna" agiririkak, utsegitean amatasunak ere lama galtzen bai-du bihurrikeriaren aurrean.

Sumeriar jakituria (1.700 K.a.) dugu lekuko: "Gazte ikasiek ere doiki dakite egia den hitza: "Eguno ez duena ama batek hogen gabeko semerik sortu eta hatan ahalegintzen denak ere, ez duela lortzen: antxinetatik, ez delako utzik gabeko langilerik sortu"⁹.

8 *Elihs* akadierazko forma eta *Zeli/zelu* euskerazkoak arketipo berberak dituzte, baina itzulitara jarriak. *Zeru/zelu* bikotea ere jainkozko arketipoez, zein baino zein nausiago, ohiko teologileen tirabira erakusten du.

9 *El hombre y su dios*, 101-103, DB, n^o, 26

Jakinduria hau geroagoko Joben eritziaz bat dator “Nolatan garbia emakumeagandik jaioa?” (Job 25,4) Halako jakinduriari halako hizkunea *nato*^(eu)/*natu*^(l) “akatz/jaioa” sortzen du, jaiotzetiko tatzak salatzen direla, “jaiotzak heriotza zor” esakeraren arabera.

Halatan, lurreko amen amatasunak ahal jainkotiaria galtzen du eta Ama Jainko Tiamat bera ere susmotan jartzen zan, erbeste-ko Ma.at ahaltsuaren zuhurtzia eta izen onari Tiamat deiera egozten diotela, norbait beneragarri barik, *Buru>Diaburu* datoren bezala, *Andre>Diantre*, munstro guztien sortzaile den etzairik gaiztoena¹⁰ bailitzan.


Jainko iraultzaileek, nahiz amatzat Tiamat ezagutzen duten, amari dagokion kalitate bereziena, maitasuna, ukatu egiten diote behin eta berriro (II, 10-20) eta gudura zirikatzen: “bakarrrik gelditu zara (...) ez gaituzu maite, zure begiak lausotu egin dira” (II,115-120) “Halatan Tiamatek bere gudarien buruzagi Kingu izendatu zuan eta jainkozko Zoriaren Taulak exeki zizkion idunetik. “Kingu goraldia izan zeneko, Anu-ren eina lortu zuan”¹¹ (155-159).

Horixe izan zan Tiamaten aurka egiten zuten oinarrizko salapena: “Zuk, Anu ordezkatzan duzula, Anu-ri bakarrrik dagokion einera goraldia duzu Kingu, zeure senar egitearren. (III, 80-85) Hori entzutean, Tiamat, burua galtzear, aztoratu zan” (87-88). Iraultzaile gazteak zarraparran oratu nahi zuten, ustez ba zuten Kingu-Tiamat bikotea aulkitik irauli eta ordetan Marduku goraltzeko nahiko arrazoibide¹².

10 *Dia* aurrizkiak “saldo, zamalda” adierazten du, hala *diabru*, buru askodun errensugea bezala, *dia* “askotza”, *ele dia!*, ohiuzkoan bezala eta *-di* atzizki doanean, “multsoa” dino, hala *pinudi*, *sagardi*, etab.

11 *Inu* formari *Inko* forma gizatua dagokio euskaraz, baina, *Kingu* bezala, *Ka* giza arketipoa jainkozkoaren aurretik jartzeari gaineria egozten zaio (III,80-85, eta, hain zuzen, forma horrekin gelditu da *king*^(l) “errege” hitza Ingalaterran. *Marduku* izenak “Martu- seme” esan nahi du. *Martu* amotarraren jainko babeslea zan. Zerutar hiru arketipoak ditu izenean eta gizatasuna atzizki *-ko/-ku* hartzen duela.

12 Beste hainbeste egin zuan Teshub urriten jainkoak Kumarbi jainkoarekin, honek ere Anu tronutik irauli zuelako, beretik eratzia izan baizan. (R. LEBRUN. “Kumarbi”, D.R. or. 967)



Marduk eta Tiamat, Ama jainkoa eta eroi asartuaren arteko bu-rrukan satanizatzea hitzetik ortzeraino doa: abere erpez eta ortzez itxurgatzea alde batetik, eta arma jaurtingiez eta sare bestetik guda teknikak ederretea garailearen eskua erakusten du babiloniar mitografiak. Giza eroi gudariak, berekin zeru erdia hartu eta Ama Jainkoa eta haren indarrak porrokatzen ditu.

3.4. *Marduk mardotzen*

Tiamat begitan hartuta zeukatenez, hari aurre egingo zion eroia aukeratu eta adoretu behar zuten. Marduk jainko-eroi piura antolatu zuten inguruko apaizen etika eta gudarien gizabidea edo barne ganora hurragotik ezagutzearren emanak dira testook.

“[Marduki] Printze aulkia ezarri zioten eta bere gurasoen aurrean batzarre buru jesarri zan: “Uju, haite-ea jainko handietan ohoratuena, hire zoriak ez bai-dik aurkakorik eta hire hitza Anu-rena bezalakoa duk” (IV, 1-5) “Gaurtik hire hitza aldaezina izango duk, goratzea edo beheratzea heure esku zegok (...) hire aginteak ez dik utzik izango”¹³.

“Jainkoetan inork ez dizkik hire mugak gaindituko! (...) Haien santutegi uneak begoz beti heure tokian. Ara, Marduk, heu haiz benetan gure apentzailea. Tok mendeetako agintea! (7-14) (15) Batzarrean exeri haitenean, hire hitza erabagia izango duk. Hire armak ez ditek atzera egingo, bai arerioak birrinduko oster! Zainzak-ea, Jauna, heugan ustea dutenen bizia, gaitza sortu duen jainkoaren bizia ixuri, ordea.” (19) Batzarraren erdian soineko bat ipini zuten eta hitz egin zioten Marduk lehendakariari: “Jauna hire Zoria behinena duk jainkoen artean! Erabaki-ea, eratzi edo

13 Aginteak ere majia berezia du: “esan eta egin” arabera beteten bai-da nagusiak eman agindua: nagusiak esan eta menpekoak bete, alegia.


eraiki, esan=izan gerta dadin: ahoa edeki eta soinekoa desagertuko duk; berriro hitz egin eta soinekoa lehengoratuko!” (...) (27) Bere guraso jainkoek haren hitzaren eragina ikusi zutenean, poztu egin ziran eta omen egin zioten: “Marduk errege da!” Zotza, tronua eta palua eskuratu zizkieten eta etsaiek gaindi ezineko armez ornitu. “Hoa-ea, eta ken ezaiok bizia Tiamati; haizeek eraman dezatela bere odola toki izkutueta!” Horrela zihurtatu zuten *Bel-en*¹⁴ zoria jainko gurasoek, garaipen eta zorion bidetik jantzi zuten. (35) Armatzat uztai bat eratu zuan eta geziaz ornitu eta zurdaz lotu. Eskumaz oratu matoa jaso zuan; uztai eta gezi ontzia bere ondoran exeki zuan eta bekokian oinestua egokitu, (Ikus 49 or.) (40) lama distiratsuz argitu zuan soina eta Tiamat arrapatzeko sarea eratu; lau haizeak gelarazi zituan haren ihesa eragozteko, (...) (45) haize zakarrak bildu zituan, tulubioa, ekaitza eta lau haizeak, seikotea eta haizerik gaitzena den zirimola (...) (49) Orduan jaunak tulubioa sortu eta ekaitz-gurdi jasan-ezin bildurgarrira jaso zuan bere arma bikaina, zaldi laukote apailatuak berari lotu eta galgarri, amorekaitz, ondatsaile azkar, hagin zorrotzekin eta pozoidun, harrapari ekina eta birrintzaile jaiok (...)”

3. 5. *Marduk Tiamaten aurka*

Enuma elish idazkiari *Babiloniar Sorkuntzako Poema* deritzaio¹⁵. Halako ganoraz deskribatzen du aurkalari bien arteko burruka, beti ere eroi garaileari garra ematen eta galtzaileari kea ufutzen diela, euren guda ekintzak idatzi dituzten autoreen eratarra (Ikus 49 or.): “Hanartean, jainkoek gudurako gertu, armak zorrotzen zituzten eta Tiamat eta Marduk, jainkoetan zuhurrena, aurreratu eta burrukara urten eta jarki ziran (95) Jaunak [Mardukek] Tiamat oratzeko sarea edatu zuan eta ostetik zetorren haize zakarrak haren arpegi kontra edatu zuan. Tiamatek ezpainik ezin erztitzeraino ahoa zahalik eta idekien zuela, bertatik sartu zitzaion

14 *Ba'al/Bel, Babil-eko jainkoa*, “jaun” ere esan nahi du akadieraz eta *Ilu* jainkoaren biloi dager Ugariten. Hemen Marduki opa tituloa da.

15 Poema hau Ninive urian aurkitu zan Asurbanipal (669 - 627 a. K.) liburutegian. Bere idazkera 1200 K. a.-koa da, ordea.



Esharra (ustezko egitura) han jainkoak *exeri* bai-ziran. “*Esagila* erainkintza “*Apsu*” berdintzeraino jaso zuten; “han Marduk Enlil eta Ea jainkoentzat egoitza antolatu zuten (...) zerutik batzarrerera jaizten zireneko (...) (*Enuma elish*, V,127) “*Esharra* palazioa zeru adina eraiki zan” (...) Guraso jainkoak exeriaziti zituan bazkaltzera (...) jainkoek euren aulkiak hartu zituzten” (*Ibi*, IV, 145; VI, 70-74). Baserrian Jaietako eskalas “jataldia” *etxe* bakoitzeko goiko salan egiten zan. Orobat *exeri*^(eu)/*assier*^(o), *sedatu*^(eu) “erabaki”, *sedere*^(o) “jesarri”, *sesu*^(eu)/*sessu*^(o) “atseden/-exeri”, *sexio*^(eu)/*sessio*^(o) “elkarriketa” eta *Esharra* bera *etxe* hitzari lotzen dira

haize zakarra. Izugarrizko haizeboladak haren sabela bete zuenean, (100) soinak zart eginik gelditu zan eta ahoa guztiz zabalik. Orduan [jaunak] gezia urtiki eta haren sabela alderik alde zeharkatu zuan, erraiak ebaki zizkion eta bihotza zulatu. Ezintasunera behartu ondoren, akabatu egin zuan. Haren gorpua zerraldo jaurti zuan, oina haren gainean ezarteko. Tiamat gudalburua hil eta gero, haren jarraileak sakabanatu eta txikituta gelditu ziran. Bere jarraile ziren jainko urgazleak, sarrakioarren dardaraz, itzuli egin ziran, bizia salbu ahal izateko. (105) Baina gertutik hesituak izan zirelarik, ezin izan zuten ihes egin. Haien armak puzkatu eta morroiloan sartu zituan. (...) Kingu, haien buruzagi hautatua, (120) atxilotu egin zuan eta Uggatzat [herio jainkotzat] eman zuan. Ez zegozkion Zoriaren Taulak kendu eta [Mardukek] bere sigiluz silutu eta bere idunetik exegi zituan (...) (128) Tiamat harrapatuagana itzulirik, Jaunak Tiamaten bernak zapaldu zituan eta errukigabeko bere mattoaz burezurra matutu zion. Bere zain odiak eten zituanean, ifar haizeak toki izkutueta era man zuan. Hori ikustean bere gurasoak [jainkoak] atseginez poztu ziran eta emariak opa zizkioten. (135) Orduan jaunak zerraldoa ikusirik, atzedena hartu zuan. Gero mustroaren hara-

gia erdibitu eta idea bitxiak asmatu zituan, arraina bailitzan bitan banatu zuan: Erdia jaso eta zeru makotzat ezarri zuan. Zerraila oratu eta atezaina jarri zuan, (140) urik ixurtzea eragotz zezala aginduz; jarraian zeruak ikuskatu eta lezearen “apsu”, Ea/Nudinmud-en egoitzaren aurrez kokatu zan. “Apsu” lezeko luze-zabalerak neurtu zituanean, bere antzera Esharra palazioa eraiki zuan, (145) Esharrako palazioa (Ikus 51 or.), zerua bezala eraikia eta hango geletan bizitokia egokitu zien Anu, Enlil eta Ea jainkoei”¹⁶.

Gilgamesen harrokeria eta ausardia handia izan zan Ishtar jainkosa ezetsi eta haren Zeruko Zezena erasotzean¹⁷, baina Mardukenak ez du zentzunik, Ama Jainkoaren aholku barik, gizakia bersortu nahi izatean.

3. 6. Giza sorkuntza berria

Marduku bezelako jainkotxoak ez zuan jada Ama Jainko beharrik gizaki berria sortzeko, Marduken dama Saparnitu deituak ere, ez du parterik hartzen gizaki berriaren sorkuntzan, ez eta haren erregetzako gobernuan. Ama erraien aintza ezabaturik gelditzen da, ahulegiak, nonbat, gizaki berria sortzeko. Agur, beraz, ama eskubideak, agur haren jakinduria sorgua eta zuzenbide eredia. Zer egin dezake gizakiak eskubide hortatik ihesteko? Giza basak asmo berriak ditu: *Medeako* Jason eroi ezkonasleak (V K. a.) argi azaltzen du Euripidesen ahotik: “Otian gizakiek beste era batera umeak izatea, emakumea behin aihenatzeko; horrela ez legoke gizakientzat akatzik”¹⁸.


ˆMarduk eroi/eroak ere gizaki berria sortzeko puzmina izan zuan: “Nere odolaz oretu eta hezurak eratu behar ditut”¹⁹. “Gizakia biztu behar dut (...) jainkoen kultoaz arduratu dadin, eta

16 Antza denez, *Esharran* ez zegoen jainkosentzako tokirik, gizonezkoen batzarretan emakumeek debekua izan ohi dute. Sumerren, oster, Inannak jainkoen batzarrean parte hartzen zuan eta Ur urian zeukan beretzat Eanna izeneko zigurata.

17 *Gilgames*, VI,I, 25-155

18 EURIPIDES, *Medea*, 572-575) Cf: RICOEUR filosofo argiaren gardiz Euripidesek tragedia honetan, ama eskubidea aipatzen zuelako, *Medea* antzerkia deabrutara emana izan omen zan.

19 Haurdun dagoen emakumeaz esan ohi da hezur berritan dagoela.



Lantzeko Inotean *Miel Otxin* epaitzen dute. Kalez kale erabili ondoren, plazan suari ematen diote. Horra, txantxoak kalea garbitzeko ixipu antzo erabilitako erratzak *Miel Otxinen* oinetara jaurtitzen dituzte. *Otxin, uts*, forma gehien-goan da *potzu>potxin* den bezala, forma gizaturaz gero. *Otxin/Osin Océano* adierazteko ere erabili da. *Miel/milu/mielga* eskata gabeko arrain mota da. Jainko gazteek, *Sube/Su.ap* lehen guraso aita, *Jaia* osharen seksu eskubideez jabetzearrren, hil ondoren, haren emazte *Butzu/Ab-su, Tiamat* edo *Mari Jaia* salatu edo, errudun hautemanez, garbitu egiten dute benetako errudunen askapenerako.

jainkoek atsegin izan dezaten. (VI, 5-8) Amarrukeriaz aldatuko ditut nik jainkoen bideak. Berdinkiro omenduak izango direnarren, bitan bananduko ditut. Eak erantzuki, jainkoei astuna arintzeko asmoa iragarri zion: “Anaietariko bat emana izan daitela; bera bakarrik galduko da, gizakia berrerratu izan ahal dadin”(VI,9-14). Erruduna bilatu zuten: “Nor izan da matxinada asmatu eta Tiamat burrukarako aiherkor egin zuena? Iraultza egin zuena emana izan daitela. Bere erruaren erantzule egin dut, zuek [jainkook] bakean bizi ahal zaitezten”(VI, 23-26) Kingu eman zuten erruduntzako. “Atxilotu, Ea/Enkiren aurrera erakarri eta bere odola ixuri zuten. “Bere odolaz oreto zuten gizateria. Eak oparia onartuazi eta aske utzi zituan jainkoak. Gero Ea jakintsuak, sortu zuan gizateria; jainkoen serbitzara behartu zituan. Ulertezina zen ekintza, Marduk eta Ea/Nudimmud-en artean hain maltzurki asmatua” (VI, 31-38).

Maltzurki jokatu eta aitortu egiten dute: martzurkeria errito sakratuaren einera jasoez gero, jainko gazteen okerra zuzendutzat eman zuten, oker bata beste oker batekin, esan ohi den lez. Zehaztasun bakarra falta zan: jainkoek ere maltzurkeria onartu eta Marduk eroiari men egitea: “Jainko handiak batzartu zirene-

an, Marduken zoria goraldtu zuten (...) Jainkoen gainetik zihurtatzen zioten erregetza, zeruko eta lurpeko jainkoen agintea amorigiten ziotela” (VI, 95-100) Horra, bada, jainkoek Marduken egiten! Iraultza handiagorik! Eta gizakiek, berriz, Marduken esanera, jainkoei serbitzen, handikiek jainkoez serbitzatzen direla.

Kinguren “odolak” *damu*⁽⁶⁾ ordezkatzan du, odol hori hako jainko gazteen hogen ordeko dator, beraz, Kingu gizakiak *damu* izan zuan jainko gazteen hogena. Odol berekoa, nonbait, *Adamu/Adam* Baradisukoaren izena, bere sahietzaren *damuz* Eba sortu bai zan²⁰. Eba Adami eskeinitako Dama bezalakoa da, eta bizidun guztien ama izatera deitua denarren, gizonezkoen aurreritsietan ostaz du haren sorrerak Andre ohorezko izenik edo ekimenik.


3. 7. *Majiadun sorkuntza: basa-gizona*

Behin Ama Jainkoaren agintea desagertuez gero, errazagoa zan indartsuena erregetzara jasotzea. Magiak ere joku ona egiten du gezurra estaltzen eta babiloniar tenploko apaizek ere saiatu ziran jainkoen asmoak iragarteko, (*Enuma elish*, IV. 1-19) ikusi dugunez. Menfisko teologek magia arazoetan ikasiagoak ziran hala ere, eta euren herri zatitua *Ikupta* <“oiku batu/etxe batu” egiteko jainko guztiekin bat egitea asmatu zuten. *Abata*>*Bata* hori (egiptieraz *Ptah*) “Magiaren jaun” tituluduna zan²¹ gainera eta, haraz gero, zenbakizian *Inu/uná/ona* amatar sailketaren orde, zenbakietan lehen postua hartzen du, *bat/bata*, euskara lekuko. (Ikus 53 or.)

Sorkuntzaren menfitar teologian (ww edo ANET 4-4) zera irakurten dugu: “(53) Hantxe eratu zan Ptah-ren bihotza, eta hantxe, be-

20 *Damu/Dumuzi*⁽⁶⁾ zan, hain zuzen, mito zaharraren arabera, urtero hil eta berbizen zen Inana maite jainkosaren senarra. Euskarak *damu* “barne samin” hitza dauka eta erromanioek *damnu*>*daño* “kalte” hitza hartzen dute.

21 *Ptah* forma *Aba.Ata*>*Abata*>*Bata* irakurten da euskaraz. Jainko honek jainko zörtzikoteen gaitasunez jabetuz, batasuna lortu zuan, Egiptoko erreinu zatituei ereduá ematearren. Haraz gero *Oikupta/Egipto* “oiku batu/etxe batu” izan zan. Euskarazko zenbakietan ere aldaketa bat sortu zan arestian teologiaren eraginaz, *hona* izatetik *bata*>*bat* esatera etorri bai-zan. Hareago “Deus scit/Dios lo sabe” jakinduria euskara “Batek ba daki/Batek bazekik” edo “Jainkoa Bat eta bera nahikoa” esakeretan, *Bata* horrek Jainkoa aipatzen du.



Eskuman: *Ptah, Abata* > *Bata* euskaraz, *Pasha* turkieraz edo *Patxa*, otoman agintarien titulua ere ba-zan, talde buru edo taldeari *batza* "bata-suna" ematen diona, monastegietan bezala, edo gudarostean eta, meriuak, alkateak edo gotzainak, nahiz batzarburuak, bere arduraren adierazgarri eramaten duen makila/matto edo mailuki > *mlq*⁽⁴⁾ "errega" berezia, edo "basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi" hako herri suhurtziaren arabera. Sorkuntzaren aldetik *basa* "lokatz" da, lokatzez edo bustinaz egin lana, beraz giza basa, "amak bularretan gozatu gabea" da halakoa edo abere motatik analogizaturiko "amak milizkatu gabea".

Ezkerrean: otoman *patxa* baten aginte makila, errumaniarrek 1877 urtean turkoei kendua. Makila gainean, batek ilgora ta izarra ezarriko ditu ezaugarritzat eta besteak, kurutzeta, etabar.

re mihinean, izaera hartu Atum-en gizakundeak, bihotz eta mihin honen bitartez [jainko guztiei bizia] eman bai-zien Ptah Handiak (54) beragan Horus-ek eta Thot-ek Ptah-ren antza hartu zuten. (*54a) Horrela gertatu zan bihotzak eta mihinak gorputzaren zati guztietan nausigoa lortzea, dotrina honen arabera, bera bai-dago gorputz bakoitzean, jainkoen aho bakoitzean, gizakien, abereen, narrastien eta bizidun guztien ahotan, gogoko duena asmatzen eta gogoko duen guztia erabakitzen".

"(55) Bere Eneada bere aurrean dago hagin eta ezpainekin. Eurak dira Atum-en semen eta esku, Atum-en Eneada bere semen eta eskuen bitartez izatera etorri bai zan. [Ptahren] eneada, alegia, gauza guztien izena ahozkatu zuan ahoko haginak eta ezpainak dira, handik sortu ziran²² Shu eta Tefnut, (56) eta Eneada sorrazi zuena.

"(*56) Begien ikuskizunak, belarrien entzumenak, sudurreko arnaseak berri ematen diote bihotzari eta berak egiten du ezaupidea,

22 Argi ikusten da hemen gizakia den mikrokosmoak jainkotzat hartzen duela bere burua, izadiko elementuak beretik sortuak bailiran hartzen bai-ditu eta guztia adierazteko bidea.

bihotzak asmatzen duen guztia mihinak esaten bai-du²³. “Horrela jaio ziren jainko guztiak eta euren Eneada osatu zan. Jainkoaren berba bakoitzak izatea artu zuan bihotz asmakor eta mihin erabakikorraren bitartez.

“(57) Horrek sortu zuan *ka* bakoitza eta *hemsut* bakoitza eratu hitz honen bidez janari eta ornigarriak lortzen dituztenak²⁴. Horrela, desiragarria egiten duenari zuzena egiten dio eta bidezko ez dena egiten duenari, zigorrira ematen. Horrela lortzen du bizia *ba* duenak eta heriotza bekatu duenak”²⁵.

“Horrela sortu ziran lan guztiak eta arte lanak oro, eskuen ari-keta eta bernen ibilketa, (58) soin atal bakoitzaren mugikera, bihotzak akordatzen duen eratara²⁶ mihin bidez iragarria eta guztia egiten duena. Hagatik Ptah aiphagarria da: “Bera da oro sortu zuena eta jainkoei izatea eman diena”. Bera da egiaz Tatenen, jainkoak erdiazi zituena²⁷, izate oro beragandik sortu baidan: janari, ornigarri, jainkoentzako eskeingarriak eta gauza on eta eder guztiak. Horrela ezagutu eta ulertu zan bere ahalmena beste edozein jainkorena baino handiagoa zena. Horrela, gauza guztiak eta jainkozko berbak sortu ondoren, Ptah patxaratsu da”.

Ama Jainko sortzailea aipatu ere ez du egiten Menfisko Teologiak, eta ostaz *hemsut*, ama inudea. *Enuma elish* (I,1) ortzia sortzeko, *zelu* izena=izana artezia eskatzen duenean edo Marduk


23 “Bihotzaren giltza, ahoa” dino euskal jakinduriak ere edo “bihotzaren gurari, mihinean agiri”.

24 *Hemsut* nortasuna umea besoetan eta balaumiko agertzen da irudietan. Bera da *ka* “gorputza” erdiarazten duen jainkosa, Nut ereduakoa, *emtu>emsu* dator eta *emetu* “etxekotu, jabetu”, emakumeak egiten duena, dino.

25 Gizatasunezko *ka* eta *ba* elementuak, bata *kaia>gaia* eta bestea *ba>baita* “kontzientzia” ordezkatzen dutenak; *ka* hiltean, *ba* jaregin gelditzen da.

26 Hagatik “bihotz” *kor/corde* da latinez eta bihotza zan asmo-sentieritziaren erdigunea, menfitar sikologiaren arabera. Bihotza *ekura/ekur>kor* barne “santutegia” zan egitiar sikologian, *kardia* grekoz eta *korde* “zentsun” eta gardi “eritzi” euskaraz, burua aburuen gune azaldu aurretik.

27 Formari begira, *Ta-tenen* / “denen Aita” aldi bateko hizkuntza beraren esakera sagaratua da, fonetikaz eta joskeraz euskaratik pitin bat aldatua. Edukinari dagokionez, Ama Jainkoa aipatu ere ez du egiten, nahiz eta sorkaria *erdi>birt*⁽⁶⁾ dezaken bakarria izan.



La Seo-ko irudietan (XII) Ezkerrean: Jainkoak Adam bustinez eratzen du elzegileen arteziaz eta jarraian bizi arnasa ufatzen dio, Khum jainkoaren eratarra. Eskuman: Jainkoak Adami kendutako sahiezkitik eratzen du Eba. "Sahietzaren makurra bera du emakumeak sortzetik" (*Martillo de las brujas*)

jainkoratzeko haren berbaren trebezia frogagarri bilatzen denean (IV, 19-27) eta Biblian "Jainkoak esan zuan eta argia izan zan" (Has, 1,3) irakurten denean, hitzaren majia ber-bera jarraitzen du kondairak eta Ebangelaria bera, "Hazieran Berbea zan" aipatzen denean, (Jon, 1,1) kosmologia bihurrituaren sordun agertzen da, antxinako amatar sorkuntzaren aurkakoa delako.

3. 8. Adam-en gerena

Mitologiak, izadiko legeak jarraitzen dituenean, ekologiaren pareko gertatzen da, baina Adamen sahietzetiko emakumeak, biologikarik ezean, zientziarekin topo egiten du. Bibliko kondaira, orduko literaturen arabera, emakumearen kontrako ipuinkiz josia dager eta, halatan, sorkuntzaz iragarria bidezko hartzeak hankaz gora jartzen ditu gainerako zehazpenak. "Bere antzeko sortu zuan, arra eta emea sortu zituan" (Has, 1,27). Edo "sortu zuan" testoa jarraituz gero, Adam sortzez gizon-andrazko norbait omen zelakoa susmatu izan da eta geroago arra eta emea bananduak izan zirelako. Banantze horretan galdu omen zuten hasierako aintza eta jakinduria gnostikoen arauz. Rashi judu exegetak

XI giz., eritzi berekoa da²⁸, baina lehen gizakia sexu bikoitz zelako hori mito zaharrago baten beste azalpen bat baino ez da, *Sube* eta *Butsu* bikotearena, alegia. (Ikus or. 31)


Banantze hori Adamen sahietzetik egin zelako ipuinki-ipingia ere (Ikus 57 or) hasierako erratuaren ondorea da. Geroko kristau teologiak ere harri berean tupust egiten du. Paulok gizonezkoaren nausiagoa aintzat hartzen duenean: “ez dut jasango emakumeak gizonezkoa gairiditzerik, isilik dagoela. Adam izan zelako lehen eratua eta Eba hurrengo. Eta atzipetua ez zan izan Adam, emakumea baino, liluraturik marka egin bai-zuan” (1 Tim 2, 12 s). Hemen ez baina, Paulok zuzenbidea egiten dio emakumeari, beste honetan: “Garaia heldu zenean, Jainkoak bere Semea bidali zuan, emakumeagandik jaioa, legepean egina”(Gal 4,4). Zera ere gehitu zezaken, Kristo erdua Adam desereduari aurkatzen dionean: “Hako lurretik eratua izan zenak heriotza dakarkigu, emakumeagandik sortu honek, ordea, bizia”. Kulturazko aurreritziak eragotzi bide zion esatea.

Geroko teologiak ere zuritu beharra izaten du aita mendeko sor-kuntza mitoan behin lerratu zen akatza: berezko amatar materia ukatu eta lokatzetan eskuak zikintzea. (Ikus 57 or.) Tomas Akinotarrak zera dino: Hasieran hala komeni omen zan, gainerako abereen legera barik, emakumea gizonagandik sortzea “sakramentuaren izenean, honela Elizaren hastapena Kristo dela adierazten bai zuan”²⁹. “Gizona izatez emazteari dagokio, Kristo Elizari bezala. Kristo gurutzean hilagandik sakramentuak sortu ziran “ots, Eliza eratzeko odola eta ura” (ibi. I, 92, 3). “Izatez gizonak duen lehentasuna, gizakiaren lehen zirikalidien dager. Han eskuartzen dutenak (deabruak, gizonak eta emakumeak) euren izakeraren arabera jokatzeko dute. Sortzez aingerua gizakia baino gehiago da eta gizona, bere mailan, emakumea baino bikainagoa da. Halatan pekatua angeruagandik (zio behinena) gizonagana emakumearen bitartez iristen da (bitarteko zioa) (Ibi.II-II, 165, 2, 1m)

Bibliako kondairaren arabera, emakumea gizonaren saihezki-

28 Hala judu gnostikoek *Apocalipsis de Adán* izeneko liburuan Egipton Nag Hammadi-ko koban (1946) aurkituan.

29 TOMAS AKINOTARRA, *S.Th.*, I, 92



Jainko ama ekologikoak bizia sortzen: a) *Haldi* landaretzako urartiar jainkosa (VII K.a.) zangoa idiaren buru gainean duela eta feminismoak ekologian duen partea aldarrika eta adierazteko irudi aparta, b) *Astarte*, tartesiar irudia, Inanna eta Asti (Isis) jainkosen kidea egitiar ganoran taxutua (Carambolo), c) *Demeter* amatasuna, babesa adierazten Greziako artean.

tik eratua izateak emakumea haren menpeko egiten omen du. Sexuen batasun gizartean emakumeak ezin du gainditu gizona “hagatik ez zen burukiaz eratua izan; nahiz eta hori dela-eta gizonak ezin du emakumea mirabe egiteraino ezetsi, oinetatiko gaiez ere etzalako eratua izana”(Ibi. I, 92, 3.)

Izadiko legetik ate dabilena sinbolozko zentzuetan izkutatzen da edo umekerietan erortzen, hasierako erratua handiagotuz bai-doa haren hiruzkinetan. Aurreritsi okerrak ondore zuzenik ez.

3. 9. *Ama mendetik Aita mendera*

Ama mendea berezko eskubidetik dator eta aita mendea herri gidariek eztabaidatu, armaz tematu eta eratu duten legezko arauditik. Ama mendea ama erraien odoletikoa da, amatar materia du erro eta hasiera baten koban du santuegia eta gero etxean.

Ama>*amatu* etxeko biologika ziurra da eta *aita*>*aitatu* edo *abata/ptah*>*aipatu/eipou*⁽⁹⁾ 30 berriz, asmakeriaren logika da, plazan eztabaidatu legeei *esana esan* edo *idatzia idatzi* majiaz bermatu zutenekoa. Aita mendean giza legeak herriko batzarra du sorleku eta zuhaitzpea santutegi. Haraz gero ez da *Ama.Ata*>*Maidi*>*maite* mendea, *Ata-Ama*>*tema*>*dema* “apostu, eztabaida” baino. Ama eskubidea berez emana da, eta Ama Jainkoarena denez gero, ez da tema eztabaidagarria, zuhaizpean sorturiko lege berria den bezala. Harek *Ma.at* eta *Mari* ditu gordele eta honek *Temis*⁽⁹⁾ jainkosa. Ohartzekoa da, hala ere, *Temis* jainkosaren ardura senar-emazte legeztatuen arteko harremonak armonian eramatea zela, arazo tematsua, edozelan ere eta gizabidez ebastekoa³¹. Ohitura zaharrrak erabaki berriei ere bide egiten die, kontzientziako zigorrak zigor fisikoei bide egiten, *erinie*-nak eraileenei bezala. Mari eta Majuren zigorrak, izadiak berak halabeharrez gertatuak ohi ziran eta errito bidez *erintzen* ziran urteroko ospakizunetan (Ikus 31 or.), gizakiak asmatu legeak, osterea, “bizia bizi truk” eta antzeko zigorrak ematen zituan eta epailariak edo jainko ibaia zituan ordele³², eta ama legeak bakoitzaren kontzientzia zuan epailari eta erinle, jakinduriaren arabera: “mundu honetako ifernua, kontzientzia gaiztoa”. Ospetsuak izan ziran Greziako teologian amatar eskubideen ordezkarriz *erinie* ustea, euren jasarpenez izadia kaosaren kontra aldeztan bai-zuten, Olinpoko jainko gazteen gainetik³³. Gizakien aurtzaroen dena zan Ama Jainkoa. Ama

30 Halakoa zan *Ptah*-ren sorkuntza magikoa, bere asmoak mihinaz aipatuala izatea lortzen bai-zuten, hagatik dino euskal jakinduriak ere “izena duen guztik ba du izana” edo laburrago, “esan eta izan”.

31 *Har-emon* onak *armonia* dakar, baina *hartu* aurretik dator *emon* amaren manera eta amaiñua, *Temis*-en jusoak, ostera, armonia barik, *temere*⁽⁹⁾ “bildur” *demonia* dakarke.

32 Ura eta sua elementuak jainko zigortzat hartzen ziran norbait surtara edo uretara jaurtitzen zenean. Horrela Babilonian eta gure Inoteetako erritozko zigorretan. Ura eta sua giza eskuaren *ordele* ziran epaian eta *ordalia* epaikera arrandizko armakin egiten zan Europa guztian. Euskal jakinduriak ere ba dino: “Ordetan egiten den zuzenbidea baino hoberik ez dago”.

33 *Eriniek* subeak zituzten iletzat buruan. Hor *Mari* eta *Sugaar* piurak ordezkutzen dira. Indarkeriaz odola ixurtzen deneko, emaztekien errai->



Inannak bere zangoa ezarten du Iran-eko leoiaren bizkar gainean, zezena bailitzan, sudurziloetatik katibu gidatzen duela, eta hori “gerra barik, maitasuna” zuela erabagia. Sumerreko mitografia honek Inannaren eta Enmerkar, eta Arattako Jaunaren arteko gora-beherak aipatzen ditu. Inannaren ego loratuak haren altsutasuna eta izarrak (ishtar/izara⁶⁹) haren zeru jatorria azpimarratzen dute.

mendean dena behar zuan izan konponbidea eta amainoa. Emerkar jaunak, adibidez, Aratta-ko Jaunari, arma bidez barik, honek Inanna jainkosari zion begiruneaz baliaturik auzia irabazi zion³⁴.

Aita agintean, oster, *tema* jarraitzen da, giza legeen arabera eta tematzeak burruka dakar, zein gehiago horretan indartsuenak aterako du burua, jainkoetan Zeusen geziak ohi bezala. Haraz gero, *Ama.Ata>Ma.at>maita* xaloa *Ata.Ama>Tema>Dema* eta *damu* biurtuko da, *damutu>damnatu*^(f) “kaltetu” datorrela.

Mary Daly ekofeministak dinonez, “emakumea izadiari/naturari emana da, gorputzari dagokionez, eta halatan baztergoa du gizonaren aldetik, honek, teknologiaz baliaturik, bere askatasuna eta garapena bilatzen duelako³⁵.

>nak *erinen* saminaz kalean salatzen dute erailea. Gizartearen bakerako irainen aurrekontua garbitu behar bai-da, ots, iraina *erindu* “baretu”. Euskararen hiztegi jakinduriak ere lagun behar digu gure kaleko odol irainak erintzen eta *erinia* berrien jarkerak ulertzen, edozein eraillketak ama erraiak iraintzen bai-ditu.

34 Ur uriko erregeak zikurateko kapera eregiteko Aratta erreinuko atxurdina eta beste harri bitxien distiraz tematu zan. Inannari aholkua eskatu eta bere onua jarraitzekotan Arattako jaunari zoriona edo ezpaere zoritxarra opatu zizkion. Amore eginik, zoriona aukeratu zuan Arattako erregeak eta eskariak bete. (N. S. KRAMER, *La historia empieza en Sumer*, IV)

35 MARY MELLOR, *Ecología y feminismo*, 71, ww

ONDORENA

Jatorrizko pekatuak ba du gizaki helduak Ama Jainkoaren mendetik ihes egin grinarekin zerikusirik, ots, umeak amaren babesa ihesiz, maltzurkeriaz harekikoa ukatzearekin. Giza familian gertatzen dena bera da giza esperientzirik beheinena. Teologia ere goitik behera barik, behetik gora abian sortzen den jakinduria bai-da, eta Jainko bidea ere bideginen ikasten da, *bide>fide⁽¹⁾=fede* datorrenez.

Tiamat satanizatu zenetik hona debekua du zeruan Ama Jainkoak eta haren alabak ezin dute erazo harekiko apaizgorik lurrean, ez eta kristau elizan bertan ere. Honetan matxismoaren jarraile den klerikalismoak milaka urteren ilundura eta atzerapena jasaten du ekologia asmo duen gizarte orekatuaren aurrean.

Amaren jakinduria ama erraien arteziaren pareko emana izan da. Gizaki deslaituak artezi horren irrikaz umekeria galantak egin ditu gaurdaino: horrexeri deitu genezakio jatorrizko hogena edo oinarrizko erratua: familiako baloreen, ots, ama-semeen arteko adetasunaren galpena eta basa gizakiaren garaipena salatzen du.

Ez da egoki gizartean ama mendea eta aita mendea aurka jartzea, *ama+aita>maita* eratara biak bat direnean, eta maite konponketa ezina denean, ar-emeen arteko arazoa tematu egiten da. Ama Jainkoaren antza, dagoneko gizartetik joana eta ohargabe orokorrean gelditzen dena, pedagogiaz akordura erakarri beharra dago.

Mitoei buruz, ain jakingarriak dira herrien mitoak eta Liburu Santukoak, denak ere kultura beraren aldakiak direlarik: herri jakintza eta ez aingeruan ahotiko eskola. Mito joanetan ezin genezake oinarritu teologiazko eskilararik, haien erratua nabaritzean, teologiazko pausoak ere bide errakor biurtzen direlako.

Jainkoa bere sorkuntzako legeen kontra balioa, joan, nonbaiten erratu egin zuelakoa edo haserako asmoa aldagarria zela esan nahiko luke. Holako usteak eta asmoak gizabidezkoak dira, ostera. Jainkoak ez ditu bere lehen asmoak aldatu beharrik "dena ona zela" aitortu ere egin bai-zuan gainera. Geu gara izadiko bidea, ots, Jainko legea, geuretu eta gizabideko egin behar dugunak.

IV. JAINKO BILA

Gizakia Izadi Amagandik urrindu zenean, hau da, jainkozko sinboloak gutxietzi eta bere asmoko gizarte berria antolatu zuenean, bere neurriko jainkoak ideatu zituan. Ertigileen teknikan trebatu zegoenez, eltzegilearen trebezia eman zion bere jainkoari, ertilariaren sorkuntza berdindu eta bere tematan burruka zezan, ortziko indarrez lehenbizi eta burdinezko izkiluez gero, armatu zuan basagizonaren neurriko jainkoa, bera bezalako harrokeriaz puztua. (Ikus 65 or.)

Ama Jainkoaren materia usteltzat eman eta urrez eta zilarrez egindako *Inko ikono*=irudiak antzestu zituan, gizaki berria asmo ahaleginetan magia eta teknika nastatu zituan eta zerbait lortu zuelako fama egin; hitzetik idatzira eta predikura aldarrikatu zuan beheinipehin eta erritoen liburutara jaso, ots, hitza idatzi.

Eltzegileen eskolak maisuak ditu, majiadunek izarren mugidan oratu dute artezi ikasia, Menfisko teologoen Egipton euren dotrina irakatsi zuten, liburu santuek ustezko jakinduria goitarriz iragartzen zuten, hitz majikoen arteziz makurdurak zuzentzen zituzten. *Khum* jainkoak eltzegileen artea eta hitzen magia oratu zituan, gizaki biziak egin ahal izateko, *Ptah* jainkoak bihotzetik ahorako hitzetan jartzen zuan fidagarritasuna, harrespileko koronarriek zuten kurpil bultzada ezaguna zan, tenploko ikonoak zuten txarma begien aurreko, kandela argiak iluna zultzeko duen distirak bidea idekitzean, birauak "esan eta egin" atarra bildurgarria omen zuan, eta fededunen ustez otoitzak zeruan ots egiteko duen indarra igaro eta gero, teknologia berriek duten zankoa aintzat hartzen da, ostera ere.

Gilgamesen irrika bizia bere jainko personala bilatzea izan zan, beste jainkoak ostikopetu zituenean. Haraz gero, gizaki modernoak Gilgamesen konplexua du eta jainko zaharrekin aserretu denez gero, bere gustoko eroiak jainkoratzen ahalegintzen da.

1 *Gilgames*, II,IV, 212

4. 1. Jainko gerlariak


Herriek zein gehiagoka burrukan egin zuten elkarrekin eta beste herrietako jainkoek arma berriak sortu eta gudan garaile urten zuten. Burdinazko arma berriak asmatu, eta gudari ausartagoak eroi goraldtu zituzten. Eroik gerlariak du jainkorako ospe gehien, jainko gerlariak estimatuenak, herriak nonbait haien beharra dauka etsaien arriskua ekidintzeko. Eta halatan gizakiak burdinez armatu zuan jainkoa, indartsua zela adierazteko, aizkora ezarri zion eskuman, lurreko zaina bereak zuelakoz eta hiruortza ezkerrean ortzi indarrak bere alde tximistatzen zutela adierazteko. Laban maltzurra ere jantzi zion gerriko eta hodeietan trostatzen omen zen xekor burrunbaria zaldiko. Horrela zeruko eta lurreko ahalen jabe egin zuan jainko kutuna, (Ikus *Ishkur(s)/Xekor*^(eu) 65 or.)² edo Baal eroia eskuman “mailukia” daramala *mlk*^(u) “errege” izendatu, *Ilu* jainkoak beretzako “zeruak lurrari egin xurxulaz, ol eta harriaz taxutu” oinastarri arma bikaina gertatu ziolako³. Artean eta haraz gero jainko guztiak egin ziran oinastariaren jabe (Ikus 65 or.) eta *Zeuz/Jupiter*, Grezian eta Erroman jainkoen jainko, oinestua eskuan zuela goralduta izan zan, hirurak kultura une bereko jainkozko eroiak, nahiz aldiko eta tokiko ezberdintasunik izan.

Erregea ere jainkoaren bitartekaria zenez, nolako erregea, halako jainkoa, Ugariten, *Ilu* jainkoak *Balu* erregea oldartzen du “harzak astamakila eta mailukia” esanez⁴. Haraz gero, *mailukia/mlk*^(h) esan eta “erregea” esan bat bera gertatzen zan, bada *mailukiak* ordezkatzeko zuan erregea, aizkorak *Ishkur* bezala (Ikus 65 or.) Isra-

2 Jadanik ezingo du esan inork *aizkora* “aitz+gora” konposatzen dela, gora jasotzen delako, jainko arma zelako baino, aitz, tupiki edo burdinezko izan. *Aizkorak* oinestua ebaiteko artezia zuan, asaben ustetan, eta *kor>gor* forma *ekura*^(eus)/*ekur*^(s) “zelai, mendi, santutegi” dino, *eguratz* forman bezala, *eguratzean*, mendian bai zeuden jainko santutegiak, *zikuratu/etxegoratu* erainkintzak kaleratu aurretik. *Xekor* ere jainko indarrak adierazten zituan abere jaioa zan uskomediterraneanar kulturari, lehen *ekuran*, gero *eskortan*.

3 *Lucha entre Balu y Yammu*, 1.1 III 30. Cf: Enlil jainkoa ere uztaia eta gezia armatu agertzen da (Ikus 123 or.), arma hau bai da oineztarria ondoen antzetzeko duena eta uztaia, nahiz zurezkoa izan, gezigaina harrizkoa zuena.

4 *Lucha entre Balu y Yammu*, 1.1 III 10.



Basa gizonaren jainkoak, jainko armatuak: a) *ISH.KUR/xekor* trostariaren gainean hodeietako burrunban. Eskuman *ahizkora*, ezkerrean, *ortzia* arrapatzeko hiruortza. Sumerera eta euskara batean. (Sumerreko mitografia), b) *Balu/Baal*, Fenizian Ugariteko eroia, oinastarria eta mailukia/*mlk* “errege” seinuak eskuetan. c) Zeuz/Jupiter oinastarria eskuetan duela.

elek ere guda kantagaiak abesten zituan: “Gudari da Jauna, bere izena du Jauna” (Urt 15, 2-3) edo Jainko gerlariak elkarren kontra burrukan ekin zioten, egitiarrek israeldarren aurka eta euren babespeko herriek hartu zituzten kolpe guztiak buruan, “zuen jainkoak baino gureak indartsuagoak dira” irri egiten zioten gero elkarri, “gure jainkoak gurekin ekiten dio gudarostearen gidari” edo salmoetako “Gudarosteen Jauna gurekin, Jakobena Jainkoa gaztelu sendo gurekin!” (Sal, 45,49) edo “tximist eginez zakabanutu itzatzu, jaurtin zure geziak eta itzulikatu itzatzu” (Sal 143, 6)

Ospetsuak izan zirán jainkosen artean *Sekhemet* “bildurgarria” Erraren ohore apentzailea Egipton edo Ugariteko *Anatu*, *Balu* eroiaren maitale eta sustatzailea eta *Diana* izen egituraren aurretikoa. Ospetsuak amazona deitu emakume gerlariak grekarraren irudipenean, baina ausaz, ohargabeen ere ama mendea eta-

aita mendea burrukaraino eztabaidatua izan zirelakoaren lekuko.

Gaur ere diru kopuru gehiena arma berrien lehiaketan eralgitzen da guda jainko semeen mendean eta ekologiaren kalterako eta gizaki beraren ondapenerako. Txikienek ere ez dute amore eman-go, arik eta atomo indarrak eskuratu arte. Ama Jainkoaren aholkuz-edo izan ezik, jainko gerlarien lehiak suntzi arriskua dugu.

4. 2. Zeruko Erregina

Jerusalen Nabukodonosor erregearen menpe (586 K. a.) erori zenean, Yabe Jainkoa, hala ere, Marduk baino gutxiago ez zela adieratzen, Israelgo teologoek Yabe jaunaren maitasunarekin aipatu zuten guda galpenaren aitzaki: Izan ere, "Jerusalengo emakumeek "Zeruko Erreginari" opariak egin dizkiote eta halako gaiztakeriagatik Yabe Jainkoa aserretu egin da" inoan Jeremia profetak (44 ss). Profetaren agirikari honela erantzun zioten Egipton gordelekua bilatu zutenek: "Yaberen ahotik esan duzun horri ez diogu jararik ematen, ezpaere zinartu dugun guztia beteko dugu, ots, intzetzua erreko eta edakiak ixuriko dizkiogu Zeruko Erreginari, gure asabek, gidariek eta erregeek Judako urietan eta Jerusalengo kaleetan, gaurdaino egin izan duten bezala, jateko ogia nahiko eta, ezelako gaitzik gabe, zorientsu izan ginanean lez". (Jer 16-18)

Marduk jainkoaren garaipena ez zan onargarria Israelen, eta Jeremia profetak, Marduken jokera beraz, gaitz guztien errudun "Zeruko Erregina" eta haren jarraile emakumeak jotzen ditu: harek Tiamat bezala eta Adamek Baradisuan Eba jo zuen bezalaxe.

"Zeruko Erregina" tituloak *Inanna*^(s), *Ishtar*^(a) eta *Astarte*^(u) jainkosek berena zuten eta beretzak gordetzen zuten aita mendeko jainko gerlarien garaian ere uskomediterranear kulturaren emakumeek zirela jaiara honen aurrelari, euren bai-zegokien Jainko seme-alabak aurrera ateratzea maite eta uhaltasun jainkosaren babesean. Beraz, maite ekintza, ala maite-aserrea da egokiago Jainkoagan? Yabe Jainkoa ez zan sexudun, baina haren maite aserreak, gizonezko profetaren eritzia salatzen du. Yaberen nortasuna *izatean* bai-datza (Ex 3,14) edo, euskara lagun, *jabetzan*. Jabetza, ordea, amarena ere bada gaurdaino ama mendekoen ohituran.



Migel Angelen Azken Juizioa ⁽¹⁵⁴⁰⁾, Margolariak hala dakus eta Elizak, katekesia bezala, erakusten du S. Sixto Kaperan: Kristo Jesuek, Aita Jainkoaren izenean gaiztoak kondenatzen ditu "eta gero ezkerrekoei esango die "alde nigandik madarikatuok deabruarentzat eta bere aingeruentzat prestatu betiko surtara," (Mt 25,41) Zergatik? "txiki hoietakoei (gose, bilus, espertxeratuei) egin zeniena bera egin bai-zenidaten neri". Itzela benetan Kristoren beso astinketa, txundituta, berriz, haren besapean uskurtuta dagoen Andre Mariarena. Haren debotoek Ama Birginak Jesusen besoa gediazteko ahalik duen galdetuko dute, hain itxaropentsu abesten bai-dioten "agur pekatarien kaia eta estalpea". "Ez du jasango holakorik" esatea baillitzan.

Jeremiaren pasarte honek beste aipagarri bat ere argitzen digu: Uskomediterranean kulturako gure asaben asmoetan ez zutela onartzen orain ekologia usteko teologoek *Amalur* ozenkatzen duten jainkosa, amatasun guztia ezeze, salbamen seinua goitik datorrelako (Ep. 3, 15-16) konturatu gabe eta lurra, salbamen itxaropen tokia eta atzerria zelako asaben sinbologian, "Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestetuok", ala Andre Maria "Zeruko Erregina" izentatua, baino beherago jarri behar al da Ama Jainkoa?

4. 2. Jainko terrorista?

Predikarien zeloak maiz arimak salba naihean, etsipeneko lezara eraman zuan artaldea. Salbabidea zeharo estua omen zan eta gutxi batzuk salbatzen zirenak. Pekatua gaitz kosmikotzat jotzen zan eta Jainkoak Aita edo Semea bekozko ilunaz irudikatzen zuten margolariak. (Ikus 67 or.) Damuarren bihotzak matutu ostean, misiolari batzuk Andre Mariaren errukia eta arartekotza miragarria azpimarratzen zuten eta "agur pekatarien kaia eta estalpea" gogotik abestuz, ogenduruen kolkua piska bat lasatzen zan.

Baina Andre Mariak ba ete dauka gero bere Seme Kristo Jesusen epai zorrotza gozatzeko aina eskubiderik zeruan? Kristauak gogotik erreztatzen diote Andre Mariari “erregutu ezazu gu pekatarioan alde, orain eta gure heriotzako orduan”. Beraganako debotioari eskerrak, barkamen bereziak itxaroten dira Epaile Zuzenaren aurrean. Ama Jainko mendea joan berri zela, An jainkoaren alaba Inannak ere *me*=zori bereziak ostu zizkion Aitari bere zaintzapeko Ur uria hobeto zaintzearen⁵.

Andre Mariaganako usteak asko baretu zuan Jainko Epaile zorrotzaganako bildurra. Amagan barkamen konfidantza dago eta, eskerrak berari salbazioa posible egiten zan askoren fedean. Elizaren dotrinaz salbazio ezbaiaz halako “terrorismoa” jasan zutenen artean Xalbador bertsolariak honela aitortzen du bere baitan jasanya: “Orduko apez suhar zintzoek halako arak zituzten/ etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen;/ heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen,/ zeruko edertasuna berak hotz hotza ninduen uzten,/ gaztiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten/. Orain ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu naizen,/ etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen,/ gertatzen denez, oi Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,/gure arteko hotsasun hartaz hasia nintzan asperitzen./ Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen”⁶.

Baionako seme Duvergier Hauranne apaiza Jansenioaren dotri-na jarraile izan zan: Jainkoaren erabagiz aurrez hautatuek baka-rrik omen zuten pekatuari ihes egiteko grazi berezi eta erabagiz-zailea, eta gainerakoek ez. Beraz, Jainkoak bere kasa batzuren salbazioa eta bestean kondenazioa prestatzen omen zuan. Elizak

5 E. LIMET, “*ME (religi3n sumeria)*, DR., 1148) Cf: euskarak agian argi dezake *me/mee* hitza, sumerioan ulertuek ez bai-dakite eta *mu* ere irakurten delarik. Euskaraz *mu* “hitz, otoitz” da eta *me/mee* erritoz, barauan bezala, gordetzen den ohikuna, *esan=izan* majia indarra duke bietan eta hagatik zori “destino” edukina ere opa zaio. Inanna jainkosak Enlil jainkoaren santutegia erre egin zuan, Urnammu-ren aldeko Anuren hitza jan zuelako (*La Lamentaci3n de Urnammu*, 205, DB, n^o 26), eta oparietatiak astandu Tulubioan “bere semeen” heriotza erabakitzeagatik.

6 XALBADOR AIRE, *Odolaren mintzoa* (1976) 214-215 or. Cf: Vatikano II-ak Espiritua Santuari lehio bat ideki zion nonbait, askoren kontsolagarri.



Zein da Jainkoaz dugun irudia: amarena, ala aitarena? Horrek ba du gure fedearikin zerikusirik, "Jainkoa nitaz ardura ote da" ezbairik dugunean. Ama Jainkoa baltz, ziur ez zela nitaz ahaztuko. Entzun bada: "Amaren erraiak zutaz ahaztuko balira ere, ni ez nauzu haztuko" (Is 49,15) Hala ere, Jainko Aitaren irudia serio samar ikusten dugu iruditerian.

ez du onartzen "Jainkoak hala nahi du" esaterik, ezpaere denon salbazioa nahi du, ez batzurena bakarrik, Jainkoak bere asmo salbagarriaren aukera denoi ematen bai-digu ⁷.

Beraz, S. Sixto Kaperako (Ikus 67 or.) Kristo Epailaria ez da inondik Ebangelioko Jesusen ganorakoa, batez ere "Seme ondatzaileari" Aitak egiten dion harrera deskribatzen digunean (1c 15, 1-3.11-32). Ez da Jesusen Aita giza burubide bihurriko apentzaile, gaizkinak hondatzeko amorruz irakiten dagoena eta aserrea ibitzeko edo epai zuzena emateko Maria Amaren oharrak edo erreguak behar dituena.

4. 3. Ama Jainko utsunea

Ibarraldean laborantza sortu eta bertan uria eraiki zenean, artzaintza garaiko jainko zaharrak mendiko eguratzean, urrun gelditu ziran. Jainko falta nabariñu zuten kalean. Eurentzat mendi antzeko tontorra egin eta gainean *etxe-goratu/zikuratu*^(s) tenploa eraiki zioten Inanna zaindariari edo Enlil euren gogoko jainkoari. Hala ere, urtero herriko tenplotik mendira erromes joaten ziran uritarrak Ama Jainkoarekiko agintzariak berriztera. Gaur kaleko

⁷ Sinistedunak nola sentitu eta abesten zuen jakiteko ikus "Oi, Jesus gurutzer" abestia, ww. Adibidez, "Zure maitetasunak ez banau, Jauna, salbatzen,/ nire bihotz gaiztoak suaren gai nau egiten./ Ai! Zure erabakiak benetan nau ikaratzen" (ARAMBURU, *Eliz abesti sorta* (1950) Jatorrizko letrak honela dino "Zure amorioak" eta "gogorki nau ikaratzen".

agirietan “agian ez dago Jainkorik eta bizi nasai” aholkatzen dute batzuk eta halako ezbaiak sortzen duen utsunea ez da txikiagoa. Beste ohar batek zera dino: “Jainkoa gizona bada, gizonetzkoak dira Jainko” eta, halatan, zer esan emakumeez? Feministek Ama Jainkoa eskatzen dute, euren gorputzak gordetzen duten espirituari hegoa eman ahal diezaion. Zer gertatzen da Elizan erlijioa beste inork baino barnetiago sentitzen duten emakumeekin?

“Benetan zu Jainko izkutu eta ikus ezina zara” (Is 45,15) esanez, profetak handiago egiten zuan bere misterioa, baina Elizak Jainkoa aita mendeko aulkian exerita bizarrak serio samar ferekatzen aurkezten digu eta oso bakarti. Seme-alabenganako mugida bat beharko luke, edo sinpatia gehiago, Nazaretoko Jesusegan ikusten den bezala, bihotzeraino jaitzi eta laztan egiten digun Jainkoa, haren maitasunak froga izan dezan. Ez da harritzeko halako Jainkoa, aintzat hartuarren, askok harekin topo egiteko bildur izatea edo hitzik egiten ez ausartzea. Ausaz Ama Jainko itxuran agertuko balitzaigu eta berari “gure Ama/Abba, zeruetan zarena” erre-zatu ahal bagenio... orduan, agian, ohargabeen guk uste baino barnerago bizi dugun Jainkoa, geure bihotzean *ekura/ekur*>*cor* “santutegi” egiten dion Jainkoa amaago izango litzake.

Jainkoaren hurbiltasuna senti hal izateko, otoitz egiteko bide berriak saiatzen dira: mendira igon, ohiko ekura santutegira erromes kurri, zabaldien edertasuna ikusi, bakardadea entzun edo Nazaretoko Jesusen eskola, ots, izadi tenplo handia edo norbere barneko txokoan atea jo, gu geu baino barnerago gudan dagoen Jainkoak entzun diezaigun. Otoitz egiten ez dakitenentzat “arimaren gau iluna” gerta daiteke bizi dugun unea, ez osterara “ai Ama”, “ene Jainko” inzini egiten dakienarentzat.

Europear garenontzat geure santuen jarraibidea hurretik daukagu Nazaretoko Jesusen goraintzia, atzerriko erlijioen txilinak edo ez ba gaitu aztoratu. Gurean ba da oraindino asaben mendira, eguratzera edo koronarrira Jainko bila-edo urtero igoten duenik. Mari Anbotoren aginduak, adibidez, kristauaren ber-bèretsua dira eta Moisenak baino lehenago gurean entzun izanak eta beteak. Elkarrekin gonbaratzea daukagu eta Ama Jainkoaren agindu-



“Eta Jainkoak esan zion Subeari: “Asa-
rrea sortuko ditut zure eta emakumea-
ren artean, zure ondorengoen eta haren
ondorengoen artean: honek buruan
emango dizu eta zuk orpotik helduko
diozu.” (Has 3, 15) Eleiz gurasoek arreta
handiz begiratzen dute “jatorrizko peka-
tua” gizakiagan duen eragin fisikoa dela-
eta bateo garbikuntza behar izateraino
hatan ere. Hala ere, ez dakite “jatorrizko
pekatu” hori garbi zertan den. Ausaz
“jaiotzak heriotza zor” jakinduriari ema-
ten zaion erantzuna baino ez da edo hain
zigorrek eskaten duen funtzezko errua:
Jainko esanaren kontra Ebak eta Adamek
jan zuten sagarra. Eta akatz hori ere ema-
kumeari egozten zaio, emakume bakar bati
izan ezik: Andre Maria Sortzez Garbiari.

duak besteak baino lehenagokoak eta geureagoak ere direla ohar-
tzea⁸. Gazte askok drogaren kiribiloak zoragarritzen du, baina kao-
sak ez du Jainkoaren arpegirik erakusten. Bera adizkiderik onena
antzo, dohan lagun egiteko gertu daukagu, Ama Jainko edo Aita
Jainko aukeratu genezake, berarekin topo egin eta hitz egiteko,
maite xedeak, edo fedeak, ez bai-du mobikorrik behar. Barne utsu-
nea bete gurarik, Jainko bila dabilena, bere amaren bila dabilen ume
zurtza bezalakoa da. “Zure Ama bizi duzu, ordea, zure barnean.”

4. 4. Ama Jainko bila

Kristaudia eusko-mediterranean kulturaren errota izan da Sortal-
detik Sartaldera. Jende xea, ohiko Ama Jainkoaganako eredu eta

8 Mari Jainkoak bere umei ezartzen zizkien zazpi marrak edo aginduak:
“ez ostu, ez guzurrik esan, ez inor hil, ez harrotu, besteak dedutan izan, emon-
dako berbea bete eta alkarri lagundu”. (euskeratua geurea) (BARANDIARAN, J.
M., *Mitologia Vasca*, o.c., p. 119) Mariren marrak zapaltzea, marka egitea zan
eta sinbolikoki zigortua (Ikus 31 or.) eta halako jakinduriaz bermatuak
ziran: “gezurtia bere ahotik galtzen da”, “ez egik gatxik eta ez euk bildurrik”.
Mari Jainkoa seme-alaben utsekin bizi omen zan, hau da, bere mendeko-

jaieraz gabeturik, umezurtz aurkitzen zan, Andre Mariaren abegiaz Jainko Aitaren itzala argitu zuten arte. Ez zuten horren atsegin Aita Jainkoaren arpegi zurruna. Irudigileek ere, zenbat eta giza eredu-tik aldenduago, Jainkoagotzat ematen zuten ikonoa, maiz bildurra sartzeko arteziaz, indiar edo mexikar jainko irudien ganoraz.

Ama Jainkoaz, ostera, halako yoranez hitz egiten da gaurdaino. Batzuk *lur-amaz* nastatzen dute haren gorentasuna, beste batzuk herrien ohargabe orokorraz edo igarleen askatasunaz aitortzen: “Amak bere haurra gozaten duen bezala, hala gozatuko zaituztek nik” (Is. 66, 13), Jainkoagan Ama Jainkoaren bihozkeria ezagutzen. Bere maitasunaren fidagarritasuna adierazteko Profetak amarekin gonbaratzen du Jainko bihotza: “Ama batek aztu ete dezake bere bularreko umea, bere erraietako semeaz errukitu gabe? Bada, berak aztu baleza ere, nik ez zaitut aztuko” (Is 49, 15 9) Ez dago maitasun ziurragorik, ezik lagunekaitik bizia ematea baino (Jn 15, 13).

Izadia geure etxea dela esaten digu ekologiak eta haren elementuak zikintzean ditugunean, Ama Jainkoaren arpegia itxurgatzen dugu eta haren apaindura zikintzen. Ama Jainkoaren bila ari direnentzat ohargarria da izadiko elementuen berezko iraunkortasuna eta berrikuntza: *ura, sua, airea* eta *lurra* uneoroko bizigarri ditugunez gero, kutsaduratik garbi zaintzea dagokigu, euren materialtasunean ere espiritua aipatzen digutelako, uneoro bizia inutzen diguten sorkariak dira eta haien edertasunean ikusten dugu Ama Jainkoaren arpegia ere.

Izadiko elementuok oretuz sortu gintuen Ama Jainkoak eta hagatik amen erraiak izadiko elementuok oretzen dituzten *urru-xa>orza* direla aitortzen du euskara zuhurtziak, ots, bizi berrien sorleku eta bizi garenon elikagarri: *ama-uin, aita-su, arnase-aire* eta *elika-lur*. Elementuotan batzuk besteak baino materialagoak edo espiritualagoak ematen zituzten kosmologo zaharrek ere. Giza goputzà ere *ka* “materia” da eta *ba* “baita”, biak ere elementu haien nastea. Geure soineko parte bata, sexua adibidez, ez

> ek izatez zirenak ukatu edo ez zirenak aitortzen zituztenetatik, “ezaz eta baiaz bizi naz” esateraino. Eurotan Ama amainoa ikusten da, zigor fisikotik ate.



Efesoko Kontzilioan (431) Andre Maria solik Kristoren Ama, ala Jainkoaren Ama zenetz eztabaidatu zan. Kristo bera Mariaren seme ala Jainkoaren Seme zen funtsezko eztabaida, Nestorio eta Zirilo patriarken artean. Ziriloren tesia onartua izan zan eta, beraz, Maria *Theotokos* "Jainkoaren Ama" goraiatua, ots, Maria Kristogan aitortzen zen jainkotasunaren Ama ere ba zela. Santa Maria Magiore-ko mosaikoak (V) Kristo bere Ama Erregina koroatzen.

da bestea baino zabarragoa, hala ere, geure baita edo kontzientzia baino ezaintzatsugo daukagu. Holako bereizketatik etorri da emakumea gutxiestea, beragan sena, sexua eta amatasuna materialago nabaritzen direlako, gizonezkoagan, berriz, asmoa, burubidea eta ekimena. Beraz, Ea/Enki eta Tiamat burrukarien auzitan, Sube eta Butzuren arteko arazoa argi ebaztea dagokigu.

Izadiko elementuen arian hobeki azaltzen da bizi sorkuntza eta garapena, zientziak ohartzen digunez, eta elementuotan darrai Ama Jainkoak bere umeen duintasuna ornitzen, eta haien bizi epeak igaroz, etorkizuna ere bere kasa lantzen. Ama Jainkoaren erraia eta eskua etxea eta eskola ditugu, gure asaben *Ama.Ate* erlijioan aitortzen zuten bezala: Amagandik urten Amagana itzuli, Eguzki Aitaren eguneroko urten-osterari jarraiki.

Herri sinistedunak gehiago maite du Andre Mariaren eredia, Aita Jainkoarena baino. Eleizak ez du lortu Ama Jainkoa ere ba dela adierazten, beraz, haren eredia izkutatuz, antzutu egin du Jainkoa. Aita bakarti horrekin ez du harreman gozorik, ez du ulertzen, ez bere egiten. Andre Maria, ostera, bere amatasunean ulertu eta bilatzen du, nekeen emendioa lortzeko beragan duen fedean.

4. 5. Andre Mari

Hasieran Eleizak Andre Mariaganako jaiera atzendu egin zuan, herriak euren siniskerako Ama jainkoren batekin nastatzeko

arriskua itzuritearren⁹. Usko mediterranearen kulturako jendea amatarra da, Maite edo Mari Amaren seme-alabak, alegia, mortutik harako semitarrak-edo izan ezik. Hoiek aitamendekoak izaki, “fariseuak” bezain bereziak ziran, ots “*fares^(h)*”¹⁰ itxura zaleak ziran “bihotzez barik, ahoaz ohoratzen zuten Jainkoa” (Mk 7, 1-13) Euren ohiturak Jainko Legearen pareko edo haien gainetik jaritzen zituzten eta Nazareteko Jesusek iguin zituan hagatik

Efesoko Kontzilioak, Theotokos “Jainkoaren Ama” tituloa egotzi zionetik, ostera, Ama Jainkoari zegozkion ohorezko eta ardurazko beste tituloak etorri zitzaizkion Andre Mariari. Aita mendeko elizan “Gure Ama zeruetan zagozana” errezatzerik ez zegoenez, edo “Ama Zeru” aitortzerik, kultura zaharreko ohargabe uzkur-tua “Zeruko Ama” abestera ozartu zan, haraz gero.

Maria Jainko Aitaren osagarri bezala ikusi dugu, bera, hain gizonetzko ikusirik, “Jainko bildurra” jakinduria mailara aipatzen duelako (Es 1,7). Eta halakoetan giza gaixoak, umetzaroan bezala, nahiago du amagana jo, hagan babes zihurragoa susmo duelako¹¹. Hagatik Jainko herriak Aita Jainkoagan ikusten ez zituen emetasunaren dohaiez ornidu zuan Andre Maria, Ama Jainko ordeko egiteraino. Horrela, *Mari Urrika*, edo *Mari Orriaga* tokietan Andre Mariaren santutegiak jaso zituzten, “baserritar” Ama Jainkoaganako jaiera kristautzekotan. Hagatik, *Ama+Ate>Maite* Jainkoaren oroitzaz Andre Mariari “Ama maite Maria” abesten zaio jaiera handiz eta “Zeruko atea” aitortzen *Ave maris stella⁽⁹⁾* abestian, ots, “*felix Caeli Porta/zeruko zorion Atea*” dino, Ate ize-nak “portu/borta” ere esan nahi du latinez eta *Alma Redemptoris Mater* goratarrean, berriz, *porta manes* “zenduen ate abegiko-

9 LAURENTIN, “*Maria*”, DR. or., 1112-1116) Urkiolako santutegia ere auzaz ez zan Andre Mariari eskeinia izan, aldameneko Amboto Mariren Koba ez aipatzearen, baina dena den, nortasun ezberdin biak Mari izenez deitzea topaketa harrigarria da euskaldunentzat.

10 Euskarak ere poliki salatzen ditu: *berezi* > “*fares^(h)*” datorrelako, hau da, besteengandik bananduak, eskola berezia, ohitura bereziak, hagatik “itxurazaleak” izenez ere ezagun direnak.

11 R. LENAERS, XXX, *Otro cristianismo es posible*, X, 116, ww



Elizak Andre Maria gorputz eta arima Zeruetako Jasoa siniskaitzat aldarrikatu zuenean, 1950 urtean, Jung sikologisten maisuak gertakari harrigarritzak jo zuan, bada kristau herriaren ohargabean Ama arketipoak berari zegokion gaina hartzen zuelako eta Aita arketipoaren pare ezarten zelako gorengo tronuan. Haraz gero, Euskal Herriko *Andre Mari* goitzen duten elizetan Andre Mariaren Jasokundea ospatzen da. Sinbolo mailan gertatuak gizartean eragin handi izango zuela iragarri zuan. Ospakizunotan igon/jaso bereizten dira: Jesusen Igokundea, alegia, eta Andre Mariaren Jasokundea.

rra” deitzen dio, halako aipamenez, *Ama*+*Ate* usko-mediterranear erlijio sinikaiarekin bateratsu datorrela.

Andre Mara/Andre Mari titulu-izenak ere Kristo aurretikoak dira eta toki batzuetan *Andrena* gehiengo mailan edo *Enandre* formako tituloak eman izan zaizkio Andre Mariari. Aipatu abestiak “Itxasoko izarra” deiten dio Andre Mariari, eta “Izar argia” *Zeruko Ama* abestiak. Ur handitako marinelek gauez izarra dute gidari eta analogia hori jarraitzen du itxasoko izarra deiera honek. *Nut* Ama zero mako izarratuan dager (Ikus or.17) eta An jainkoaren alaba *Inana*, “zeruko izar” maitagarriena bezala. Maite jainkosa honi, akadieraz *Isthar*^(a) edo *Izara*^(s) deiten zaio, euskaraz berriz *Izar* eta ingelesez *Star*⁽ⁱ⁾ dena. (Ikus 61 or.)¹² Hortik dator Errosarioko arrenetan Andre Mariari *Stella matutina* “Artizar edo Goizeko Izar” deitzea ere eta herri abestian, berriz, “Goietako izar argi” halako poetikaz goraltzea.

12 Ohartzeko da *ate/atari* eta *istar* izen eta edukinen artekoa: *atari* giza-kundez *istar*, santutasun *aS* seinudun, *etxe-atari* analogiatik zehar, *atari*> *estari* edo *izar* datorzen bezala, eta *atela*, *stela*^(u) “estrella” erromanikar eratan.

Ama elikaria izatea amatasunari dagokion ofizioa da, hala *Nut* jainkosa *Geb* sorkariaren inude bezala dager eta Isis jainkosa Erra semea edozkitzen (Ikus or. 35). Ez da harritzeko, beraz, Erromako Enperioak *Mater alma* "Ama elikari" izeneko jainkosaren ofizioa uztiatzea eta jarraian kristau Elizak "*Dei Mater alma*" tituluaz Andre Maria ohoratzea¹³. *Anatu* jainkosari *Birgina* deitzen diote Kanaango antzerkietan¹⁴. Izen beretsuko *Atenea* jainkosari *Parthenos*⁽⁹⁾ "Birgina" izenez goraltzen dute eta, biek ere, *Diana* bezala, armadun eta gerlari agertzen dira eta, aldiz, "gudaroste taxutua bezain itzalgarri" kantikakoa (Kant 6, 4) egozten dio Andre Mariari bere festako liturgizunak¹⁵. Andre Mariari, ostera, *Birgina* eta Ama, *Theotokos*⁽⁹⁾ "Jainkoaren Ama" tituloa opa dio Elizak batean eta bestetik mitook iragarten duten *birgintasun* eredu.

Umeen minak arintzeko edozein ama da "belar ona" eta medeatzaile argitzat goratuak izan ziran *Nin.Insinna* eta *Ba.u* Sumerren edo saniatzaile zuhurtzat *Sani*⁽⁹⁾/*San* jainkosa Fenizian. Orobat Elizak Andre Maria *Salus infirmorum* "gaisoen osasuna" goraltzen du Errosarioko arrenetan. Andre Maria ere, *Nut* eredu zaharra bezala, pendarra buruan, uraz baliatzen da gaisoen osakuntzan, *Urona*, *Idoia*, *Iturrisantu*, *Fuensanta*, *Lurdes*, etab. izenetako santutegietan, "gure saminak osatutzeko zagoz-bai hor aldarantz".

"Ea, bada, Bitarteko Andrea" deitzen diogu "Agur Erregina" ototzik samurrenean, gizakiaren eta Jainkoaren *Ararteko* ezagutzen dugula. Aitaren aurrean ez dago ama bezalako mediatzailerik, ez dela aitortzen eta gutxi ardua, Idazki Santuen arabera, *Bitarteko* bakarra Jesus "Jainko Semea" izatea. Bihotzak dotrinak beste mugiz dezake lurrean bezala, zeruan ere. Ustez, Andre Maria Jesus *Ararte-*

13 Ali/elikietan *alme* eta *almeka* deitzen zaio aberekien saihezkiari. Hortik *alimu* ere. "Birjina Saindua, zure ontasunak alimu ematen daut".

14 *DEL OLMO LETE, Mitos y Leyendas de Canaan* (MLC) Cf: *Anatu/Atenea* edo *Diana* izenen artean konsonante-arketipoen kotrapasa dago eta milaka urteren aldea; ama mendea dager *Antu*⁽⁹⁾/*Anatu*⁽⁹⁾ formetan eta aita mendeko egitura *Atenea*⁽⁹⁾/*Diana* izenetan, *Amaidu/Adame* formetan abezala.

15 "Armadun" esateaz "emakume armak" ere aipatzen dira eta ez dago, izan ere, begietan piko egiten duen "arma" baliagarriagorik, edertasuna baino.



Andre Mariaren zeruratzean ohiko liturgiak abesten du: “Nora zoaz egusenti antzo disdiratsu (...) iretargia baizen eder, eguzkia bezain hautatu?” Lurretik ate doa, hemen jada oinarri-rik ezpailuen. Ama Jainkoa dagoen tokian egon behar du bere alaba Maria, Jesusen Amak ere eta, berarekin batera, Ama Jainko Maitearen seme-alabak. Aldameneko irudia halako iragarkizun bezala, onargarria liteke, fedeak Ama Jainkoaren aintzatan dakusalako bereen etorkizuna. Hala ere, gizatasunetik lar aldendu, ostaz adierazten du guganako amatasuna eta ezin halatan Ama Jainkoarena ere bete Ama Jainkoa titulua burutu ahal izateko.

koren Bitarteko da, baina “Zuri deituta laguntza gabe inortxo utzi dezula” abestiaren deira grazi medeatzaile eta ornigarrien odi bateratzen dira, bera “grazi guztien mediatzaile” aipatzeraino. Kristo aurretik ere horrela izaki, asabek Ama Jainkoari eskatzen ziotenean edo geroztik Uronako edo Lurdesko Amari eskatzean, Andre Mariak ohargabeen Ama Jainkoaren ordezkoa egiten du.

Ama Jainkoaren alaba maite jainkoseri “Zeruko Erregina” titulua ematen zitzaizen uskomediterranean erlijioan, beraz Ama Birgina zerura jasoa aitortu zenetik eta lehenago ere (Ikus 73 or.) hla ospatzen dugu Andre Maria zeruan koroitua Bazko antifonak “Zeruko Erregina, poztu zaite” abestean.

Ama Jainkoari herriak aurretiz eman titulu berak eman dizkio Elizak Andre Mariari, hala *Andre/Andrane* euskaraz eta “*Nôtre Dame*”¹⁶, *Domina*¹⁶, *Dona/Done*, *Endone*^(eu) “deuna”, *Andre Dena/-Deuna Maria*, gaztelaniak “Señora Santa María” aipatzen duena¹⁶.

16 *Andreena*>*Andrane* eta *Endone/Doneen* formak gehiengo kasuan dagoz. *Damkina* titulua *Enuma Elish* idazkian agertzen da “*andrakina*” esateko eta *Dama* forma soilagotik dator eta berau *Ama+Ata*>*Ma.at* itzulkatu deiera da. Ambotoko *Dama Urrika/Ekura Dama* titulok ere giza mendeko titulok dira. *Dama* deitzen zaie Iberiako jainkosen irudiei ere.

eta Ama Dona>*Madonna*⁽¹⁾ datorkena. Ohartzekoa da *donna/done* hizkunea *Got/god*⁽²⁾ bezala, jainkoei bai-dagokie “santu” izatea. *Lady*⁽³⁾ forma Latai/Leto Liziako jainkosari eman Lada titulotik dator.

Andre Mariaren goralpenak, Guztiz Garbiaren eta Jasokundearen dogmak gizakiok barne ohargabeen dugun Ama Jainko utsunearen betegarri dira. Jung sikologian maisu argiaren gardiz, sinbologiari dagokionez, Andre Maria Zeruetara Jasoa dogmatzat hartzeak gizonezkoen Jainko ereduaren aldamenean jartzen zuan emakumea, nolabait Jainko gizonduaren einera jasotzen zuela. Aipatu autorearen ustez, goralmen honek ondore harrigarriak izango ditu etorkizuneko gizartean, gizonezko eta emakumeen artean bihotzerainoko gizatasuna bultzatuko zuelakoan eta salba itxaropena gehitu, “zeru goi-goian bai, hantxe ikusiko det” abestia lekuko, fedearen aldetik eta emakumeekiko berdintasun eskakisunaren eupadak gizartean.

4. 6. *Sexu gabeko Andre Mari...?*

Sexua Jainkoak egina da gizakiaren ugaltasunerako eta Bera espiritu utz aitortzen dugunarren, “bere antzera, gizakume eta emakume sortu bai zituana” (Has 1, 27) eta sorkuntza ontzat emana gainera. Gero *Sube* eta *Butzu*-ren mitoa irristatu zan Baradisuko kondairan: *Sube* jakintsuak *Ebari* iruzur egin ziola-ta, *Subea* satanizatu egiten da, eta *Eba*=*Butzu* bereziki pekatuaren errukide jotzen¹⁷.

Haraz gero emakumearen sexua begitan hartzen da, pekatuaren iturria bailitzan. Adamek bezala, gizonezkoek emakumea jotzen dute erruduntzat, mitoaren aburuz. Andre Maria Guztiz garbi-gandik, ordea, pekatua eta sexua ezabatu egiten dira ahal bestean, Ama Birgina aitortuz, “Birgina amatu aurretik, artean eta geroztik” Kartila batek esaten zuen bezala. Mariak galdetu zion angeruari: “nola izan daiteke hori, gizonezkoek ez dut ezagutzen-eta?” (Lk 1,14) Hortik Eleizak “Ama txit garbia, Ama errugabea, Ama kutsugabea, Ama orbangabea” goralpenak sortu ditu eta zenbait elizgizonen sexu bildurrak Ama Birginaren santutasuna berma-

17 *Subea, Sugaar* bezala, arraren sinboloa da, eta *Butzua* emearena, baina Jainkoak sortu berri gizakia *Adam* eta *Eba*, sinbolo horretatik ate dagoz eta, hala ere, “bizidun guztien amak” ostaz ihesten du Tiamaten susmotik.

tzearren haregandik sexua ahienatzeko jokera izan dute. Jokera horrek, ez delakoan ere, sexu kutsuak emakumea orbandu eta zikindu egiten duelakoa aditzen ematen du eta amatasunari eta ezkontzari dagokion ohorea kentzen dio¹⁸. Ama Birgina tituloak eta haren sexualidadea ezabatu nahiak aldi bateko Ama Jainko sortzailearen iruditik aldendu egiten du Jesusen ama Maria eta feminismoaren eredu egokia izatera deitua dena, giza mailatik ate, imitagarri ezin aingeruzko bihurtzen du.

Aingerukeria da pekatu eta aingerukeriak, harrokeriak bezala, gorputzean barik, burueritzia izatean dauka bere akatza. Andre Mariak onartu egin zuan Jainkoaren hitza: “hona hemen Jaunaren mirabea” (Lk 1, 38) erantzunez, bere amatasun proposamenari, beraz, “izan nadin bai bere ama/baina geldituz birgina” abestiarena sexu kontrako mito-aurreritsiak emana da ezkongabeen irudipen nastuak pusturiko *eretsi*>*eresi*⁽⁹⁾, Mariak amatasuna baino birgintasuna aintzakoago-edo izan bailuen. Hala ere, Maria Jose senarrarekin eskondua agertzen da historikoki Ebangelioan. (Lk 1,27).

Jatorrizko pekatuari dagokionez, farisear burubideko asmakaria dela esan daiteke: “gizakia hilkorra da, beraz, pekatu egin du”. Askoz ulergarriagoa da gizakia berez mugatu sortua izan dela aitortea. Umea itxu jaio da, beraz “nork egin du pekatu ume hau itxu jaio zedin?”-- farisear aurreritxia, “ez berak eta ez bere gurasoek, ezpabe Jainkoaren ekintza beragan ager dadin”-- Jesusen erantzuna, itxua osatzean (Jon, 9,1-3)

Mitoaren arabera, jatorrizko pekatuak ordaina eskatzen duez gero¹⁹, esan daiteke elizak emakumea ezereztatu duen neurrian Andre Maria goraldu egin duela “emakumeen artean” arazo ordezka konpondutzat ematearren-edo. Mariologia Ama Birginari buruz klerigoek egin teologia izan denez, euren konplexuak izkutatzen ditu funtsean. Hala ere, Vatikanoko IIa-ri esker, urak uarkara doaz eta emakumeak bere betekizuna aurkitu behar du elizan eta gizonezkoek onartu egin behar dute.

18 R. LENAERS, *Otro cristianismo es posible*, X, 120, www.

19 *Enuma elish*, VI,9-14.

4.7. Sorkuntzaren ber-irakurketa

Izadiaren lehen irakurketatik gizakiak ahozko hizkuntzarako lehen ahotzak eta arketipoak atera zituan: izadiko elementuen izenak *uin, su, aire, loi* bere jainkoen lehen zenbakiak izan bai-ziran. Arketipook sentzuez idoro, aztertu eta ahozkatzea gizakiaren antxinako jakinduria ulertzea da eta, beraz, arketipook ohargabeen uztea, hasierako hitzaren sinboloak galtzea. "Hizkuntzaren lekukotasuna ziurra da eta kontuan hartzeko bakarra", Müller erlijioen gonbaraitzailearen gardiz²⁰. Gizakiak arketipoen gida galdu eta hizkuntza bere grafiaren morroi egin zuenean, hitzaren zilbor esteak ebaki zituan eta haraz gero ez zekian berbetan norik erakutzi zion, zientziak itzali bai-zion hasierako argitasuna.

Ekologia ere zer zen ez genekian, harik eta geure ondotik ibaia uhar joaten ikusi eta airea kiratz arnastu genduen arte. Orduan *uina, sua, airea, loa* lau elementuen osasunaz arduratu ginan, euren osasuna geure bizia zelako. Une batez uina/ura ez zan ez edateko, ez arpegia garabitzeko. Gure eroi airea ere itogarria gertatzen zitzaigun eta sua eguzki garbiari gomendatzen genion beste erregarrien gainetik, loi/lurrean pilatzen zen kutsaduraren aringarri. Zer egin zezaken gizakiak izadiko lau erro elikagarrien onurarik gabe? Azkenik etxe ingurua zehatz gobernatzeko jakintza honi ekologia deitu diogu eta hasierako giza jakinduriaren lau elementuak kontuan hartzeko arduratu gara.

Lehen elementu/arketipo hoiien bidetik hizkuntzaren oinarriak idoro ditugu hizkuntzalaritzan (Ikus norbere buruari eta kideei deitzeko izendegia 3° laburgoan) eta Jainko zantzua teologian, elementu ber-bèrok bai dira Jainkoak sorkuntzan erabili zuen gaia. Gizakia gai hoiei lotua dago, umea amaren erraiari eta bularrari bezala, bada Jainkoak elementu hoiien gunaz sortu gintuen *kautz* haretatik argitara atera gintuenean.

Jainkozko arketipo hoiiek norbere arketipoekin bat egiten dutenean giza nortasuna osotasunera eltzen da.²¹ Gure Baradisuko bal-

20
21

J. RIES, "Müller, Friedrich Max (18,23-1900" DR. 1261-1262 or. Jung sikologistak jainkozko zantzua ikusten zuan arketipoetan eta>

3^o laburgoa : **IZENLAGUNAK ARKETIPOEN ERATARA**

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
en/ni/no	tu/tou/you	er/ar	auli/lui	ego/eketa	ber/ba	txe/je
mi/me	to/txo/zu	eurak	le/la/eli	gu/kau	beste	txeia/che
nor/inor	ti/it/hi	ura	ille/él	qui/quién	bat	zein/is
eni/mihi	tui/their	ari	lo/los	cui/cuyo	vobis	ze/zer
nos/hona	ode/zoin	ori	allelon	gure/ekeien	vos/vester	se/shi
nemo	deus/tis	urlia	alter	ekeinos	hic/hoc	sfeis/sfon
neure	tuyo/zure	euren	illius/leur	kori/que	vôtre	ése/éste
mengano	zutano	urlain	ulain	ako/cosa	fulano	si/sibi
nada	uts/todo	rien	alako/algo	quaedam	pan	sandia
aina	autos/tal	eren	alguien	aquel	bera/hera	zerbait

Ohar: lehen lau arketipoak jainkotiarrek dira eta beste hirurak gizakiarenak. Batabes-teen nasteari hizkuntzaren gizakundea deritzaio, gizakia Jainkoarekin ezkondu bailitzan

dintza jainkozko elementuak garbi eta garden zaintzean datza, zikinduez gero, Jainko arpegia galtzen bai-dugu eta harenarekin geurea. Jainkoaz inguratu bizi gara, "beraz bizi, beragan mugi eta beragan bai-gara izatez" (Egin 17, 28) eta "bere leinuko bai-gara".

Jainkoak ez zuan bizi dugun mundua egingo guk bera ezagu-tzeko beste izpilurik izan bagendu, baina gure sentzunek Jainko sorkuntza aditu eta aztertuz aurkitzen dugu gauzen zentzuna eta Sortzailearen ezaupidera heltzeko bidea idoroten dugu.

Hanartean Jainko idea itzaltzen joan zan, harik eta ekologiak izadiko elementuen biziaz ohar egin diguino. Erretzen duenak norbere bizia pozoitzen du eta Jainkoa ohoratzen ez duena etxe-kalte da, baina ekologia definituz gero, amarekin topo egiten dugu lurrean eta Ama Jainkoarekin zeruan.

>norbere arketipoak eta Bestearen arketipoak bereizten zituan eta norbere arketipoak Bestearekiko atesuan lortzen duela garapena. (VIDAL, J., "JUNG, C.G. (1875-1961), "DR., o. c., p. 936-941). Cf: Sikologian arketipo behinenak *Ama*, *Aita*, *Eroi* eta *Erio* dira, hizkuntzan euren sinbolo diren *AN/uin*=zeru makö, *UTU/su*=iduzki, *ERRA*=aire eta *ILU/loi*=lur eta euren ahotzak, teologian, berriz, Jainko sorkuntza: *IZADIA* eta *GIZADIA*, bata honek bestea ulertzen eta berekotzen duen eratan.

ONDORENA

Gaurko gizakiak umezutzaren nahasmena du gogoan, ots, ama gabeko umearen utzunea bihotzean, Ama Jainkoaren abegia eta babesa ohargabe orokorrean baztertua, ain zuzen. Gizakiarentzat ez dago amak aina duen fidagarritasunik ez erlijioan, ez idea salbagarrietan. Aita Jainkoa ez da nahiko, eguneroko harremanetan, Amaren arpegia eta eskua erakusten ez badigu. Hagatik *Ama+Aita>maita* burubideko Jainkoa dugu ohargabean.

Gizakiak beragan ditu jainko eredu guztiak, baina ama arketipolari aldarea ukatzea, umea amaren zainzapetik aldentzea bezalako bidegabekeria da, ama ariko kulturakoentzat. Artean Andre Mariaganako jaiarak Ama Jainkoaren ordezkoa egin du kristau Elizan, eta jaiera honek berak adierazten du Ama Jainkoaren arpegia beharrezkoa dugula, "herri ahotza Jainko ahotza" den bestean.

Emakumeen aurkako mugida ez da izan gizonkeriaren errua bakarrik, kristau Eliza ere partekide da horretan, aita mendea gainditu beharrean, klerikalismoren eskutik eta sexu kontrako angelismoaren besotik ibili delako, batean Andre Maria, emakume eredu goitiar jainkozko aintzara jaso irrikaz, eta bestetik, emakumea Elizako aholkaritza eta serbitzatik ezgei antzo baztertuz.

Igarria da gizatasuna ez dela bere betera heldu, ez burutu aurretik amaren eskola ostu zaiolako. Artean jainkotxo burrukariekin dabil urkolaguna hiltzeko arma bila, urrearen eta teknika-
ren atzetik, arerioen kontrako gotortegiak sendotzen, arma heriogarrien multsoaz herio kultura indartzen.

Ama Jainkoak maitasuna baloratzen duenez, giza psikologia hezteko eta etxeko denak gizatasunez mahai berean batzeko amainoa du. Aita Jainko ereduak, oster, indarrean eta ohorean jartzen du balorea, munduko errege kume bailitzan eta aitatasunik gabeko jainko aizun: erregeak arerioak zuntsitu nahi ditu, ohoretzat du nausigoa eta ahiergoak zirt edo zart ordetan garbitzen ditu. Haren onginahia irabasteko men egin behar diozu eta biziagino oparitu, guztien jaun eta jabe delakoaz. Jainko sortzailea, oster, teologia-
ren oinarria da eta hortxe bilatzen dugu Ama Jainkoa.

V. KULTURA ERASOAK

Zeruan *Ama+Aita* eredurik ez duen gizakia basagizakia da, “amak egin eta milikatu gabea”, alegia. Abere amak bere kume jaioberriak miazkatu egiten ditu, ots, bere mihinaz garbitzen, pisti gosetien usnatik itzuritearren eta analogiaz salatzen du herri jakinduriak gizaki zakarra “amak egin eta milikatu gabea haiz” hautemanetz. Ama-Aitak maitasunez sortu eta umatzen du umea eta sorkuntza berak dakar maitasun mendea, materia haina espiritu daukana, materiak espirituari ohore egiten dionean edo alderantziz. Mende horretatik ate, *Khum* jainko buztinlariaren *kume* izan nahia luketenek *Ptah* jainko majiadunaren *basa*’ gizakiak aipa genitzake edo Marduk jainkoak mardotu gerlariak.

Harritzekoa da eroi guren artezia dagoneko inork ez aipatzea, nahiz eta haien iraultzatik sortu ezoreka oraindio kalearen jabe delarik, batez ere plaza gizonak edo eleiz gizonak emakumei opa dien baztergoa ikusitean. Ze misoginia da hau? Nondik dator emakumea gorrotatzeko mina edo zergaitik gutxietziz bereizten du emakumea gure gizarteak?

Biologia eta ekologia zientziek barre egiten die harako basati maltzurren iraultzei eta oraingo armagintza, gudako makinak eta neurri gabeko industriagintzaz gizartean eta lur azalean kapitalismoak eta inperialismoak egin kalte nabariak salatutzen dituzte. Eta nor da “ardien kulpak bildotsak ordaintzen ditu” esanaz, eskuak garbi ditzakenik?

Gizarteak izadiaren eskolari jarraitzen ez dionean, dagokion oreka galtzen du, eta basagizonari, amak milikatua ez denari, alegia, nekeza egiten zaio hori ulertzea edo misoginiatik osatzea. Ama Jainkoaren eskola galdu zuten eta bakoitzak, profetak salatzen duen bezala, eme urkolagunarekin nahi zituen basakeriak

1 *Basagizon* “salvage” hitz kalkatua da, uritarrek *basokoa* gutxiesten duela. Ama aitortu gabe, *Ptah* aitatzat dutenak direla, ots aita>abata mendekoak, ez asko txarrago, eta amak milikatu gabeak. (Ikus 55 or.)

egin, eta halatan ere “asabek jandako garratzen orskera dugu” (Jer 31,29) erantzunez garbitu nahiko lukete burua.

5. 1. *Lamien kontrako borroka*

Giza irudimena den arinak nahiko du irrikaren batek berotzea, buruan lama bereziak sortarazteko. Lama “berotasun, eguzki diztira” da eta lamiak halako burutaldiek sortu begitantzino muntroxkak² (Ikus 85, 87 or.) Zerutar arketipoak elkarrekin ezkontzeak ondorio ona dakarkio hitzari, hala *Ama+Aita>Maite*, *Ama+Erra>Mari* konponketak, baina, zerua lurrarekin lotzeak ezbaiko ondorioak, hala *Ama+Loi/Lue* ariketak *mala* edo *lamia* itzuleztara eta hareago, *Ama+Lur* lotzen baditugu, *malura* izango dugu. *Lahmu/Lahamu* ziran Tiamaten lehen alaba gaitzetsiak ere³ eta *ama/eme* kontrako ezagunik den lehenengo erasoan Tiamat munstro sortzaitletzat salatua izan zan. (Ikus 49 or.)

Lami kontuan euskaldungoa ez da izan bere kulturakide diren europear beste herriak baino beroagoa, baina oroitzei begira, besteak baino erantziago gorde ahal du *lami/lamin* hitza, euskara lagun. Ipuinetatik ezagutzen ditugu lamien askazia eta haien ohi-turak: emeak ziran, gizonezkoekin harremanak izan eta umeak ere izaten omen zituzten, baina ezkontzea debekauta zutelarik, etab. Gizonezkoekin borrokak izaten zituzten: “Lamiek batzutan gizonezkoak baitzen omen zituzten eta lezoira egotsi, bestetan gizonezkoak omen ziran lamien baitzaile. Azken baten, eskerrak erlijiozko arrenen bidez-eta ermitak jasoez, gizonak aihenatu omen zituzten lamiak, nahiz eta beste batzuren ustez, Eibarren sortu suiskiluen eraginez ahienatuak izan zirela uste izan⁴.

Gizonezkoekin izandako borrokak ama mende osteko azken zarraparrak dirudite. Beste hainbeste dakusgu Grezian amazonen eta gizonen arteko burruketan. Amazonak ere *Kolkidan*, ots, Osin

2 Iduripen berak *lamiak* ikusten ditu *Lamiako*, *Lamiaran*, etab. tokizenetan, eta *Umola/Olamia>Lamia* berezko eratorria baino ez da, *ume>mia* “txiki” adierazten. (F ZUBIAGA, *Origen del Vascuence*, or. 88)

3 *Enuma elish*, III, 31-33

4 J. M. BARADIARAN, *Mitologia Vasca*, p. 86, nota.



Xorroxin ur jauzia Baztan erreka-
ren sorgua, lamia tokia omen. Batzuk
lamiaren adatza dakuse bertan, beste-
ak, izena gidari, Oxineko txorroa edo
Txorrotako oxina>Xorroxin. (Ikus
Miel Otxin 53 or.) Oxin "butzu" tokia-
ren zador misterioetsua, uraren argi
distirak, ikuskizuna eta esamesak:
"Jaune, lamina bat ikusi dot errekan. -
-Ikusi egin dokala? Dagoenik ez dok
sinistu behar, baina ez dagoenik ere
dok esan behar. Aitu dok?"

itxaso *golkoan* ama mendeko gendea bizi omen zan, gende barba-
roa, nonbait ⁵. Burruka haietan gizonezkoak urten omen ziran
garaile, eta gerkarrek euren nausitasuna goraltzeko amarruzko
ipuinak asmatu zituzten, andrazkoak menpe eukiteko aitzakitatz.

Laminen eta amazonen arteko borrokan ohar zehaztasunok: a) emakuzmezko jende arraroa edo helgea ziran, b) euren burrukak gizonezkoekin ziren, ohiek arma egokiagoez erasoten zizkiela, c) haien kontrako burruka zurikatu ahal izateko, lamiak eta amazoenak satanizatuak izan ziran, Mardukek Tiamat egin zuan bezala.

5. 2. Sorginen kontrako eraso

Aldi bateko Elizak eragotzita zeukan sorginengan sinistea. Horduko-
koa da nonbait "Dagoenik ez sinistu eta ez dagoenik ez esan" ahol-
kua edo parekide dena: "Creer non creo, pero haberlas hailas".
Antxina sortegilea epaitzeko bildurrez epai ordelea jartzen zuten ⁶.

5 Ba diteke *ama+zona*<*ama+dona* "ama+andre" eratorrtzea. *Medea* bera Kolkida aldeko, Urartu mugakoa, izan bai-zan. Urartiarrek "Jainkoari" *Inu* deitzen zioten, euskarak Ama Jainkoaren semeari deitzen zion bezala.

6 "Norbaitek norbaiti sorginkeria egozten badio frogarik gabe, sorginkeriaz salatua jainko-ibaira jaurtia izan bedi. Jainko-ibaiak irensten badu, salataileak har dezake beretzat haren etxea. Jainko-ibaiak haren erugabetasuna frogaten badu, oster, eta libre gelditu, sorginkeriaz salatu duenak biziaz ordaindu beza, eta salatuak bere etxea gorde" (euskaratua gurea). (*Las Leyes de Hammurabi*, 2, DB. n^o 15) Cf: Hortik *ordele*>*ordalla*.

Biblian ez dago errukirik halakoekin: "Sortegilea ez duzu bizirik utsiko" (Urt 22, 18). *Sorgin/sorciere*⁷ "sortegin" esan nahi du, sorte ona bada, ez du arazorik izango, baina begizkoaz-edo kalte egin diola norbaitek uste izanez gero, orduan sortzen da *bruja* "maléfica" deabruzkoa salatzea⁷.


Elizak berak ere asierako dotrina aztuta, Inozentio VIII-k sorgin deabrutuen kontrako mixioa aldarrikatu zuan. Hori dela-ta, Alemanian *Malleus Maleficarum* "emakume gaizkileen mailua" idazkia edatu zuten 1486 urtean eleiz gizonak, gaupasak, aker antzeko deabruekin harremanak, etab. salatzen zizkietela. Europa guztian zabaldu eta berreun urtetan sorgin ehizan ekin zioten.

Uste zuten emakumea izatez den ahulaz, Eba bezala, gizona baino aisago jausten zela deabruaren amarruetan, Liburu Santuak eta teologoek ere ohartzen zuten bezala, eta emakumeen atxiloketa eta erruak aitortzeko torturatzea (Ikus or. 89) edo gezur agintzari erakargarriak egitea silegizat ematen zuten.

Emakumea ama eta inude denez gero, izadiarekin batuago dihardu eta sorginei antxinako jainkosen arteziak egozten zizkien: bizi berria erraieran sortzeko ahalmena du eta materia prestatzen dio, belarkiak ezagutu eta haien sumuaz osakuntzak egiteko trebezia du, beraz lurkoiagoa omen zan, beste barik. Hortik satanizatzeraz pauso bat baino ez zegoen eta halatan Satanas, gaueko jeinua omen zan belaginen bileretan adoratzen zutena eta haien artezia, berriz, begizkoak, abortoak, erailketak, etab. egiteko erabilten omen zuten. Orobat, zoriona hemen lurtean bilatzen omen zuten, bizitza eratsuaz geroko zerua irabazi beharrean⁸.

7 *Bruxa*>*bruja*< "buru utz" formatik dator, burua deabruak janda, haren agindura zegoela uste bai-zan. Sorginen auzian gaztelaniak "bruja" eta "Akelarre" izenak erruz erabili zituan, orain "zulo" eta "kale borroka" bezala.

8 Ikusten denez, aburu erratuaz ebaratzen zuten auzian, ona eta txarra jainko ez berdinaren menpe bailegozan, onak Jainkorako eta txarrak Deabrutarako. Frantzian Albi aldeko *kataro* "garbiak" manikeo xamarrak omen ziran, Onaren eta Gaizkiaren hastapenak bereizten zituzten: Ona argiaren eta Espirituaren alderdikoa zan eta Gaitza gauaren eta Materiarena, Kristo eta Antikristoa esatea bezala, eta kristauak berez ezin mendera zezaken Gaiztoa, Gaiztoa bera bai-zan gaiztaginaren errudun norberagan.



Irudia eta irudimena elkartzen direnean, handiagoak izan daitezke irudikizunak: lamiak, maitagarriak, sorginak, etab. Ikaburu, Urdazubiko koban halako estalagmitak irudimena astintzen dute handik labantzen den Urtxuma errekaostoren murmuri- an. Handik Zugarramurdiko kobatarra pauso gutxi dago. Inkisizioak inguru aretan egin zituan sorgin ikerketako osterak.

Euskal Herrian ez zekiten sorginen berri, Burdeosko Lancre epailaria agertu eta 1609 urtean epaiketa baten Larburdiko ehun sorgin erre zituen arte. Orduan iratzartu ziran Espaniako inkisidoreak ere eta Frantziako mugan ikerketan hasi ziran. Zugarramurdi eta inguruko kobak arakatu zituzten (Ikus 87 or.). Pulpitotik sorginen kontra hitz egin zuten eta lapikoa irakiten hasi orduko, auzo erdia sorgin mindu agertu zan. Nahiko ziran umeen bartko amets gaiztoak aintzat hartzea, gurasoak ere sorgindu antzemateko. Logroñoko hiru inkisidoretariko bik euren buru egiten zuenaren kontra zeuden, bera ere sorgindu jotzen bai-zuten, sorginkeriaz salatu eta espetxeratuak askatu nahi zituelako. Izan ere, nola ihardun zezaken sorginkeria aitortu zutenen alde, bera ere gaiso beraz kutsatuta egon ezik?

Salazar inkisidore buruak Nafarro Gohienean herriz herri egin zuan galdeketa eta ez zuan idoro deabru arrastorik. Ez omen zan sorginik agertu ere egin, haiek herriaren ahotan mintzagai izan zireño, ots, umeek dotrinan entzunekoak amets gaiztotan nastatu eta gero beldurraz “egia” aitortu zuten arte. Hagaitik auzia aipatu ere ez egiteko gomendatu zuan. Haraz gero, herraietaraino sartua zegoen dardarizua baretzen joan omen zan. Hiru urte barru, sinistagarri ere ez zen bezalako mamukeria garbitu zan eta, eskerrak Salazar inkisidore buruari, atzendua izan zan auzia.

5. 3. Emakumeen kontrako bereizketak

Emakumeak nahiko frogatu du ez dela lamia, ez lamina edo ilamia, ez sorgin askaziko inor eta Ama Jainko kulturako gizona ezokak funtsean emakumearen duintasuna ezagutu dute, ba dakite jendaje bereko eme eta ar direna. Argi dago eme duintasunari harriak jaurti nahi dizkienek ere, aldiz aurretik ipuinez edo sasi jakinduriez haren duintasuna behar bezala ahalgaitz direla haren antzeko mamua lege gizonen orratzez ziztatzeko. Oraingo zientziak, lamiak eta sorgin *buru utzak*>*bruxak* ukatu egiten ditu, beraz ohargabeak iruzur egin die gizatasun heldugabeke gendei.

Gauzak horrela ikusita, Mary Daly ekofeministaren ustez, emakumea ez da libre izango, harik eta gizonaren menpetik jaregin izan arte. Berdinkiro esan ditekete, ez garela aurrerizietatik libratuko, edo ama mendeko seme-alaben askatasuna lortzeko gei izango, aita mendetar den Biblia irakurketa moldatu ezik, emakume eta gizonen artean bereizketarik egiten ez duen Ebanjelioko espiritua eskuratu eta Jainkoari *Ama/Aba* deitzeko esku-bidea lortu arte. (Ga 4, 6).

Aurreritziaren makurra gizarteko harremanak bihurtzeraino heldu da, gizon eta emakumearen arteko bereizketak, aldi bateko bozketan, gaurko lanean edo herri gidaritzan eta biharko eleiz arduratan. "Emakumeen historiak etena izan du, baina oraindino bil genitzake apurtuen ondakinak eta benetako txanda baten hazikin bihurtu, ez emakumeentzat bakarrik, baita ere gizartearentzat eta lurarentzat" dino aipatu autoreak⁹.

"Errua aita mendeari egotzi arren, ez du eskatzen antxinako ama mendera itzulterik, eskubideak lortzeko" dino Mary Dalyk. Joanak joan, baina dagoena dago eta ohargabe bizi duguna argitaratzea osasun bidea da. Ama Jainkoa bilatzea ere zilegi da, bada, bere irudira sortu gintuen *Ama.Aita*>*maitea* bizi da eta bera adoratzea, maitasuna dena bera besarkatu, ulertu eta aitortzea ere bada. Armonia hori bilatu eta indarrean jartzeak dakarke emakume eta gizonen arteko berdintasuna gizarteko harre-



Inozenzio VIII Aita Santuak sorgin "gaizkileen" kontrako erabagia edatu zuan 1484 urtean. Haraz gero *Malleus Maleficarum* "eme gaizkileen mailua" liburua argitaratu zan eta Inkizizioa "sorgin" bila hasi zan Europa guztian. Hona fraide inkisidore bi emakumea salatzen. Borre-roak indarrez edo auspolariaren su zemaz behartuko dute gajoa salatzailen burutazioak aitortzera: "Deabrua aske dabilelako seinale", bidegabeko juzotik jakina. Lezoira doa "Auto de Fe" epai egunera arte.

monetan. Gure Ama Jainkoa soila denarren, harekiko gure ideak bere alderdiak dauzka, ar eta eme egin bai-gintuen, eta Hagan bat egiteko bidea erakusten bai-digu.

5. 4. Emakumeen kontrako erasoak

Emakuneen aurkako indarkeria aita mendeko gizartean ematen den gaitza da, ikusi dugunez. Maltzurkeriaz ziria sartu zion Ama mendeari, Babilonian eta Greziako filosofuek gizon ganorak goralditu zituzten eta emakumeak, erru gabe, erruduntzakoena jasan ditu gizaldietan. Legeak zenbaitetan lagundu eta, agiriko erasoak dezagertu ziran eta herria geroz eta gehiago jabetu da halako bidegabekeriāz. Baina izkutuan zauri batek irau du familia barruan. Salatu ere egin izan du herri jakinduriak: "Gizon txarraren andriak astian bi bariko" eta emakumeak alogura irabasten hasi direnetik aipatu dira senar-emazteen arteko erasoketak ere aztertzen. Gizarte maila guztietakoak omen dira. Basa gizonak, nonbait, arriskuan dakus, osterā ere, dagozkion ohore eta eskubideak. Kalteginetan batzuk sikologia mailakoak omen dira: meatxuak, irainak, lotsarazte, sendi edo gizarte baztergoa bultzatzen dutenak, etab. Beste batzuk soinkera zehatzen dute: sexu bortxaketak, marrukeria, bildurra, diru mozketak, HIESA/SIDA kutsuketak, etab.

Kaltegileak emakumea menpekoa duela uste du, hareago, bere

zerbait dela eta harekin nahi duena egin dezakela eta, indarra eta sikelogia erabiliaz, ha menderatzen ahalegintzen da, haren jaregin ahaleginak itoaz, eta haren nortasuna bera ezeztatuz. Halako burruka baten ondorea, ahulenaren herriotza izan daiteke.

Berdintasun legea baztertu egiten du, heziketaren aurreritxiez baliatzen dela: "Gizonezkoa gehiago da emakumea baino, bera da etxean jaun eta jabe". Ez dauka andre izenaren idearik ere, behin aita mendeko matxismoak oratu duenean. Halako eritxikeriaz indarkeria zuritu nahi lukete. Ama Jainkoaren berririk xumeena balute, agian, haren alaba ohoratu egingo lukete, zauritu beharrez.

Harrigariena zera da; tratu txarrak eman zaleak ez direla buruko gaitzez-edo jotakoak, salbuespenen bat izan ezik. Halakoa ez da zoro, gaizkile baizik, eta gizarteak jada onartuta duen jarrera eta portakeraren erausle. Egiten duen kaltearen jabe da eta bere jokerraren erantzule. Hala ere, aurreritzien ustekeriak dago: "emakumea da betekizun batzuetarako eta gizonezkoa besteetarako", "gizonen zeregina gara handiagokoa da emakumeena baino", "emakumea gizonaren pentsudan dago", "gizonak trabenara, andrak elizara", esakeretan ikusten denez. Gaizkileak halako ustekeriez garbitzen du gero emakumeari ematen dion tratu txarra.

Ustekoko nausitasuna bizi dutenen ohargabea eskolatzea ez da erreza. Horretan etxeokak eta auzokoak, Elizako eta Herriko arduradunak batera jo behar dute. Argi aditzen eman emakumearen kontrako indarkeriarik ez dela onartuko inondik ere.

5. 5. Aukera berdinak denontzat

"Aukera berdinak" aldarrikatzea da gizonen eta emakumeen arteko auzi ebazpenaren hasiera. Legearen aurrean dagoneko berdinak gara, gizonezko eta emakumezkoen arteko eskubideak mundu guztiko agiritan agertzen direnez eta juzodunak aitortzen dutenez. Gizon eta emakumeen arteko edozein bereizketa ezezten du Nazioarteak 1979-ko Abenduan hartu zuen erabaki honek. Eskubide berdinak, ikasketa berdinak, lanbide berean alogura berdina, eta, sexua dela-ta, ezelako bereizketarik gabe. Guzti hori jasotzen du legeak eta onartzen eta urgazten aginteak. Teorian ez dago akatzik,



Ama Jainkoak alaba bere antzera egin zuan eta gauardaino Ama Jainkoaren alabak ikusteak bakarrik goraldtu egiten dute Ama Jainkoaren edertasuna. Ikuskizun horretaraino heltzeke dagoen gizonezkoak ez du egozi beragan dagoen ohargabea eta espirituairen hegadarako ez gauza da. Emakumea bere lanean lagundu beharrez, haren arpegia itxurgatzen duena bere buruaren kontra dihardu, arimaren espilu izan daitekena, bere gaiztakeriaren beakulu gertatzen baitzaio. Hala ere, emakume askok Kristo zehaturen antza dauka soinean eta arpegian.

baina praktikan bai eragozpenik: ohiturak, arazo lehentasunak, esparruak, toki sakratuak, etab. Ikasketa berdina bientzako gizar-tearentzat ondore egokia lekarketen ere ikusteko dago.

Azken hamarkadetan heziketa eskolatua uste izan da neska mutikoentzat aukera berdinen oinarri, han hartu argiak bakoitzari geroztiko garapena lortzen lagunduko dielakotan. Baina lanaren ekonomiak langile aukeratuak bilatzen ditu eta, nonbait, ez dira denak denerako gauza eta, beraz, sexua bereizten da lanean ere.

Emakume izakera eta biologiari begira etxeko arazoa, seme-alaben heziketa izan da emakumeen aukera berezia. Mary Mellor feministaren ustez, emakumea izadi eta biologiaz baino harago inguruneko ekologiak lotuago ikusten du, gizar-tearekiko eta izadiarekikoak horrela hobeki bete dezakelakotan. Bestalde, gizadia izadi barruan dagoenarren, elkarrengandik banatuta bizi dira, bata bestearekin zerikusirik ezpailuen. Kultura eta gizar-tea, alegia, bizitza arruntatik aldentuta bizi direla eta zientziak eta eza-gupide bereziak baztertu egin dutela herri jakinduria arrunta.

Eskubideen berdintasuna erabagiz hartuta eta bidea iragarrita dagoenarren, ibiliz-ibili egin behar da bidea, emakumea bera aurreren doala eta borondate oneko gizonezkoak lagun dituela. Bide berriak benetan emakumearentzat, familia ardurak alde batera utzi gabe, aita mendeko gizar-tean plaza andre debuta-tzean. *Ama-Ata* maitearen matoa berreskuratzeke bide luzea

dauka oraindino eta ez estrepozu eta eragozpen gabea.

Argi dago emakumeak ba duela zer gehitu gaurko gizartearen heziketan, beste langintza askotan, bere emakume izakerari iruzur egin gabe: Ama Jainkoagan ere, emazte eta ama arazoak ezin besteko emakumearenak direlako.

Dena den, emakume askapenak ate asko ideki ditu egunotan, nahiz eta arriskuak ere hor egon: izaditik ate, genetika aztatzea, jaiotzen aukerari hesia jartzea, krisi garaiko langabezia, seme-alabekiko hurbiltasuna, etab.

5. 6. Bizi eskubidea denontzat

Aita mendeko jainkoen lehen iraultzak halako amarruz eta indarraz ama mendea aulkitik eratzu zuan; arteziaren buruz ama gabeko bizia sor zezaketela uste izan zuten. (Ikus III kap.) Bigarren iraultzak genetika dela edo ekonomiaren plangintza dela-ta, soinean edo amatasunean emakumeari erasoten dio: edozelan ere amatasunaren aintza gutxietzi edo ekoizpenak ekortgarri direlako aipatuz. Emakumea eta bera den ur biziaren utxa berapenetan jartzen du: amagoa amakatuz. Lehenengo iraultza, majiarekin batera, zorotzak eman zan, ama erraien ordezkorik ez delako sortu, baina bigarren iraultza zientzia eta teknologia berrien lamaz jantzita dator eta inork deitzerik ere nahi ez duen herio kultura edatzen du ezdelakoan ere, eta, dagoeneko, lege batzuk bere alde ditu, amatasuna sarigai barik, zehatugarri-edo bailitzan.

Ètxeko jaira datozenei etxeko atea iztea nabarkeria da berez, beste askok kanpokoei ere zabaltzen dizkien aldi honetan, baina jainko berrien argibideak eta etika dira nausi eta explotazioa lege. Nonbait ez dago denentzako tokirik bizitzako mahaian eta gehigarri direnei atea ertzitzea erabakitzen da. Argi aldarrikatzen dute “gerrarik ez”, “armen merkaturik ez”, “herio epairik ez”, “andre kontrako erasorik ez” baina galga ezorduan atejoka datozenei eta aurdunei kimiaz erantzun. Harrigarria! Izadiko legera inork ez du ekortzen, izadia biziaren alde dagoelako, baina giza jakintza berriak gizabide berria baliogarri hauteman nahi du. Horrela bakoitzak bere jainkoak aukeratzen ditu eta nahitara erabaki, “nik neurea dut

bizitza, "neure gorputzaren jabe naiz", "neuk ebasten dut ona eta txarra zer zaidan" eta azken baten "Jainko haina izango zarete" (Has 33,5) ziria onartzen da, emakumearen kontrako lehen iraultzan bezala, ama erraien mikrokosmoari egiten zaion erasoan amaren bizi muina galtzen da eta Ama Jainkoaren Kosmo Handiari egiten zaion ekologia aurkako explotazioaren izpilu gertatzen da, kosmo orokorra Ama Jainkoaren erraia bezela bai-da.

Neure eskuetan dagoenari, jainkorik ez bailegon, uko egingo, baina besteen arazo direnen alde edo kontra aldarrikatuko dugu, jainkoarren. Politikan zilegi ez diren gerrak, herailketak, gosetek eta erasoak urruinatuko ditugu, baina nik legea eta etika alde izango ditut festako nere gomituak aukeratzean.

Ama Jainkoa maitasuna da eta maitasunik ezean, ez dago jainkorik, ez eta benetako jairik, norbere kontzientziaren kartzela baino. Maitasunak denontako bizi eskubidea aldarrikatzen du, norkeriak nahikeriaz aukeratzen du, ostera. Lehen "emakumeak eta umeak lehenengo" esaten zan edozein arriskutako salbamen ekintzan. Oraingo Erio kulturaren, ostera, "emakumea ala umea" ez baitan jartzen dira, bataren alderdia bestearen kontra doalaketan, baina funtsean biak gutxiesten direlarik. Genetikak, zientziak ala amaren erraiak dute izan bizi jakinduriaren sena?

Lehen ere aita mendeko jainkoek amarrua aukeratu zuten ama mendea ahultzearren, guda eta odol ixurketa bakearen aurka, hagaitik ziran jainko armatuen gurtzaileak, euren egarri bakararak ama seme-alaben odola bailitzan. Ama ereduko jainkoak ba du zeresanik auzi honetan. Jainkoa bera da ohore eta duintasun, baina sorkarien adimenak ere ezagutu eta aldarrika dezake haren armonia ta edertasuna, haren soinekoez jansten badira.

Norbere gainetik ama-aitatasunik ezagutzen ez duenak itxumustuan erabakiko du asarre auzian eta hitzak berak ere ez dio *ama+aita>maita>maitasunera* deituko edo argibiderik emango eta ohargabeen *aita+ama tematzero* erabagiko du, herriak hizkuntzagino oreto duenari oharririk egin gabe eta ama mendeko bizi kultura, herio kulturaren egotziz.

ONDORENA

Jainkoa maitasuna da (Jon 4, 16) eta amak erakusten digu hondoen goitar ereduaren arpegia, ama bai-da Ama Jainkoaren irudia lurrean. Izatez maitasuna denak maitasunetik egin eta erakusten du dena: maitasunean sortzaile, maitasunean handi eta maitasunean delako ahalguztidun. Ama Jainko eredu hau zero makotik ezabatzeak ahalge uzten du ama arazoa lurrean eta kalte handia egiten die ama-umeen nortasun eta eskubideei, goi arketipoak beheko tipoari egiten dion babes hain gabe ustean. Ezinbestekoa da, gatatik, gure zeruak Ama Jainko eredia berreskuratzea.

Ama Jainko ereduak amatasuna izan du aintzat eta biziaren alde jokatu du. Amatasuna gutxien duen kulturak burrukak eta odol ixurketak ekarri ditu berekin eta emakumeagan beragan ezbaiak sortu ditu: zer egin erraietako bizi berriarekin? Haurra onartu ala egoxtu eztabaidatuz, ots, bizi lana amaitu ala amakatu? Ohartzekoa da "*amatu/amakatu*" hizkunea elkarren aurkako jarrera dela.

Hala ere, ezin liezaio inork inori odolera inoko maitasun frogarik eskatu. Maitasunak izadi beraren askatasun eta oldeaz ekiten dio bizi lanari. Ama Jainkoak ez du beretzako sakrifiziorik eskatzen, halako oldez bere lankide izatera gonbidatzen gaitu, ostera. Nahi dut, nahi dugu esatean, izadiak eskutik garoaz eta familiako suhurtzia eta elkarkideen eskua errespetatzea eskatzen digu, ekologia ekonomiarekin bat etor daitezen eta maitasuna zuzen denarekin.

Ekologia eragile bikotxaren mende dago ordea: makinaren indarra alde batetik eta gizakiaren burubidea betetik. Biak elkartzean, ahalak eta harrokeriak bat egin dezakete gaitzerako, ez bai-dute ezagutzen izadiaren ardurako beste nausigorik eta, halako itxukeriaz lurra menderatu ezeze, antzutzeko arriskua dute.

Emakumearen aurkako indarkeriak elkarkideen armonia apurtu ezeze, Ama Jainkoaren arpegia munduan itxurgatu egiten du, berarekiko harremana astandu eta gizarteko ekologia galdu araziz, familia hondatu eta azkenik, erasolearen duintasuna jan, norbere buruaz bestea egitera bultzatzeraino, hatan ere.

VI. EKOLOGIA ETA ESPIRITUA

Lurrean edozein autore bere artelanetatik zagutzen dugun bezala, Jaun zerukoa ezagutu ahal izateko, bere sorkariak ikustea dagokigu. Sentzunen oharpenetik ate ezagutgarria balitzaigu Jainkoa, ez zuan egingo mundua, Eckart maisuak esan bezala. Jainkoak bere beteko arteziaz egin zuan mundua eta gizakia, berriz, bere irudiko gizon eta emakume (Has 1,27), beraz, Jainkoaren seme-alaben antzeratik ezagutzea eman izan zaigu ots, nortasun ezberdinok elkarrenganako duten maite tirriatik. Bakoitzak bere ikuspuntutik epaitzen dugunez, ez da berdina gizonezkoaren eta emakumearen oharpena, eta Jainkoari buruz ari garenean, ba daiteke batakararen irudia ematea eta besteak aitarena edo eta ohargabeen bakoitzak barnean *animus* eta *anima* trukatuak izatea.

Ama Jainkoa aitorten badugu, lurreko amen kalitateak dira haren antza ematen digutenak eta analogia hori dugu ezagupide. Horrela, ama mendean Jainkoa amatzat edo Ama-Aita maitetzat ezagutu eta, euskara lekuko, gure asabek ohoratu zuten arketipo egin ohargabeen izatea. Nonbait albotik amarruz etorritako aita meneko kulturaz osa dezake, agian, Jainko ikuskizuna, baina ez gainbeheraka, antropologia guztia irauliaz.

Aita meneko kulturak eta harek bultzatu filosofia ama bizi materialaren sortzaile soiltzat hauteman izan du oraintzu arte. Orain emakumeak espirituzko bizia ere ba duela onartzen da, beraz, soin ta muin, amatasuna gizaki osoaren sortzaile denez, lurreko ezeez, ba duela zeruko gauzez aske mintzatzeko argitasunik. Emakumeen bizikisuna eta aburuak gizarteko eztabaida aberaztera eta argitzera datoz, eta ezin daiteke erabaki familiako arazoa amaren aholku gabe edo gizartekoa emakumeen onurik gabe, bera izanik hitzaren lehen lekuko eta bizi erakusle.

Elizamak emakumeen orduari abegi ona egin nahi dio: "Heldu da jadanik" emakumeek gizartean gaurdaino izan ez duten eginki-

1 *Kontzilioak emakumeei egin mezua*, abenduak 8, 1965: AAS 58,19 66 13-14: "orain arte izan ez duen eragina" dino testoa, baina "orain arte" >

zun sakona somatzen den une honetan, Ebangelio espirituz inutu emakumeek gizakiari, desbide eror ez dedin, hainbat lagundu diezaiokeen ordua." Amak lagundu behar umeari, deslai ez dadin, jakina. Elizako gurasoak emakumearen arazoez arduratzen dira eta emakume eta gizonezkoen duintasuna ezagutzeko, antropologian eta teologian sakondu behar dela dinoe, halatan bakarrik ezagutu baidateke emakumeari gizarlean eta Elizan berez dagokion arazoa.


Harago, Espiritu Santuaren bitartez guztioi Jainko maitasuna ixuri ba zaigu (Erom 5, 5), maitasuna elkarbanatzeko ditugun baliabideak dira lehentasuna dutenak. Gauza honela ikusita, emakumearen balioa, hala nola familian, nortasun berezikoa da gizarlean ere. Auzi honen argigarri garai honetan izan diren piura batzuk aurkezten ditugu zati honetan.

6. 1. Emakumea irakasle

Heziketa lana amatasun senak berez ematen dion dohaia du emakumeak. Horrezaz gainera, irakasleen gehiengoa dagoneko emakumea dela ohartuz, argi dago heziketa lana bizibiderik egokiena, ez bakarra, berea duela. Tratu gozoa eta abegikorra du umekin eta umeak amarekin baizen gustora egoten dira halako andereño edo katekista baten gidaritzapean. Saritu edo dohanik egiten duen heziketa lana maitasunez egiten du eta kartillak berez duen zurruntasuna emakumeak barnetik duen espirituarekin beratu egiten du, amak elikadurak mamurtzen dituen bezala.

Katekista bera ez da ohiartzun huts eta kartilako argibideetatik hara doa eta teologa izateko bokazioa du, Jainkoaz mintzatzeko alegia, espiritudunak Espiritu dena hobeki ezagutzen bai-du. Hagatik mistikoen esperientzian oinarritzen da emakumeen teologia, Elizako beste maisuen autoridadean baino gehiago. Oso argigarri da honetan Simone Weil filosofak esaten duena: "Trentoko dotrina irakurtean, halako dogma bildumadun erlijioarekin zeri-kusirik ez dudalako daukat, baina Ebangelioa eta mistikoak irakurtean, edo liturgizuna edo meza gozatzean, oster, berarizko

> barik, "eliz gizonak agintzen dutenetik hona" ere esan zezaken.



Barne begiez ikusten dugu Jainkoa. Nola-koak diren gure barne begiak halakoa izango da gure Jainko ikuskizuna. Jainkoa Epaleari ikusten badugu, gu legeari begira, bildur espirituaren mendeko eta morroi izango gara. Jainkoa Ama-aitatzat badugu, ostera, maitasun espirituak seme-alaben askatasuna emango digu. Ez du espiritu berdinak morroiak eta seme-alabak ez gizarteko harremanetan, ez Jainkoarekikoetan. Aldi batetik hona gure Jainko ikuskizuna aldatzen doa. Legea eta zigorra baino gehiago aipatzen dugu Jainko maitasuna eta haren ondoan gainerakoa umekeriatzat jotzen dugu. Heldu egin al da gure goi ikuskizuna?

ziurtasunez hori bai dela ohartzen dut, edo hobeki esan, hori izan daitekela, ene utsak nere fedeari, egiten dion geriza kenduez gero”².

Izan ere, aldi bateko teologoien dotrinak ez digu azaltzen Ebanjelioko Jesusen Aba/Aita eta halatan, zer sinistu, baino arduratsua da nola jardun gizarteko arazo bizien aurrean eta bere kasa Nazaretoko Jesusi jarraiki, pobreen eta baztertuen alderdia aukeratzea, Simone Weil-ek bezala. (Ikus 101 or.)

Elizak aita mendeko jakintsuen eredia jarraitzen du eta gainerakoa gutxiesteko jokera du, feministek salatzen duten lez, eta Ebangelioko testu baten aurrean eme sentikerak ere baliagarriak dira Jainkoaren arpegia argitasun osoagoz ezagutu ahal izateko. Beste aldera begira egon ohi diren eleiz gizonak ere, sinisgarritasuna galtzean, Ama Teresarena bezalako jarraibidea onartzen dakite eta beste hainbeste milaka emakume misiolariaren lana. Teologiazko liburu potolorik ez, baina bai Jainko sena espainetatik hatzamar puntetara, esana ekinaz lantzeraino dihardutenen exenplua.

6. 2. Emakumea teologari

Emakumeak, adibidez, Jainkoaren giza sorkuntza azaltzean, ez

² SIMONE WEIL, *Erlijosio bati egin gutuna*. Horrela hasten da Jean Couturier dominikoari 1942-ko irailean idazten zion gutuna.

luke bere kasa Adamen sahietza aipatuko, latin ez zekian Magdeburgoko Mektildis XIII-ko emakumeak bezela ikusiko luke, ostera. Monja honek Jainko nortasunak elkarren arteko elkarrizketan ohartzen ditu: “Neuk ere atsegin handia gozaten dut maitasunaren betean -dino Aitak-. Uhaldu gaitzean, seme-alabei emanen diegun maitasuna eurak geuri itzultzean, gure aintza ezagutu dezaten. Emaztea idurituko dut neregan, bere ahoz agur egingo dit eta haren edertasunak zaurituko nau”³.

Hala ere, Jainkoa espiritua denez gero, sexu akatza dago Rosemary Ruether-en gardiz, irudigileek Jainkoa gizonezko aurkeztean edo kristauek Jainkoari “Aita” deitzean. Hori idolatria da salatzen du, irudia eta hitza bateratsu bai-doaz. Zelan itzuri analogiaren mugak? *Era/Bera* deitu Jainkori, aipatu autoreak proposatzen duten bezala? *Ama.Ata* erlijiodunek *Ama+aita>maite* mintzatu zuten, ama mendeak ez zuelako baztertu “Aita” nortasuna, aita mendeak “Ama” erraiak eta haren izatasuna astandu zuen bezala. Baztergo horrek adierazten duen “sexokeria” salatzearainoko laztura sortzen dio Rosmaryri. Ba daki gehien bat hizkuntza arazoa dena, Aita dinonak Ama ere esan beharko lukena, gure asabek ohi bezala, edo euskarak *Ama.Aita>maite*, tankeraz osatu zuena eta gauzei ta ideei, aldiz, sexua ukatzean⁵.

Antropologia honek ederto baten ihesten du Adamen sorrerarikiko ipuin baldarra, egokiago eta zuzenago bai-da Jainkoak gu amestu gintuen erataro guk bera amestu eta geuretara kondatzea

3 MECTILDIS, *Gottesminne*, (Elisabeth REINHARDT, *La antropologia de Mectildis*, ww) Herriko hizkuntzan, aleman zaharrean, idatzi zuan, hagatik *Gottesminne* horren esnaiak, *minne* alegia, ezbaikor omen dira gaurkoen belarrientzat, euskararentzat, ostera, ezbai gabe, *Jainko mina* esan nahi du.

4 Aita mendeko jainkoengana ere argi agertzen zan aita/ama jainko bikotea, nahiz ohore guztia aitatiar izan, baina semitar jokeraz, juduek eta islamiarrek, espiritu utsa agertzearen, ama arketipoa baztertu egin zuten, maitasun berean biak bateratu beharrean, baina maitasuna ez da izan eguno *berezien>fareseen>fariseoen* espiritua, itxura baino.

5 Benetako sexismoa *ur, su, aire, loi* elementuei sexua jartzean datza, jatorrizko hizkuntza baztertu eta hizkuntza klasikoan sorkuntza berria onartu zutenei gerta ohi zaien bezala, eta orain ez dakite zer egin zenbait>



Mixiolaria lanean ari dela, hemen, Asian edo Afrikan, emakumea izaten du bere lankiderik onena Ebangelioa txertatze orduan: Berri-ona, espiritua, jakinkima, gertutasuna, ausardia, dohantasuna, otoitz eta kanturako lehia, katekesiako azalpenak fede heziketan. Emakumea aukerakoa da Ama Eliza bizia egiten bai-du

eta, beraz, gure izakeraren amatasunari berea ematea, mitoetako ipuinetan izkutatu gabe.

Esana du Naomi Goldeberg andreak, emakumeen teologia sarradak arpegia aldatuko diola judeguen eta kristauen erlijioari. Ez dakit noraino aldatu dezaketen, baina aldaketa bat mereziko du. Alde batetik, Yawe “Aita Jainko” bezala, eta bestetik, Kristok hari egiten dion jarraipenak sexu alderdikeria adierazten bai-du Biblian. Baina Jesusek Jainkoari *Aba* ere deitzen dio eta hor hizkuntza edo hizkera ezberdinen aukera dago⁶. Jesusen antzera, Kyrios taldeak *Aba-Padre* deitzen dio Jainkoari euren kantuetan, edozein liturgizunean euskarak *Ama-Aita* deitu liezaioken bezala. Eta herri liturgiak urratu behar luke *maite* bide hori gaur

>-a/-o akaperekin. Euskararen Jainko izenak, adibidez, ez du sexurik, izen propioaz Ama Jainkoa, Aita Jainkoa erataria izan ezik, familiako nortasunei bezala eta horrek bai sortzen duela ardurazko lotura *egin dun/egin duk* bereizketa argian. Feminista guztiak euskera ikasi beharko lukete, euskararen jokerratik Ama Jainkoaren ganora ezagutu ahal izateko.

6 *Aba* izena sexu bietara idekia da euskarazko konposizioan, hala *neba/arreba*. *Yawe* forma ere, *xa+aba/xabe/jabe* da euskaraz, *aS/Xa* santutasun seinua aurrizki duela, eta *jabego* soila adieraten du, ama zein aita direlako *xabe>jabe*. *Jau/Jaum*⁽⁶⁾ Jainkoei eman tituloa zan Akaden (XX gizaldian K.a.) (“Yahveh” (IV) *Antigüedad*, D.B., 2056 or.), harekiko “ene Jaun eta Jabe” aitormenean bezala. *Abba/Bau* jainkesa izena dager Sumerren, autore batzuk *Ama* ere irakurten dutela, eta *apa* bezala “izeba, amona, arreba nausia eta osaba” deitzeko ume ahotsak izan dira gurean ere.

ko teologian, Ivonne Gebara teologariak arrazoiz Elizari egiten dion salapena ekidintzeko ezpada ere: “Emetasun barik ez dago Jainkorik zeruan. Emakumeek ez dira zeruan exeri ahal izateko gei edo aingeruak oinetan eukitzeko duin. Gizonezko Jainko arpegiaz nahikotu beharko dute, historiaz eta izatez euren nortasun gutxiengotua amor emanez, ez bai-da eurengan egonlekua zeruan merezi duen Jainko antzik”⁷. Mingarria da benetan halako mindurika eta ez emakume sentikerarako bakarrik, gizakia den Jainko irudia bien duintasunean oinarritzen delako baizik, eta ekologia bien armonian osatzen delako, eta ez bata bestearen menepean edukiz.

Simone Weil-ek sorkarien sorkuntzan bilatzen du Jainkoa. Bera nor den baino hareago berarekikoa bilatzen du, nola berarekin topo egin: “Jainkoak bere burua izkutatuz bakarrik sor zezaken, bestela ez zan Bera baino beste ezer ikusiko munduan. Sinistea edo Jainko bilaketa ez dagokio gizakiari. Jainko ez denari uko egitea bakarrik du nahiko, ukatze hori berez ez dela sinistea”. Eta beste une baten: “Mundua sortzean, Jainkoa aldendu egin zan, gero eskeko antzean, behartzu eta ahul agertzeko”⁸. Jainkoagan pentzatzea, beraz, bere ahienatzean eta isiltasunean pentzatzea da. Halabaina Jainkoa eten gabe gizakiei deika dihar-du eta bere argi izpiak noizbehinka munduko iluntasuna zulatuz, norkeriaz utzik eta antziz begira dagoena ukitzen du”.

6. 3. Emakumea Jainko iragarle

Emakumea elizan gutxietsia izan denarren, bere barne bizikerak espiritualitatez aberastu izan du eliza, euren idazti apaletan agertzen den bezala. Espirituak, izan ere, nahiago izaten du ikasi bako-en mintzoaz komunikatzea. Erdi Harotik aurrera emakumeek mo-

7 Ivonne GEBARA ekofeminista eta erlijiosa da, Elizari barrutik lagundu nahi dio, emakume pobreen alde ahalegin gehiago egin dezan. Bere liburuetan *Teología a ritmo de mujer*, *El rostro oculto del mal*, etab.

8 Horretariko berria dager Filemon eta Bauzis senar-emazte pobreen mitoan. Behin Jainkoa agertu omen zitzaien ostatu bila ibiltari antzean. Bauzis emazteak sua biztu omen zuan eta janaria prestatu zion. Jainkoak abegi onaren ordeten haien etxe pobrea santutegi bihurtu omen zuan.



Simone Weil filosofian eta teologian aditua Espirituaren zurrumurruei adikor bizi izan zan. Bere saioetariko bat *"Jainko begira"* titulatzen da, haren deiari eta begiradari so bizi bai-zan bizitza guztian, Ebangelioa eta Nazareteko Jesusen argibidea izan zuan artean. "Honetan da kristau izatearen meritoa -inoan- nekearen emendioa barik, nekeari balorea ematean". Bera gizarteko nekeen partekide bizi zan langileriarekin, gudak zapaldu eta baztertuekin eta elizan partale izaterik ez zutenekin, gazterik hiltzeraino. "Halakoxea da gizakien zoria. Gainean dagozanek ez dute ezer sentitzen; behean egoteak sentiarazten du gizartean zer jazoten den. Behekoen ondoan jartzen ez bazara, batek ez daki haien sentikide izaten".

nastegietan babes ohoratua izan zuten euren barne lehiotik ikusiak kontau ahal izateko edo soinean duten sentikera emea eta esperientziak sinbolo materialetan oinarrituriko hizkeraz emateko. Hanartean teologari ikasiak, latinaz baliatuz, eta halako arrandiz, liburu potoloak egiten zituzten. Biblia eta gizonezko eleiz gurasoak ziran euren ereduak, emakumeok, ostera, maiz elizak ixiltzera behartuak izaten ziran. Hala ere, espirituak ez du hesirik eta Jainkoa sentitzen dutenek bakarrik iragar dezakete Jainko izkutuaren arpegia. Fedea armatzat hartzen denean, emakumeak ere hesiak apurtzeko beste indar du, komentuko harmarritik Apostoluaren (2 Kor 10.4) hitza bere egiten duten monxaen antzera: "Gure burruka armak ez dira haragizkoak, gotortegiak erausteko lain diren Jainko indarrekoak baino".⁹

Ama Jainko ereduak hobeto adierazten du bizi dugun teonomia. Izan ere, emakumea, amatu denez gero, ez da aldentzen bere seme-alabengandik eta bizi guztian familia batzen ekiten dio. Hala lurrean bizi garenok ez gara Ama Jainkoagandik alden-duta bizi, bera hodeietan galduta bai-legon eta gu herbeste hone-

9 Lekeitioko dominiketan latinez harritura dagoz hitzok, baina harrizko hormen gainetik barneko sendotasuna aitortzen dute.

tan baztertu. Ama erraiek ez lukete holakorik jasango. Gizakia-gandik hurrundu bizi den Jainkoa ez da ulergarria, ez maitagarria. Bai, ostera, geugan geu baino barneratugo bizi dena. Eleizak, gizarte bezala, misteriook siniskai egiten ditu, baina siniskaia ulerbidean nastuxe gelditzen da, bizitzan gorputzik hartzen ez duenean, ez kidetzarik aurkitzen bihotzean.

Jainkoaz ari garenean analogikoki hitz egiten dugu beti ere, gure sortzailea nolabait guraso bailitzan, geure ama eta aita ezagutzen ditugun eratan. Gizakiak bere nortasuna erantzten dio Jainkoari, baina analogia hori egitean, sobera aitatasuna aipatzen du Elizak, Jainkoa gizonezkoa bailitzan. "Jainkoa gizonezkoa bada, gizona da Jainkoa" dino Mary Daly-k eta non gelditzen da orduan emakumea?" Eta analogiaz ari garela, Jainkoa ama ezpada, nola daiteke gizakien sortzaile izan eta seme-alaben hurbilean bizi, familiako bihotza izanik? Jakina ama-atta gurasoen analogia erabilia ere, ez dena osatzen zeharo Jainko nortasuna, baina Jainkoa ez doa gizadiko lege eta eskutiko ereduaren aurka, edo eta giza logika soila sahiestera, bera ere lege pean, eta emakumeagandik, hain zuzen, gizatu izan bai-zan (Gal 4, 4) bere sendia ikustatzera etorri zenean.

Jainkoak mundua zazpi egunean egin zuela irakurten da, baina zazpi hori zenbaki kriptikoa da eta aldien osotasuna adierazten du, Jainkoak eten gabe aurrera bai-daroa hasierako sorkuntza. Ama batek ez du zapi egunean, ez zapi ilebean umatzen umea. Amaren erraiak hazi nimitotik gizaki osora daraman epeak espezien eboluzioa bezalako jarraipena biltzen du beregan. Amak umea jaio eta gero ere urteetan eta bizitza osoan gertutik jaraitzen die bere umeei. Ala Jainkoak gizakia sortu eta bere kasa bertanbehera utziko ote zuan? Amak ez luke holakorik egingo. Ama batek Jainkoaren jarraipena eta hubiltasuna adieraten du, Jainkoa sorkuntzan bere ordezkari sortu duen ama baino gutxiago ez delako.

6. 4. Emakumea bakegile

Erromako Martirologioak Jesusen jaioteguna izentatzean, Tiberio Augustok mundua bakean jarri zueneko garaia aipatzen du. Enperadoreak edo Jainko harmatuen edo *pax romana* horren



Ama Teresa, Jesus Nazaretekoaren jarraile dager eta Ama Jainkoaren arduradun, biziaren aldeko lurrean. "Ekarri neuri ezezten dituzuen umeak, neuk jasoko ditut" esan zuan onun egin zuen hitzaldian. Bake Nobela jaso zuan 1979-an pobreziaren aurka egin ahaleginagatik. Indian mixioa zuelarik, mundu guztian egin zuan argi, bere iharduna eredutzat, fedearen sinistagarri onartu zuela Elizak.

gurtzaileek ohore egin ote zioten Jesus "Bakearen Printze" deituari? ¹⁰ Ez, Nazareteko Jesus munduko bake ustela sendatzera zetorren (Jon 14, 27), bakerik ez zegoelako, hain zuzen. Une haretan Maria eta Jose, erromatarrei petxak ordaintzen zizkien arteko pobreetarikoak, izan ziran benetako bakegileak, Jesus umeari maitasunez etxean eta bihotzean toki egin ziotelako.

Ama mendea bizitzari begira dago eta familia heziketan dihardu gertutik, amaren amatigoari bai-dagokio etxeko eta auzokoen arteko eztabaida ongien amainatzea. Aita mendea, ostera, eukien jabegoa ugaltzeari, eta jauntasunaren arduratan burrukatzen da bere arazoak burutzen ekiten dio. Amaren amainoa seme-alaben arteko bake egilea da, Mariren aginduak taldearen onerako iragarriak izan bai-ziran, Ama Jainkoak bere izena eta ohorea iragarri ere egin barik, Jainko Sortzailea ohoratzen zuten gizartean "ez ostu, ez gezurrik esan, ez erail, ez harrotu, eman hitza bete, zaharrak dedutan izan eta elkar lagundu" marrak markatu barik. (Ikus. 31 or.) Augustok bezala, garaipenari begira dihardutenek,

10 TACITO historigileak hobeto deskribatuko zuan "pax romana" hori piktari mendekaitzaren ahotik: "Aufferre, trucidare, rapere falsis nominibus imperium; atque, ubi solitudinem faciunt, pacem appellant" (*De vita et moribus Iulii Agricola*) dinonean. Izan ere, "pace"<bake/bage irakurten da, ots, ka "gaia", baina -ka "eza" ba "baita=arima" bage=gabe ezabatu gelditzen baizan herriaren soina erromatarren txikizio ostein.

ostera, Mariren marra guztiak markatzera joten dute garaipenaren izenean, burruka handietan ere bizitza ume jokutzat harturik “kendu, erail, eta izen faltsoez bazterrak ostu” aipatu testean Tacitok salatzen duen bezala.

Bihotzez ama edo aita denak, berriz, laster uzten ditu ume jokuak, ardura guztiaz familiari eta auzoari dagokiolako. Ama Teresari (Ikus 103 or.) mixiolaritzan ere karidadean ihardun zuenari, Bake Nobel Saria eman zioten, behartsuei prestatu zien laguntzogatik, eukien arrapakeriak gizarteko bakea arriskuan jartzen zuelako. Izan ere, gosetuak ez du bakerik, eta hareago asetuak ezarduratsen direnean. Bere jokabideak gizarteko arduradunen markak lotsarazten zituan eta ez FAOKo jendea bakarrik. Elizak ere, ausaz, Santuen mailara jasoko du, egin zuen ongiagatik edo eman zuen Nazarete-ko Jesusen aitortzogatik. Ama Teresaren gardiz, “ederra da maitasunaren poza elkarbanatzea. Bizitzak ez du zentzurik besteen serbitzarako ez bada. Maitasunak ezin du norbere kautan egon. Ez litzake benetakoa. Maitasunak ekintzan eta elkarren serbitzuan jartzen gaitu. Elkarri begira bizitzaren ezpada, ez du bizitzak merezi”. Hori esan eta egin Ama Jainkoaren espirituko alabak edo semeak bakarrik egin zezaken.

Badago egunotan, monja mixiolaria izan gabe ere, lagun-urkoari egin ongiagatik zinerako meritogarri den emakumerik, Irena Sandler poloniarra, Europako azken gudateko eroesa bikaina, den bezala. Gizonezkoak, militar gangarraz oilartu eta garaipen bila, tiroz erasoka, gendea atxilotzen eta hilten ziharduten artean, gaizozain apal batek 2.200 juduar ume salbatu zituan Alemaniako nazien esku odolduetatik, armen kontra biziaren aldeko sena eta halako ausardia erakutziz. (Ikus 105 or.)

Argi dago gizonezko askok *ama-aita*>*maite* jatorria aztuta, *tema*>*dema* eroi apostuari ekiten diotela, arketipoak irauliz¹¹.

11 Hala dino DESMOND MORRIS autoreak ere “*Bai, hobeki biziko gina-ke, emakumeak gobernari izanez gero*” idazkian. “Gizonezkoek arriskua maite dute, apustu denetan buru urtetzearen. Emakumeek hobeto gobernatuko omen lukete, genetikaz zuhurragoak direlako, beregan eta inguruan dauden bizien ardura hartzen dakitelako”.



Irena Sendler, "Varsobiako aingerua", nazien erasotik judegu umeak babesten: 2.200 ume atera zituan hango Getotik. "Nire ahaleginaren zergaitia argi daukat: Beharrezanean dagoenari, bere erlijioari edo arrazari begitu gabe, bihotzez lagundu behar zitziolako neukan sinistez. Nazien erasoak eta 29 urteko gaisozainaren ausardiak merezi zuan halako argazkiaren lekukotza.

Eroi izatea jokutzat hartzea arriskutsua da eta, zuhurtzirik ezean, edo gizadiaganako maitasunik gabe jakotuez gero, kalte handiak ekarten dizkio gizarteari, *eroi/ero* gertatzen dela, euskal hizkuneak ohartzen digun bezala.

Familia gizartearen hasikina da eta, familian bertan bezala, gizarteko erakundetan ere emakumeak maina hobez gobernatuko lukete. Ez lirake Iretargira joan asmoetan galduko edo Marteko altxorrekin irrikatuko, baina bizi dugun izadiak edo kalearekin harreman maitakorragoz eta kutsadura barik biziko ginake. Irina Sendler kristau arrunta zan, aita medikua eta bere jokabide eta oharretatik ikasi zuan kideei laguntzen, azalari, erlijioari, edo

politikaz nor bakoitzaren hubil-hurrundeari begiratu gabe. *Eroi/ero* bat bizi zan aldi berean Europa guztia hankapean hartu gurarik eta eguno filma batek ez litzuzken jasoko neska harek banakabanaka hainbeste ume Hitler eroaren hatzaparretatik eskuratzeko.

Alemaniak ezeze, Europa guztiak larrutik ordaindu behar izan zuan eroi/eroaren gaiztakeria. Eroi/ero eta *ero/Erio* jakinduriak ama mendeko hizkuntzaren ikaskizunak dira eta guzti hori ohargabe orokorretik askatu ahal izateko, ona da euskaren lekukotasuna eta Kristo aurretiko herrien espiritua Kristo osteko Espirituarekin bat datorrela aitortzen bai-digu. Espiritu horren jarraile izateak bizira garoaz eta haren baztergoak, aldiz, heriotzera.

6. 5. *Arra, eroi eta eraile*

Hizkuntza "mito bizia" da Jung-en gardiz, eta euskara hareago, bere erroen jarraipenak erakusten diguten bezala. *Erra* arketipoak *Erra/erre* dinosku, *Erra/errai*, Jainko mailan gertatzen delarik, eta giza mailara datorrenean *Erra>gerra* bihurtzen da¹². Egiptoko teologoek gizakien jokera bera opa diote *Erra* jainkoari. *Erra* errege zahartu zenean, bere semeak erreinuaren irrikaz aurre egin zioten eta *Errak*, iraz beterik, bere herria errausteko erabakia hartu zuan. *Hator* alabak orduan, *Sekemet* buru eginik, aitaren ohorearren, herioz eraso omen zuan herria. Halako sarraskiaren sarraskiaz Egipto odol ibaia zelarik, *Erraren* erraiak oroitu omen ziran eta, herriaz *errukiturik*, *erosi* egin omen zuan. *Erra* jainkoa *eroi* eta *erio* bihurtzen da, erabat onaren eta gaitzaren *eredu*, *Bera* dela *erru* eta *erruki*¹³, *Berak herio ordaina* eta

12 "Ra, de héroe arrostrado a macho asesino", F. ZUBIAGA, *Vascuence inconsciente colectivo*, 32 or. (Ikus hitzaren gizakundea 2^o laburgoan)

13 *Erra* jainkoak odol antzeko arnoz orditu egin behar omen izan zuan *Sekemet*, eraiketa eten zezan. (*Rescate de la humanidad de la destrucción*, ANET 10-11) Cf: Erraren mitoak *ordain/orden* hizkunea gogarazten digu. Erregeek ohi bezala, manupekoen arramantza ordeaz ordezkatzen dute eta "ordez egiten den zuzenbidea baino hoberik ez dago" iragarri ematen dakite eta horrela erreinuko ordena berreskuratzen. *Orde*, gehiengo kasuan, *ordena* dator. Erromatar enperioak ere hitzetik ortzera ekiten zion horretan eta *ordeu* "gari ale" neurrietan ordaindurazten.



Patrizia Troncoso mapucheak Valpaísoko Unibertitate Katolikoan ikasi zuan teologia. Mapuche herri heriaren askabidea eskatzekotan ehun eta hamabi eguneko gose greba egin zuan. Mapucheen herria desmilitarizatu izatea eskatzen du, Pinocheten garaiko arauak eta jarrerak irauten bai-dute oraindio Chileko indiar jatorrak isilik mantentzearren. Hori da militarismo matxistaren aurka eta herriaganako maitasunaz emakumeak agertzen duen adorea. Ahulduraren hiltzearen egon da neska eta ikustea baino ez dago nolakoa den estaduko polizien erruki gabeko hesia.

eros ordenua ematen, *Eros*⁽⁹⁾ bezala, erosi egiten bai-gaitu eta *Erru* eran *erorazio* eta *eriotu*. *Erraren* kontraesaneko jokerkak giza aiurria, eroiarena bederen, azaltzen digu euskal hiztegiak argitzen duen bezala. *Erraren* teologiako idea asko, Israeldik zehar, kristauen Jainko Aitaren ganorara ere igaro ziran, euretan Jainkoaren oldarra edo *errua*, hebraieraz ere *ruah*⁽⁹⁾ “arnase” edo *aire/ira* hizkuniketik datorken *erresumina*. (Ez 16,42)¹⁴.

Yaweh maiz erritozko zehaztasun xumeenakaitik asarretu egiten zan (1 Sam 6,19), *Erra* arketipoaren eratara *eratu/eritu* hizkuneran modatzen zela, eta haren *arrankura* “ardura, arreta” gaztelanian gaurdaino *rencor* edukinera gelditu da eta frantxesez *arrêt*⁽⁹⁾ “epai”, zenbait guraso aitaren pedagogia jarraitzen zuela. Halako Jainko ereduak eta ustez halako “Jainkoari eskerrak” erregetza edo agintea jaso zuten buruzagi mukerrek, katoliku buru eginik, giza haurtzaroko Jainko ahalguztidunak bezala ihardun izan dute gutxirengoen eskubideak hankapetu eta haien kulturak *arras errokatu* eta gendea heriotzaraino jasarriz.

14 Ikus “*Ira de Dios*”, DB., 909-10 or. Cf: Yaweh-ren irak Moises hiltzeko eraso zuanean, Sefora haren emazteak semea erdaindu zuan eta haren odolaz Moises kutsuturik, Jainkoa emarazi ahal izan zuan. (Urt 24-26)

Euskal herkide bezala, halako zigorrak narruan jasanak ez bagina, ez genituzke aintzat hartuko beste herri askoren aihenak. Chileko mapuche herriak, adibidez, Pinocheten garaiko kateak jasaten ditu gaurdaino: militarismo zakarrarena herri ezinduaren aurka eta mapucheak euren eskubideen alde mugitzen direneko, edozein protestagatik "antiterrorismo" legeaz jararritu eta lotu, zehatu, eta hilterainoko amorruaz etsiarazi. Hori egin nahi dute Patrizia Troncoso ikaslearekin ere (Ikus 107 or). Mapucheek euren lurra eskatzen dituzte, baina Bachelet andrea lurra ostu zituen gende aberatzari salduta dago eta nonbait nahiago du Patrizia isilian hiltzen uztea edo bere mediku kalitateak eraginda, gose greba tirabiran dagoen gaisoa zainbarruko elikaduraz bizirik mantentzea. Hiltzen utzi ote dezake emakumeak emakumea? Auzaz bai ladinoak mapucheak¹⁵. Ama Jainkoaren ereduak ez luke holakorik jasango. A. Goic gotzainaren aholkuz, "Chile herriaren ohorerako hobe da mapuche herria bizirik, hilda baino". Gotzain honen bitartekaritzari esker, Andre Bachelet lehendakariak bahiezkoa eman omen dio Patriziari, lurra jabe jatorrei itzuliak izango direla.

Militarismoa Jainko Trumoiaren seme denez (Mk 3,17), eroi eraila da, gizabidea eta gizatasuna azturik dituelako, eta emakume baten adorea gogarazi behar izan diote mapucheen herriak ere bere eskubideak dituela eta munduaren aurrean hori adierazteko gose grebaz heriotzarainoko apustua egin behar izan du. Herriaganako maitasunak zirt edo zart estrategiara bultzatu du Patrizia, "bat jausten da, hamar altxatuko dira" mapucheen lema berea eginik. Chileko bazterretik interneteko medioek, besteak beste, halako militarismoa salatzen dute Patriziaren bizi apustuari "legezko erailketa" deituz .

15 Espainiar enperioko ganora jarauntsi zuten Chileko militarrek ere Arauco (1881) "baketu" zutenean eta espainiar politikarien opinioa mutu geditzen da amerikar indigenekin egunotan gertatzen diren bidegabekerien aurrean, "no meneallo" ganoran kontuizu, aldi bateko kolonia izanek, kostala kosta armen gainera mantendu behar bailukete mapucheen eskubide eta kultura jatorraren gainera. Internet arma bikaina gertatzen da, hala ere, eta gaurdaino alderdikariarik gabe moldatzen dena, ezinduen salapiderako eta militarrek ezingo dute mapucheen alauria ixilazo.



Wangari Maathai, Ma.at Ama Jainkoaren mattoa eskuan irudi, baso ingurunea zaintzen du, "Zuhatz bat landatzean, gizakiak ere haren inguru mundua hobeki ornidu bizitzeko asmoa errotzen dut". "Munduan bakea urgaztea ere ingurunea zaintzeko dugun almenaren ondore da" -esan zuan Wangari Maathai Nobel Sariaz saritu zuan bazkunak- berak gizarte, ekonomi, kultura eta ekologia garapen irauna bultzatzen du Kenian eta Afrika guztian... Arazoa orokorki hartu eta tokian tokiko lana ondo egiten saiatzen da.

Arrazio/arrazoin "Erra jainkoari atsegin zaiona" esan nahi du¹⁶ Horixe bera egiten dute enperioek eta estatu orokorrek eta "estatu arrazio" deitzen diote "legezko bidegabekeria" horri. Ondo ezagutzen zuten jakinduriaren maisuak, Erraren lepotik faraoiaren jokabidea halako irakaskizunez zurutuz: "Erra herriarekin aserre denean, bere erregelak aztu egiten ditu. Erra herrialdearekin aserre denean, legezko eskubideak eten egiten ditu. Erra erresumarekin aserretzen denean, juzoa eteten du"¹⁷

6. 6. Emakumea ekologizale

Izadian erregarrien kutsaduraz egin dugun kalteagatik "arrisku gizartea" bizi dugu dagoneko, lurrak "bero larri, bero armin, bero larregia" jasaten duelarik. Emakumea, izaditik gertuago bizi dela eta umeen osasunaz arduraten delarik, bera izan da kalteaz lehen konturatzen eta bizi kalitatearen aldaketa salatzen. Emakumea izaditik hurrago dagoela esateak, hasierako sorkuntzatik ere

16 Equipo "Cahiers Evangile", *En las raíces de la sabiduría*, c.b, n^o 28, vd, Estella, 1980, p. 15.

17 *Las Instrucciones de Ank-sesonqi*, col. IV, final; col.V 2,3,5., BD n^o 10.

gertuago dagoela esan nahi du; bizitzatik gertuago, alegia, ez bakarrik ura, sua, airea eta lur elementuetatik hurrago bizi dela, bere oinak lurrean tentuaz oinarritzen dituela baino, amatasunaz bederen bizi berri bati tokia egiten dionean.

Ara ba, ongi izatea bilatzen gendun eta ezin ornitu energia eralgi dugu eta handiagoa da ondamena, gauzak bideratzeko eskolarik edo politika indarrrik ez dutenen herrietan. Horra, adibidez, Europako erredizen txukuntasuna Afrikako edo Asiako basoak muskiltzetik dator, multinazionalen lanaren ondore. Lehen basoan bizi zen etxeko andreak eskura zeukan egurra, orain kilometroak egin behar ditu sugarri billa. Zuraren ekoizpena dela-ta, horrela murriztu du handiak txikia, aberatsak pobrea.

Ekonomia zuzentasunean oinarritzeko, ostu duten tokian ordea landatu beharko zuten ekoizleak. Baina, zera, emakumeek arduratu behar izan dute. Entzutetsua da hatan ere, W. Maathai keniarraren ahalegina: basoak berlandatzeko asmoz "Gerriko Berdea Mogimendua" sortu zuan 1977-an eta Kenian bakarrik 10 milioi zuhaitz landatu ditu, lurraren igadura ekidin eta keniarr emakumeek sukalderako sugarria esku izan zezaten arduratu da.

W. Maathaik Demokrazia Eraberritzeko Foroan parte hartu zuan eta 1992-an, presoen aldeko gose greban poliziek zehatu egin zuten. Bere lana aintzat hartua izan da eta gorantzeko, maiz saritua, behin 1989 Munduko Emakumeek, 1991-an Goldman Ekologisten Fundazioak, Afrikako Nazio Elkarteak eta 2004-an, Petra Kelly Sariak jaso ditu. Nobel Saria hartu-berri zela, susmoak susmo, zera salatu zuan: "HIESA ez da afrikarren aurka Jainkoak bidaldu madarikazioa, Pentagonoko zientzilari bihotz bako batzuk afrikar herria ertutzeko asmatu duten baliabide gaiztoa baizik".

Alderantziz ezaguna da gizonezkoen jokera eta ez dedila izan gizona satanizatzearren, ezpaere denetan eta genozidioraino dena demarra jokatzeko duen irrika zehatzeko baino. Horrela "desarroiola izadiaren eta emakumearen aurkako tirabira gertatzen da -dino Vandana Shiva andreak ere- eta aita mendeko eskakizunetan du oinarria, aginteak, berdinketak eta erdiraketak bezala".

Desmond Norris, aipatu azterlariak, ere onela uste du: "Tribuen garaian gizonak ehizean ekiten zioten familia mantentzearren, eta eskubidea ama mendearena zan orduan. Gizartearen erdigunea sukhaldea zan eta hor emaztekiak agintzen zuten. Orain bestelaz da: ardatza ez dago sukaldean plazan baino eta plaza gaurdaino gizonezkoen dema tokia da. Hala ere, emakumeak orain, haurrak hezteko eskubidea galdu barik, etxean bertan lan egiteko duen aukeraz, etorkizunean gizartearen gunea berreskuratzeko zoria izan dezake".

Yvone Guevara andreak Egoamerikako ekofeminismoaz zera dino: "emakume pobreez arduratzen da eta Izadiaren txikizioaren bitima diren indiar emakumeez bederen"¹⁸. Aita mendeko Jainkoa urruinatzen du, menderatzaile delako eta kristau antropologia gizakia gorputz eta arima bitan, on eta txar bailira, banantzen duelako. Trazendentziaren suhurtzia dagoneko ez omen dago materia ezeztean, gure gainetik dagoen eta eskuko duen bizi misterioan murgiltzean baino. Idea bikaina da benetan, eta Teilhard de Chardin aburuekin bateratsu datorrena: "ederra bizi" edo izadiaren handitasunaz zoragarritu, harekikoak aintzat hartu. "Gizadiari bizia emateko eskuak lokatzetan zikindu zituan Jainkoa da eta ilunpean ebilen herria argitzeko, Palestinako bide hautseztotetan bideginen aritu zena".

"Kutsaduraren galpena ikustean, emakumeen teologiak Jainko guziegile den Ama Haundiaren errai orokorra bezala idurikatzeraren eraman gaitu. Aspaldiko susmo honek gizakiok elkarkide eta Ama beraren seme-alaba eta, beraz, neba-arreba sentitzera garamatza, izadiko errege izatera baino hareago. Eta izakien artean lehentasunik izatekotan txikienen ardura izatera behartzen gaitu eta "Kristorekin batera lurraren garapen aintzatzua lortzera", ots, materiaren aintzarako, bere sortzailearen eskura ematera.

18
nudo".

Yvone GUEVARA, "La naturaleza de la felicidad, El hombre des-

ONDOREA

Emakumeak txikien, behartzuen eta ezinduen aldeko jokera du eta gizarteko arlo guztietan egunetik egunera burutzen doala, bere egin-kizunaren erantzule zintzo agertzen da. Elizak ere eskerrak ematen ditu emakumeak historian zehar herri guztien serbitzuan erakutsi duen kemena dela-eta; eskerrak ematen dizkio Jainkoari Espirituaren egitez emakumeari ematen dizkion ahalmenakaitik, ots, fede, itxaropen eta maitasunean lortu dituen garapenekatik; eskerrak emaztekien santutasun frutuak direla-eta.

Era berean, Elizak behar bezala ezagutuak eta baloratuak izan dai-tezela eskatzen du, egunotako Elizaren eta gizartearen onerako beti-ko Jerusalemgo alabengan agertzen diren dohai estimagarriok, Espirituak hain ugari eman bai-dizkie. (1 Cor 12, 4...) "Elizak otoi egiten du emakume guztiak Biblian agertzen den emakume misterioa berriz ere aurki dezaten egiten zaien dei goitarrena bezala". (*Mulieris dignitatem*, 895) Biziaren sorlekua da maitasunaren gunea ere, bataki eta besteak ama dutela medio gizar-tean eta hor ere misterioa dago.

Harago, amaren izakera eta jarduerak Ama Jainkoaren irudia era-karten digu gogotara, haurraren amarekikoak ere gizaki ezinduen Jainkoarekikoak gogarazten dizkiguten bezala. Beraz, Jainkoaren arpegi bilaketan emakumearen aburuak ezinbestekoak dira.

Elizaren hitzak eta asmoak ederrak izanarren, ekintzak balda-rrak badira, Eliza Amari ere sinisgarritasuna falta dakioke, beraz hitzetik ortzera jo behar du emakumeei dagozkienetan.

Aita mendeko teologiak, mitoetako jainkoen ereduak jarraituz, *eroi/ero* hizkunaren araberrakoak izaten dira, halako jainko ere-duetatik, halako herrigizon eta elizgizon, direla zenbait apaiz, apezpiku, eleiz gidari edo sekularrak, "ez bai-dakite zeren espi-rituko diren." (Lk. 9,54-55)

Emakumeen eretxiak teologian eresi hauteman edo utz ema-tea, linguistikan euskara amaren lekukotasuna baztertzea bezala da, eta *eroi/erotara* jokatzeko dute gizonezkoen eskuetan dagoen erakunde askotxok gaurdaino.

VII. JAINKO AINTZAREN LEKUKO

Antza/aintza da hizkunez, batak bestea dakar guraso seme-alaben artean, beraz Ama Jainkoaren antzeko izateak haren aintzara amainatzen gaitu, egilearen *anze* "arte" handia hortan agertzen delako gugan ere, bere antzeko egin bai-gintuen (Has 1, 26-27) Ama Jainkoaren seme Anu/Inu "zeru" jainkoaren lehen sorkariak *anunna*^(s) "angeruak" ziran Sumerren eta *anunnaki*^(s) "angeru gizatuak" (Ikus 115 or.), *anunakene*^(s) euren arteko "enangeruak". *Anunnen* hurbiltasunak *Anu* Jainkoaren *antza* eta *aintza* iragarten du, ots, *anunziatu*. Marduk eta Tiamaten arteko burrukan *anunnaki* angeruek Tiamaten alde buru emateagaitik "deabru" *aneñ/ainanino* izatera zigortuak izan ziran, euskarak ere gomutan duenez. Mardukek "erratua" aitortuazi zien *anunnakiei*² eta penitentziz Esharrako eraikintza egitera behartu zituan. Urte betean arri-luak egiten ihardun zuten³. Euskaran *aña/anai* "arriba nausi eta neba" dira, *añe* "anai zaharrena" eta *añain* nortasun gonbaratua gelditzen da, sendiko ondarea ere zerutar sorkarion txanda bereetan izendatzen direlarik. Bide beretik *en*^(s) "abade nausia", *enda* "casta".

Amako "amaren antzeko alaba", *amagoi* "erregina", *magoa* bezain anzedun eta jakinduria handiko amasaba lez ohoratua herrian.

Medeatu "zuzendu, emendatu" dino, ots, gaitzen kontra *mediku* lana egin edo aldenduen artean erdigunea hartzen duelarik, aurkakoen ahiergoa *emetau/emetetu* egiten du. Ama bizitzaren emaile den bestean gaitzen *medeatzaile* da. Seme-alabak bere inguru metatzen dira eta hagatik bera da eskari eta mindurika guztien medeatzaile. Halatan esan ohi da Andre Mariaz ere Gra-

1 *Anuna koena>guena>goiena* dator eta *anunakene>anunakin* egiten du, tokizenetan *Ibarguen>Bargina>Bar'kin* bezala.

2 *Enuma elish*, VI, 20-24

3 *Enuma elish*, VI, 39-61 Cf: Horrela ikusten ditugu *aneñ/ainanino* deabruzko gure ipuinetan ere, eguzkiaren orduetaraino zubi eraikuntzako harriak lantzen. Bestalde, Mikel eta angeruen arteko burrukak ba du aurretiazko antzekorik pasarte honetan.

zien *Medeatzaile* dela, bere bitartez Jesus eta hagandiko mese-deak jaristen ditugulako.

Horrela *Amaidik* ere, *ama+utu* neskatxen *mediu* egiten du eta *medioan* dago, nerabeen ospakizunean, (Ikus 23 or.) Hiztegi honek Ama Jainkoaren arketipoak darabiltza eta ama mendeko jakinduriara gakaraz, izateak esatera bai-garoz eta ez alderantziz. Harremon hauek familiako armonia sortarazten dute, zeruko Jainko seme-alaben sendia ere lurreko sendiaren egiturara antolatzen bai-da, gizakiaren ulerbide eta hizkuntzan. Gure asaben erlijioan ama zan goiko indarren ararteko edo medeatzaile eta *etxandera* izan da garaiotaraino Jainkoaren eta etxatiarren arteko *santera*. (Ikus 25 or) Euskaratik hara santerak ere, santuak bezala, Jainkoarekiko medeatzaile herrikoiak dira. Medeatzailea eskerniatuagoa denean, *medium*⁴ deitzen zaio, batez ere lurrekoen eta gerizatuen arteko erre kardari egiten duenean.


Etxanderak etxeko zenduen eta Jainkoaren arteko medeatzailearena egin izan du, bera bai-da etxak etxera ekarri dituen eta bere eginkizuntzat hartzen du bereak Jainkoagana itzultzea ere. Egia da apaizak eskutik kendu ziola Elizaren eraginez, baina etxanderak ez du berean amore egiten eta elizkizunetan, gizonezkoak atzeko bankuetan geltzen zirelarik ere, emakumeek lehen postuak hartzen zituzten etxeko zenduen jarleku ondoan (Ikus 117 or) oraintsu arte gertatu izan den bezala⁴.

7. 1: *Amaidiren medioak*

Ama agintean ama ordekoa *amabia*⁵ "alkate" zan eta amaren eskutiko makilea zuan eskuetan. (Iku 21 or.) *Ama-Ata>Amaid/-*

⁴ *Jarleku*a deritzaio etxe bakoitzak bere zenduak ehorzteko elizan izaten zuen hilobi tokiari. Han jartzen ziran argizaiolak eta egiten ziran etxekoandreaen otoiak eta apaizaren erresponztoak. Lehenago etxean bertan egiten ziren ohikunak aldi batean elizara aldatuak izan ziran (J. M. BARANDIARAN, *Mitologia vasca*, 58-72 or.)

⁵ *Amabia* <*ama+ba*, arketipoei dagokienez, amaren ardura *Ba> baitan* hartzen duena da eta halatan, *mediku/meriku* ere gaisoak sendatzeko *Amaid/Mari* forma bikoitzen arartekoak dira *Ka* arketipoz gizatuak.



Anunnaki⁽⁶⁾ angeru gizatua Sumerreko mitografian. Hegadun dator eta errekadua idazkUNETAN dakarrela. Biluzik dago, angeruak ez bai-du ezeren lotsarik. Bere oinak hegaztiarenak dira, hegoak bezala. Aldi bateko euskal irudimenako lamiak ere hegazti oinak zituzten eta amak semea neskaren batek liluratu ikusten zuanean, "begitu ezaioK oinetara zetarikoa den jakiteko" ohartzen zion. *Ilu* semitar arketipora *Lillu* deitzen ziran eta hortik *lilura* eta euren erreginari *Lilitu* zeritzaion. Aldamenean dituen hegaztiak ere *enada/enara* mezulariak dira. *Inanna*, An-en alaba bera ere, mezulari antzo hegadun dager (Ikus 61 or) eta loretu jainko aintzaren lekuko bailitzan.

Maidi Jainkoaren eta haren etxekoen artekoa medeatzen zuena ere *amabia* zan onek zuzentzen bai zituen haien harremanak eta berak egiten *mediu/medium-tzat*, *Ama+Erra* arketipoek *meriu* egiten duten bezala. Aldien joanean erritoaren eskakizunez, medeatzailearen ardurak *aS* santu seinua hartu zuan eta nola andre tituloa, etxe santutegiaren izenean, *etxandere* eta handik *santerra* egin zen, hala *media* formari santutasun zehatz arketipoa aurrizki erantziaz⁶, *samedi* deitzea egokitu zitzaion hitzaren erritoan. *Samedi* forma ez da euskararen oroimeneko, berea *etxandera* > *santera* denez gero, baina, *samedi*, *sabat* bezala, akadiera-tik heldu zan hebraierara eta giza mendeko jokeraz nahiko iguindua dager, dagoneko *santera* bera ere, Ego Amerikan bereziki, izena salbu, afrikar erritoeKin nastatu delarik.

Mari izenetik *mera/meriu*, eta gaztelaniaz *merino*, norentas-

6 Egipton *aJ*⁽⁶⁾ espirituzko elementua *Ka* eta *Ba* hil ondoren bananduak berriz bateratzeko gei omen zan. Sumer herrian *ku.g* seinuak "santutasun arrunta" ordezkatzten zuan eta *zi.d*⁽⁶⁾ seinuak erritox lorturiko "santutasun txit zehatza". (RIES, J., "Sagrado-2. La expresión de lo sagrado en la religión sumero-babilónica", DR., o, c., p. 1577-1578)

na gehituz, ama mendetiko *amameru* mandatariak datoz, “alkate” izateko. Nolabaiteko erre kardaria da Sanpantzarren auzian parte hartzen duen *marika* deitu bikotea ere⁷ eta antzeko analogiaz txorietan *mariko* “kaio moko oria” eta *marigorri*, Jainkoari denbora ona eskatzeko “zoaz zerura eta esaiozu Jainkoari denpora ona egiteko” abestuz, atzamar puntetatik gora bidaltzen den mantagorri erre kardariaria.

“*Mariana* gonagorri” deitura ere aurrekoaren antzera erabili ohi da. Eta izen honek Santa *Marina* hermitetako santaren susmoa ematen digu, beste bide ezezagunik ezean, berarenganako jaiera Andre Mariarena baino lehenagokoa izaki, eta izenak berak ere *Mariana* Mari formaren norentasuna bai-dino.

Chaman edo *txaman*⁸ mundu zahar guztian agertzen da, jaiotzez jakintzaz berezidunak omen dira edo eskola berezian ikasiak. Euren zeregina izadiaren eta gizakiaren arteko armonia berreskuratzea edo gizaki beraren soinkera eta espirituaren arteko gaitzak sendatzea, ots, animako gaisoen osasuna, mendabelarrez-eta idukia. Mapuchez *machi* deitzen da *chamana* eta *machi* izan nahi duten gizonek edo emakumeek nahiko dute hatarako gogoia, ganora eta oztopo askori aurre egiteko adorea izatea. Izen honek *amatxi* gogoratzen digu, ots, bataioa bezalako ohikunetan ama ordezkatzan duen emakumea.

Txaman izenaren arketipo berek josten dute *manes*⁹ izena ere. Etxeko zenduen animak ziran eta, *laratzak* bezala, etxe zaindariok Jainko ordezkari ziran. Hagatik *etxeman/manes* forma bera da -*etxe* atzizki duela “etxe agindua eta etxek emana” adierazten⁹.

7 Marduken bigarren titulua ere *Marukka* da “denaren sortzaile eta Annunaki-en bihotzak poztu eta haien arimak baretzen dituen” azalten dela (*Enuma elish*, VI, 134)

8 Etimologoen ez dute asmatzen nundik datorren *chaman* hitza. Nonbait turkiar *şcha* “xakin/jakin” eta *şmán* “jakimen” berezia duena. *Man* “ahal, eskubide” formari jarraiki eta *men* “aginte, jabetasun, gogotsu” oharturik, hain jator eta jatorrago ere *etxa+man* “etxak (etxa gizarteak) duen *man* “eskubide, ahal edo emana” aztertu genezake.

9 Zuberoan *manex/menesina* deitzen diote beste euskaldunei eta >



Etxea etxeko zenduen antxinako hilobia izan zan, etxea toki santua bai-zan eta *etxanderea* bera zan hiletako ohikunak zuzentzen zituen *santera* eta bere ardurako zan etxeko sua zenduen argizaritzak iziotuta eukitea edo harentzak lehioartean mokauren bat uztea. Kristautasunarekin hiletan ohikuna elizara aldadu zan eta etxe bakoitzak etxeko zenduen *jarlekua* zeukan bertan. Etxera ezkontzen zen andre berriak jarleku horretan argizaria eta ogien opariak eskeintzean egiten zan etxe-koen zorikide (J. M. BARANDIARAN, *Mitologia vasca*, 58-72 or.) Ohikuna ohien medeatzailea etxeko andrea eta hagatik dator *etxandera>santera*. Berak joan ezin zuenean, *andere-serorak* ordezkatzten zuan. Hileta ohikunok *Ama-Ate* erlijioarekin bat datoz (Ikus 1.7. or) heriotza bigarren jaiotza zelako funtzean.

7. 2. Erraren arartekoak

Erra jainko nortasuna adierazten duen abere kutunetariko bat *aker* da, *Ka* materia seinua aurrizki jarririk ¹⁰. Jainkozko abere honek etxeko beste abereak gaitzetik zaintzeko emendioa omen zeukan eta hagatik baserritar askok *aker* bat gordetzen zuten ikuiluan ¹¹. Egipton *Aker Erra* jainkoaren abere kutuna zan, bere arketipoaren gizatasuna zenez gero, eta bere zeregina *Erraren* urten-sartuerak zaintzea bai mendiko atxetan, bai bere tenploko ateetan. *Aker* forma honi *aS* santutasun zehatzeko seinua ezarriez gero, *saker* forma dator eta *Sakara* Egiptoko lehen Piramidearen izena. *Saker*

>Balkarlosen *Manez* eguzkiari. "Adio Manez, haugi biar muga onez!" (SATRUSTEGI, *Euskera*, 1963, 274), iduzki jainkoa bera etxatiar egiten dutela.

¹⁰ Jainkozko forma giza arketipoak hartzen duenean, forma gizatua deritzaio, hala *Ar* jainkotiar forma *aker* bihurtzean, ots, gizakiak etxekotu abereak jainkozko aiurria hartzen duenean. (Ikus 119 or.)

¹¹ *Akelarre* eta *Akerbeltz* deabrutua eta emakumeei egin sorgin salapenak aipatu inkisidoreen irudimeneko izan ziran beste ezer baino gehiago, V kapituloan ikusi dugunez.

formak euskaraz “ontzi maisua” esateko gelditzen da eta, izan ere, *sakerrak* gidatzen zituan Nilo ibaian batetik bestera zenduen gorpuak. *Saker*>*sakara*>*sagara*>*sacra* dator erritoetako “gauza sakratuak” edo *sakara* “dohai” eta *sachra*⁽¹⁾ “*azucré*” adierazten, beraz hortik *sacerdote*⁽¹⁾ izena eta ofizioa ere¹².

Ekura>*ekur*⁽⁶⁾ “mendi santutegi” eta hango serbitzarien izenak *agure* “zahar”>*augur*⁽¹⁾ “eguraldiaren iragarle”, *kurio*⁽¹⁾/*kyriou*⁽⁹⁾ “*cura, guraso, jaun*”, *guru* “*anacoreta*” dira. Bere *kura*>*gura* Jainkoari *kur* eginez, *gurtu* eta *agur* egitea bere babespekoen izenean, eta *gura izan* “desiratu, maitatu”. Haren *ekurtea* abelgorriak *gorta/grota-n*⁽¹⁰⁾ *gorde* eta *ekuruan* zaintzea¹³.

Ekuratu santutegia menditik kalera ekarri zutenean, giza erai-kintza berriak erritozko santutasun seinua jaso zuan aurrizki eta *Zikuratu* deitu Sumerren eta *Sakara* Egipton.

Adapa/apata>*apaiz*, aita mendeko jainkoaren serbitzaria zan, *aipatu Ptah* jainkoa duela eredu (Ikus Ptah 55 or). *Adapa/Abata* aita arketipodun izena denarren, emakumeen monastegietan emakumeak ere kudeatu izan du gaurdaino titulu eta arazo hau¹⁴.

Forma honi *aS* santu seinua ezarriez gero, *Sabath/Zapatu* dator, gurean bezala, Akaden eta Biblian ezaguna dugun ohikuna *asabatu* edo *baxatu/pasatu* guztien oroitzapena¹⁵. Geure dira, ostera, *asaba/asama* (hala ugazaba/ugazama) edo *asabeaita/-asabeama* gure arbasoei deitzeko izenak.


Aba/apa giza arketipoari santutasun seinua gehituz, *xaube*> -

12 Euskaraz *abade*>*apaiz* esaten da “sacerdote”, gero ikusiko dugunez.

13 Horretan apartekoa izan dan Urkiolako San Antonioaren *ekurtza* “serbitza”. Abelgorri ondo *gordeez*>“*gordos*” esan ohi bai-da “San Antoniok *gor-deta*”. *Guru* “santu”, eguen *guru*, adibidez. Hortik *guren* “santuen” eta *kure-na/korona*, eta *crön*-lech mendi santutegiko “*korona harria*” bezala.

14 Las Huelgas monastegiko abadesiak aldi baten Burgosko gotzainaren gainetiko agintea omien zeukan bere monastegian, errege-alaba zelako, agian.

15 *Baxatu/pasatu* dator hizkunez, ots, lurrera *baxatuak*, gure arte-tik *pasatuak* ulertzen da eta halare uri berrian bizi direnekiko *batu*>*batza* egitea da, *Larunbata* “laratzen batza” den bezala. Lehen forma hau baino zaharragoa da eta biak ere, aipatu *manes* hitzak bezala, etxeko zenduen goraiztia ospatzeko bilkurak dira.



Ezkerrean: egitiar *saker* "sacerdote" eskuak gora otoitzean eta leoi larruaz jantzirik bera ere herriaren aldeko beste *aker*, santutasunez gizatua alegia, dela adierazten du. Eskuman: aker, leoi bikoitza elkarren osteka eta erdian Erra "iruzkiaren" ertetze edo orstea zaintzen. Hala zaintzen zuten Erraren tenploa ere. *Aker*>*saker* dator, bein *aS* santutasun seinua aurrizki ezarriez gero.

jaube/jabe formei bezala, ezarriz, *jaupari/jaupaleme* hitz berriak sortu ditu euskarak "sacerdote/sacerdotisa" esateko.

7. 3. Jainkoaren profetak

Nabi^(a) "profeta" izenak akadieraz amatar arketipoa du eta ezaguna dugu *amabi* "alkate" deiera euskaraz. *Nabi* eginkizuna Jainko asmoen iragarle izatea zan, *Inu/ino* hizkunea "Jainkoa aipa" den bezala. Jainko aburu aiphatze honek profeta hitza ere berezko konposizioz sortzen du. *Agure*>*guruak* gizakien berri ematen zion Jainkoari eta profetak, ostera, Jainkoaren asmoa iragarten gizakiei, betik gòrako mezuak goitik beherako erantzuna izan zezan.

Ariketa honetan Jainko Espirituak parte hartzen zuanez, emakumeei ere komunikatua izan zan Jainko hitza eta Itun Zahar eta Berrian aurkitzen dira profetisak. Jainko demokrazian ere, gizon eta emakueen ikuspegi biak bai-dira beharrezko. Feminismoaren iragarpen batzuk ere benetako profeziak dira, batez ere pobre eta baztertuen aldeko zuzenbidea aldarrikatzen duten ahotzak. "Azken egunetan gertatuko da, dino Jainkoak, nere Espiritua ixuriko dut gizaki guztien gainera eta zuen semeek eta alabek profetatuko dute; zuen gazteek ikuskizunak izango dituzte eta zuen *agure*-atsoak ametsak eta, era berean, egun haietan nere

Espiritua ixuriko dut nire morroien eta mirabeen gainera eta profetatuko dute. (Egin 2, 12-18)


Espiritua aske da eta berak aukeratzen ditu Jainko hitzaren aldarrikatzaileak, giza mailako beste aukeraketa eta agindu behar barik. Izan ere profetek ere profetagintzarako ordena berezia hartu behar balute, Jainko hitza barik, aukeratzailen hitza aipatzeko izango litzaken, Espirituari iruzur eginez. Kristau berrien taldean hasierako elizan emakume profetarik ba zegoen, hala Felipe apostoluaren lau alaba gazteak. (Egin 21, 9)

7. 4. *Umetzaroko Jainkoa.*

Kultura bakoitzak bere Jainko idea berezia izan du. "Umea nintzanean ume bezala pentzatzen nuan" (1Ko 13,11). Paleolitos garaia gizartearen umetzaroa izan zan eta orduko umeek Ama Handia zuan gogotan. Haien ahotzik ez da heldu gugana, baina guganaino heldu diren Jainko Amaren irudiak argi egiten digute hitz (Ikus 121 or). Marija Gimbutas andreak, arkeologiaz baliaturik, ondo aztertu du Europa zaharrean bihotzeraino zabaldu zen Ama Jainkoaganako jaiera eta aita mendeko kristau erlijioak ere ezin izan zuen/du atzindu jokera hau.

Seme-alaben ama zulo izate hori ez da ama bakoitzak seme-alabenganako duen eragina bakarrik, ezpaere, kulturen eta, euskara lekuko, hizkuntzako egituretaraino erritoz sartuta dagoen ohikun da eta, beraz, gizarteak ikasi duen jakinduria bizi izan dueñ ganora. Hona, bada, arkeologia eta arketipoen maisu zen Jung bat datozen *ama* leinuaren aldeko, biologia bezala, eta azken baten, hizkuntzaren ahozko lekukotasuna ¹⁶.

Hasiera baten, familia bezala, herria ere amaren eta amabiarren agintepean eratu eta hazi zela dirudi, gizonetzkoak, ehizan edo arrantzan arazoturik, ez zutelako beste astirik. Gure arrantza portuetan gaurdaino halako zerbait gertatu dela ere esaten da: "gizonak arrantzatzen duela bakailoa eta amandreak ebaitzen".



Ezkerrean: Paleolitos aldiko Willendorf-ko Ama Jainkoak ile kirruen artean ia begiak eta arpegia izkutatzen dizkigu. Guri, XXI gizaldiko seme-alaboi orain bere arpegia edertasun osoan agertzea dagokigu. Orduan Ama Handiaren mana eta mantenua zuten lehentasun, orain atxikitasuna, maitasuna. *Eskuman:* Tlatilco (Mexiko) Ama Jainkoaren (900 K.a.) irudi estilizatua: begiak triangeluz estalita eta idunekoa edergailuz.

Hala ere, Marija Gimbutas azterlariaren ustez, ama mendeak ez du esan nahi: amak berezko eskubidez agindu eta besteak men egitea baino ez zutela, denen berdintasuna onartzen zela baino eta berdintasun honek bakoitzaren alderik onena egozten zion gizarteari¹⁷. Tamala Marija Gimbutas amandreak euskararen lekukotasuna ez ezagutzea, bestela ekarri handiagoetara heldu zeiteken.

Dena den, gizarte maitakor hau desagertu egin zan, Gilgames erregeak mutilak plazara deitu eta bakoitzari arma bat eskuratu zionean; herri kulturak anartean inutu zituzten siniskariak eta mitoak gainbehera irauli bai-ziran orduan¹⁸. Gilgames eroiak Ishtar, maite jainkosa, emaztetzat ezetzi zuanean, Ama Jainkosaren txarma barregarri gelditu zan Uruk urian, jainkoen abere kutunak gainditu zituzten gizaki jainkotuek. Anu eta Enlil jainkoek gizarteko gauzak berera joaten eta aldatzen laga zuten, Shamash/Utu-ren zuzenbide oharrak utsean gelditzen zirelarik¹⁹.

> erretzen dituen enzima bat eta ama gunetik datorkigu bakoitzari.

17 *The Civilization of the Goddess* ("Jainkosaren zibilizazioa")

18 Hala gertatu zan Uruk urian ere Gilgames erregea agintzen hazi zenean (*Gilgames*, I, 1-129) eta hareago basoko izaiez jabetzearen, Humbaba "Basajauna" hil (V,II, 19-30) eta Ishtar jainkosa emaztetzat ezetzi zuanean (VI,I, 1-76) eta Enkidu ta bien artean Zeruko Zezena plazan eratxi zutenean (Ibi. 123-154)

19 *Gilgames*, VII, I, 1-19- Cf: Utu "iduzkiari" zuzenbia zegokion eta egunero bereak ikuskatzera jaisten zan lurrera. "Ez ete zuten zeure aginduz hil Zeruko Zezena eta Humaba? Eta Enkidu erugabea hiltea nahi duzu!" (Ibi, 10-15)

Historia aurrera doa eta gizakiak berriz ere bere gustoko jainkoak irudikatzen dituenean uneko igarleak "hil da Jainkoa" aldarrika dezake eta, kultura bat joan beste bat etorri, gizakien ganorra eta Jainkoaren arpegia aldatzen doa gure begiramenean. Igaroan aurkitzen da gaurkoen eta gerokoan erantzuna.

7. 5. Azaleko itxura eta arketipoa


Izan ere, itxura zerbait alda beharra izaten da, barneko gunak iraun dezan eta gune hori da hizkuntzaren arketipoak gordetzen duten testigutza alde batetik eta gizakiaren ohargabe orokorrean gelditzen den senak bestetik.

Platonen gardiz grekoek barbaroengandik hartu zituzten hitzak. XIX gizaldiko azterlariak, oster, joaneko ama mendea basatien kulturadunena zela uste zuten, zibilizazio gabeko gendeena, alegia eta eurak, kolonialismoko gudatan sartuta jadanik, guda orokorraren bezperetan puztuten ziran, eta barbaroen jainkoak kainoiekin trukatzeko zituzten, zeinek kainoi urtikariagoak euki ume apostu, egin zale bai-ziran eta kultura norkeriaz nastatzen zutela.

Antxinako asabek ere jainko berrien bila ibili ziran, Jainko izen berrien bila eta arteko jainko izen batzuk ahozkatzeko bildurrez eta dabekuz: "ez alperrik ahotan hartu Jainko izenik" (Urt 20,7) erabagia hartu bai zuten. Ezaguna dugu israeldarren jainkomina, baina lehenago ere sumeriarrek eta akadiarrek ere itxumustuan ibili ziran, behin Ama Jainkoaren gonetatik aldendu zirenean.

Sumerrek onartu egin behar izan zuan Enlil, jainko arrotz mukerra (Ikus 123 or.) akadiarrekin adizkidetzeko. Berari zegokion gizakien zoria. Eskuan dauzka jendea doilorki hiltzeko armak, ustez bere asmameneko arranbela eta gezia eta leoiaren arrazoa aldamenean. *An+Ilu* nastea den jainko hau semitar erataraz janzten da. Sumertarrek deabruzat zuten *Ilu* jainkoa, *ahala* beretzat eta *ahuleria* mendekoentzat erabaki zuelako²⁰.

Israldarrak ere aldi batez *Elohim* "Jainkoen Jainkoa/Jainkoena" izan zuten aintzat eta gero, izena aldatuz, *Yaweh* izene-



An, "zeru" jainko familia, babiloniar silu batetikoa (2.200 K.a) An-ek Enki bidaltzen du ki⁽⁶⁾ "lurrera" ur gozoak antolatzen, bere sorbaldatik ibai bi darizkio: Eufrate eta Tigri. Utu "iduskia", zerutik lurrera Zubi egin ostean, mendatetik ateratzen da, itaika bidea eginik. Bere ordezkari dira *utzean uzu*⁽⁶⁾ "*uxua*" eta *usan uddu.ha*⁽⁶⁾ "idia". *Inanna, An-en* alaba, ego loretzuz, bera den ur utxa>urruxa>orza aurkezten dio *Utu* nebari. aldamenean bizi zuhaitza duela. Lekutuena *Enlil* ordezkaria dago, *An+Ilu* arketipoez nastua, bere arrantza eta geziarekin, gizakien adu arduraduna, herioa, biziaren ondoan.

koa onartuz. Euskaldunek *Ino* gogoratzen eta ospatzen dugu *Inote* bezelako erritoan, ots, Amaren *nini/ume* "zerua". Urartiarrek ere *Inu* deitzen zioten Jainkoari eta urritek, berriz, *Eni*²¹. Euskaldunek fedea izan diote *Inu* Jainko Amaren semeari, nahiz eta hizkuntzaren hazkundean *In.ko* "zeru lur" eta geroago santutasun *aS* seinuaz *Xainko/Jainko* osatu eta gaurdaino aipatzen dugun, *aba>xabe/jabe* gertatzen den bezala. *Inu* izenak Ama Jainkoaren seme-alabak garelako usteak argitu zuan gure fedea.

Jainko arpegi batzuk aztu, beste batzuk onartu artean, hasierako argibideen sinboloak galtzen dira, eta hizkuntza zaharra barriren barri aztertu ezik-edo, ez nabari egiten dira. Atzerrian urte asko igaro dituen semeak noizbait amagana itzuli beharra izaten du, hanarteko etenen gainetik zubi egin eta erruak urtzeko gei diren maite erraiak idoro ahal izateko. Eta beste hainbeste gertatzen zaio gaurko gizarteari. "Dударик gabe eta zerbaiten arrazoiz, aldi hone-

21 LEBRUN R., "URARTU (religión de)", DR. 1794 or)

tan ba dago Jainkoaren eta gizakiaren artekoa ondo moldatzen ez dena, Jainkoa gaurko gizakiari agertzen zaion bezala. Esan daiteke gaur gizakiak ez duela zehatz begien aurrean berak gurtu nahiko luken Jainkoa²².

Hortik sortzen da ateismoa eta kristautuen deslaitzea. Bihotzera deitu ezik, ez da posible izango giza bakoitzaren ohargabeen dagoen seme-alabatzako sena esnaraztea. Orduan bai, negua uda bihurtuko da eta norbere baztergoa, maitasun armonia. Hagaitik Ama Jainkoaren lana oraindino umatzen doa gudan; ez du amaitu bere lana, bakoitzaren bizi epe osoa hartzen du horretarako.

7. 6. Jainko arpegi berria

Hasieran uina zan Ama Jainkoaren arpegia eta zero makoa, bere sinboloa, *Inu* bere seme eta gutariko bakoitza *Ni* kidetzen ginan beragan, ama-umen nortasunak arketipo berbereko aitortzen zirelarik, eta beraz, Ama Jainko arpegia geure egiten genuelarik. Gu Amagan bizi ginan (Eg 17, 28) izatez eta Amagan mugitzen ginan. Aita, iduzki arpegi, Amaren ingurura urbiltzen eta aldentzen ikusten genduen, harik eta Amarenean aitatu zaino. Orduan ezagutu gendun Jainkoaren beste arpegia eta *Ama+Atta>Maite* ahozkatzera ausartu ziren gure ezpain totelak eta usko-mediterranean kulturaren *Ama+Ata/Ma.at*^(e) erlijioan eta Haganako fedea jakinbideko eta maitasunezkoa izan zan, bera bai zan gure umatzea eta amaia.

Europak baitako ohargabetik iratzartea baino ez du Ama Jainkoa ezagutu ahal izateko, gudako jainkoen artetik ihes egin eta biziaren eta bizien Jainko (Luk 20, 27-38) den Ama Jainkoarekin topo egitea da-ta. Bera da, lurak bustin ataletan gordetzen duen segetua bezala, euskarak bere arketipoen egituretan mintzatu eta otoiztu duena, gure baitan eta izadi guztiaren bihotzean burua jaso gurarik dagoena (Errom 8,19). Itxasoko uinetan-edo bainua hartzen dugunean, urak haina, Ama Jainkoak ferekatzen eta garbitzen gaitu; eguzkia ondartzan-edo hartzen dugunean, Aita jainkoak laz-



Jainko, Ama den aldetik, ez du kanpotik sortu izadia, ezpaere izadiaz bertan dihardu egunero bizia ematen eta sorkuntza osatzen. Guk Jainkoa bere sorkuntzatik ezagutzen dugu, izpilutik begiratuta bezala, eta izadia aldatzen doan neurrian, ikusten dugu Jainkoaren arpegia ere. Beraz, izadia bezala, sortzailearen gure irudia ere osatuz doa. Era eratormen honetan lurtean amaren erraiak bilakatzen dira sorbideko adierazpide argienak. Jainkoa gugan eta gu Jainkoagan hobeki gertatzen da Ama Jainkoa aitortuz...

tantzen gaitu, edo biriak haizez pustutzen ditugunean, eskerrak Aire Jainkoari bizi arnasa dugula sentitzen bai-dugu eta Lurra pausoka ibili edo haren frutuetatik jaten dugunean, Jainko dohaiez elikatu garela antzematen dugu: Jainkoa gugan eta gu Jainkoagan.

Igaro gizaldiaren azken aldiko emakume urduriak mindurikaz aipatu behar izan zuten antxinako Ama Jainkoaren kultura eta aita mendeko iraultza salatu, bake kulturaren aurkako guda kultura salatu, bizi eta heriotz kulturen arteko aldea aditzen emateko. Bide gabeko iraultza horren erruz jasan izan dute gaurdaino emakumeek halako baztergoa: zeruan irauldu zutena lurtean irauldu zutena bera bultzatzearen izan bai-zan. *Anunnakien* artean ere zerbait halako gertatu omen zan, Mikel Enangeruaren iraultza ere lekuko (Apok 12,7-8), baina Jainkoa bera ez da giza ikuskizunen bidez oratu daiteken inor, eta umeen senera jo beharra dugu, Ama Jainkoaren arpegia ikusi ahal izateko. (Mat 18,2-4)

Inguratzen gaituen munduaren ezaguera ere bide ona dugu Jainkoaren arpegi berria bilatzeko, hatarako Jainkoak hainbeste sentzunez ornitu bai-gaitu, ikusi, entzun, usnatu, jastatu, arnastu ahal dezagun gure Jainko bizigarria. Maiz sentzunen kutzadurak ezeze, animakoek ere eragozten digute Jainkoa barne sentzuez sentitzea. Ekologia lantzeak asko lagundu diezaikigu Ama Jainkoagandik

sortu zero-lurrak adierazten dizkiguten misterioa ezagutzen.

Ekologian oinarritzen den teologiak beste era batera ulertzen du Izadiaren Sorkuntza eta gizakion Jainkoarekiko harremanak, hareago mundua Sally McFague-ren arauz, "Jainko gorputza" bezala azalduz gero, gu bakoitzak harenean tokia idoroten dugula. Orduan ere Ama Jainkoaren nortasunak hobeki adierazten ditu familia handi horren artekoen armonia. (Ikus 125 or.)

7. 7. *Emakumea toki sakratuan*

Gizon eta emakumeen berdintasuna eragozten dituen arrazoike-tariko bat "toki sakratua" da, ustez eleizgizonei soilik egotzia dagolako, Marduken garaipenaz geroztik. Nor sartu Sancta Sanctorum horretan aita mendeko Jainkoaren baimen barik? Eleiza Katolikua ere mito hoiien arrimenean dagoke eta ez du beste arrazoibiderik edo aitzakirik Lege Zaharreko ohituren morroi jarraitzeko. Eta non du Kristo Jaunaren garaipena?

Emakumea toki sakratura jaso ahal izateko Ama Jainkoa zero-ko tronuan jarri behar da aurretiaz, sinboloak eta irudiak aldatu, gizonezkoen xoilkeria baztertu eta *Ama+Ata>Maitearen* errei-nura aldatu ahal izateko. Berari dagokio zero makoa edo, mandorla deitu, "zeruko zubia". (Ikus 127 or)

Ama Jainkoaren teologia egiteko dago feminista batzuren ustez, baina barneko ohargabeen oso-osorik daukagu, eta oroime-na saiatur, iragartea baino ez zaigu falta. Oraindino, hitzetik ortzera, Elizan ere bide luzea dago egiteko eta dagoeneko onartezina da, adibidez, Pedro apokrifoaren jarrera: "Doala Mariham gure artetik, emakumeak ez dira bizirako duin-eta" eta Jesusek Pedrori erantzuki: Aizak, neu arduratuko nauk bera gizonezko, gizonez-kook bezala egiten, bera ere espiritu bizigarri izan dadin."²³

Kristo izan zan bere garaikideen aurrean emakumearen bene-tako duintasuna ezagutu eta halatan zegokion bokazioa aitortu-zuena, askoren harridurarako eta batzuk ostopatzeraino hatan ere. «Harritu egiten ziran emakume batekin hizketan jarduten



Otahola (Aledia>Lleida, XII) Andre Mariaren irudiak ondo agertzen du Ama Jainkoaren tokia zeru makoan. Artistaren barne sentikieratik absidedeko zeruraino igon du, beste zerutarrak inguruan dituela eta altoan, Inko Semea "Jainko gizatua". Andre Mariak ez du kentzen bere tokitik Ama Jainkoa, ezpaere ordezkaten. Andre Mariaganako jaiarak sinistredunen ohargabea argitarazten du eta Ama Jainkoaren arpegia iragarten digu.

zuelako» (Jn 4, 27). Emakumeekiko tratuan Elizak Ebangelio atxorra eta Nazareteko Jesusen jokabidea du jarraibide, eredu zaharren gainetik. Aitortu ere egiten du: "Eliza harro dago emakumea jaso eta askatu duelako eta gizaldietan zehar, ahiurrien ezberdintasunean ere, gizonaekoekin duen berezko kideasuna disdiratuazi duelako. Baina emakumeak duen bokazio osotasunera bultatzeko ordua heldu da, gizartean inoiz ez bezalako eskua izan dezan, gizadiak halako aldaketa sakona ezagutu duenez gero, Ebangelioko espirituz beteriko emakumeak asko lagundu bai-diezaioke gizadiari, eror ez dadin"²⁴ "Beharrezkoa da emakumaren berdintasun eskubideak ezagutu eta lortzea, hatarako Jainkoak sortzetik eman dizkion kalitateak kontuan izanik".

Eliza Amaren jerarkia harro egongo da emakumearen aurrerapideaz, baina berak Amaren etxean baztertuta dauka emakumea, Ama Jainkoaren irudi bizi den emakumea, mirabe eta garbitzaila bezala bakarrik onartua duelako, gainerako ministeritzatarako ezgei bailitzan. Klerikalismoaren matxismoa ez da konturatu ere egiten hanartean emakumeak jasaten duen baztergoaz eta emakumea baztertzen dueno, Ama Jainkoaren arpegia izkututzen diola

24 Vatikano II-ren mezua emakumeei (XII,8, 1965) JUAN PABLO II, 8 mar 98. Erabaki zuzena ematen du, baina nor da auzi honetan kontua hatzekoa?

herriari, Jainkoa *Ama+Aita maitea* delako, ez soilik *Aita Jainkoa*.

Emakumeak kristau familia askotan tratu txarra hartzen duela? Ebangelioko eskola behar lukeen Elizako santutegian ere baztergo eta tratu bera hartzen du. Eliza bihotzez maitatu eta fedez serbitzen duen alabak hain baztergoa senti beharrak min ematen dio, gaizki tratatua delako. Elizak beti izango ditu ohitura zaharren aitzakiak, baina aitzakiak zenbat eta zaharrago diren, hainbat arinago gaindi beharrezkoagoak dira. Ama Birjina goratua izan den bezala, hala izan behar du emakumeak Ama Jainkoaren kultora goratua, aita mendeko bibliar kultura baino lehena-go herrien kulturetan ohiturazko lege izan zen bezala.

7. 8. *Etxandera* > *santera*

Hitza euskaratik hara joan da gaztelaniara, baina ez arrazoi gabarik, etxanderea izan bai-da Euskalerrian etxekoen eta Jainkoarekikoen ararteakoa. Emakumeek Bateo pontetik ur bedeinkatua hartu eta botelilatxoetan etxera eramaten dute, euren umeak eta gortako abereak bedeinkateko. Gizonezkoek ez dute egiten eta ez lukee egingo fedea eta maitasuna eskatzen duten halako "polikeriarik", eleizako gauzetan ezarduratuak eta koldarrak direlako, Gainera ba dakite: "andrak eleizara, gizonak trabenara" esakera. Apaizek ofizioz egiten bai-dute elizkizuna, emakumeek bokazioz egiteko prestaten dira. Eleizgizonek gero itxumustuan-edo dabilta aldarerako bokazio bila eta ez arrakastatsu, hatan ere.

Etxandera > *santera* hitzen eratorria ulertzeko, etxea toki santu/sakratu bihurtu zena jakin behar da. Ekura-mendia zan hasiera bateko santutegia, han guruen eskutik egiten ziran suaren erritoak, opariak eta agian hango koronarrian ehorzketak, arik eta, su sagaratuarekin batera, Jainkoak etxe barruan ostatua hartu zueino. Ekuran *agure* > *guru*a zan erritoaren gidari, etxean, ordea, *etxanderea* > *santera* ²⁵. Etxean etxandereak hartu zuan

25

Santera izena eta *santería* bere eratorriaren konotazioekin garbi geldi daitezela bata besteagandik. Etxandereak *etxe* santutegian izan duen zeregina santeriako *santerekin* izan dezaken kutsua ukatu gabe, soilik hitzaren sorburua azpimarratzen da.



Etxekandrea ez zan bakarrik hiletako santera etxean, Arratian ardiak Arrabara igon aurretik bedeinkatzen ere ikusten dugu. Ixipu/ipizkia eskuan eta, Pazkoz bedeinkatu ura ontzian, betetzen du egizkizuna. Lehen amak egiten zuena, orain alabak, apaizik ezean, bada une luze betez, apaizek kendu zioten txanda etxandeari eta orain alderantziz, etxekandrea gertu dago apaizei eskutik txanda hartzeko.

su sagaratuaren ardura ta bertako kultuaren gidaritza²⁶. Mendiko Jainko orokorraren etxeratze hau itzelezko iraultza izan zan giza-kiarentzat Jainkoarekiko harremanetan. *Etxe* erakundeko bizitoki santuak arrazoia ematen zion emakumearen geinu eta jakinduriari eta ohargabeen izkutatzen zuen antxinako Ama Jainkoari. Handik aurrera, mendiko harriak, kobak, morkoruak eta koronarriak aztuz joan ziran, harrizko *etxe* erainkuntzak jainkozko suaren sute-gi biurtu zirelako²⁷. Suaren barne iziotze berau ere barne²⁸ Jainkoaren irudi izan zan *etxe* bera gertatzen zela *esse*⁽¹⁾/*iza* hitzetan bizi berria baten *hasi*/*hastea* eta Xainko aurrean *exeri*, edo *xaiki*, eta *etxa*>*txe*/*txeia*>*je*⁽²⁾ nortasun eta ahal izate berriaren ezaguera.

Haraz gero, *etxe* santutegia *etxe*ko zenduen egortz gunea izan zan, *Ama*+*Ate* erlijioak *etxandereengan* aurkitzen zuela Ama Jainkoarekiko erritoen ordezkaria. *Etxe* berak babesten zituan jaioberriak eta zenduberriak eta haien egortze hurbilak berak zekarren *baxatu*>*pasatu* zirenen edo *atabatu*> “abatido” haien oroipena eta *Zabatu* ospakizuna ere.

26 J. M. BARANDIARAN, *Mitología vasca*, o.c., p.55-72

27 Horrek ba du Jainkoei eman ostatuarekin zerikusirik. Ohar Filemon eta Bauzis senar-emazteen mitoa. Ehorzketetan lurra *zapatu* egiten da gorpua-ren gainean, lurra *zapatzea* erritoren parte egiten zan, arimak bide erratuak itzuriz, eguzkiarekin batera, bidea lurpetik zehar egin zezan.


28 Suaren erritua hitzetik ortzera ohikunari lotua zegoen: “Jangoi-kuak emandakoekin sua egin. Oira faterakoan autsez estaldu, gero>

Erromatarren garaian *Laratze* jainkoen ospakizunak eragotsiak izan ziran, gende bilkurak matxinadarako erabiliak izan ez zitezten. Orduan Laratzen ospakizuna etxe barrura aldatu zan. Laratza eta sutegia bat bera zan eta suaren jagole, etxanderea. Bera ahalegintzen zan Gabon-zuziak, autz pean estalita, urte guztian bizirik iraun zezan, Mezkirizko etxekandreak aitortzen zuan bezala: "Iruditzen zitzaute Jaungoikoain amoriua bezala iduki behar ginuela etxean"²⁹. Kristautasunaren garaian *etxandera*>*santerak* lehentasuna galdu zuan klerikalismoaren eskutik, nahiz etxe bakoitzak eleizan bere jarlekuaren jabegoa zaindu izan egunotaraino. (Ikus 25 or.)

Jesus hiltean tenploko errezela urratu egin zan (Lk.23,45) eta toki santua agirian gelditu, apaizburuaren bitartekaritza ahienatzen zela, Kristok berea herri mailara ekarri zuenean, izan ere, "zuek enda santu eta benetako apaizgoa bai-zarete (1 P. 2, 9-10). Orduan gertatu zan Jainkoarekiko ministeritzan iraultzarik handiena, haraz gero tenploa Kristo bai-da eta beraganako sarrera dohanekoa, beste arartekorik gabe.

Baina klerikalismo tematsuak harrizko tenploan egin du, osterara ere, bere eskubide misoginoen gotorleku. Sikoanalizatuez gero, ezaguna da Jung maisuaren epaia: giza baitan *animus* eta *anima* izakerak bereizten dira. Gizonezkoen ohargabe orokorrean anima emea aurkitzen da eta emakumeengan, osterara, animus arra, bere baitaren osakai. Halatan -dino Jung sikologistak- gizonentzat bere bizi erdian anima emearen liluratik jaregitea dela ardurazkoa amarekiko bizikizunagaitik; eta anima osakaiarekin armonikoki bizitzea heldutasuneko lorpena omen du. Emakume batentzat, ordea, animus arrarekin armonikoki bizi ahal izateko nahiko duela norbere autonomia begirunez zaintzea.

>Paternoster bat errezatu, eta Jangoikuak gordetakoekin hurrengo goizian sua piztu." (Mariana Galarza, Urdiain) SATRUSTEGUI, J. M^a, *Mitos y creencias*, o. c., p. 91. Cf: Aitorpen honetan argi dago "Jainko sua" Jainko adierazgarria zela, ez Jainkoa bera edo "Jainko ibaia uraz da betea (Sal. 64,10-11)" esaten denean bezala.



“Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Cleofasen emaztea eta Magdalako Maria”. (Jon 19, 25) Jesusen ikasleek bildurrez alde egin ostean, emakumeak gelditzen ziran Kalbarioan Jesusen lagun, haren zaurien sentikide eta eskeintzaren partekide, seme eta maisu bai-dute. Eta orain zeren bildur dira eliz gizonak, emakumea mezako misterioetatik apartatzeko? Nork daki hobeki tokia eta eginkizuna betetzen?

Orain, bada, gizonezkoak heldu dira bere bizitza erdira, paiz gazterik ostaz ikusten da eta emakumeagazkoak armonikoki eramateko ordua heldu dela esan daiteke. Apaiza “Kristokide” bada ez du ordenak kidetzen, bataioak eta anai-arrebekiko maitasunak baino. Beraz Kristogan ez emazterik gizonik gabe, ez eta gizonik emazterik gabe (1Kor 11,11)

Hala ere, mitoen aurreritxiak agintzen dute oraindino edo kanonen eskubideak: emakumeek bere jarlekua eta apaizgoak bere sakristia. Emakume batzuk auzira deitu dute, eta, hala ere, ez dira onartuak izan, baina Elizako arazoetan emakumeek esku-hartzeko zirrikitu bat ideki dute jadanik.

Dagoeneko “andra meza” deitzen zaio, emakumeek gidaten dituzten eleizkizunei, hitzaren liturgia eta otoitzak, komunio banatzeak eta ohikuna batzuk osatzen dute. Europako kristau eliza batzuetan onartua da emakumea apaiz eta apezpiku izatea ere. Gauzak astiroegi doaz Eromako Kurian askorentzat.

Abade/apaizak ailegatzen ez ditzen tokietan, berriz ere, etxeko-andreek eta emakumeek bere txanda hartzeko prestatzen dira: Bator andreen ordua herriko Elizara, herria gertu dago Ama Jainkoaren abegia onartzeko eta Pentekoste berria izango da, Espirituak giza eritzikerien ostopoen gainetik Eliza gidatzen bai-du.

ONDORENA

